


Bizente Barandiaran

ZARTU GABE EZIN BIZI



AUSPOA

ZARTU GABE EZIN BIZI

Auspoa Liburutegia

(209)

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Guipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Bizente Barandiaran

ZARTU GABE EZIN BIZI

(Oroipenak)

Auspoa Liburutegia

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-140-X
Depósito Legal: NA. 1.232-1990

NERE MUNDURATZEA

Orain artean lanean jardun naiz batean eta bestean. Irurogei ta amaika urte bete ditut eta nekatu naiz.

Orain, nundik nora ibilli naizen, liburu batean jartzea pentsatu det. Utsegite batzuk egitea nere ezjakintasunez, ez arritu. Irakurtzen duanak barkatuko al dit.

1917'garren urteko ilbeltzaren 24'ean sortua omen nintzan. Ara nolatan nere asera. Elurra omen zegoan etxe ondoan. Ganaduari azpitara botatzeko ezer ez etxean.

Baso bat bagenduan, oso eguzki-lekua. Andresmuttegi beraren izena. Basoan, landareak sortzeko, lurrean zulo bat eginda, pareta bezela bueltan egiten zioten, metro bat alturan; eta gero gaiñean elorri zuria aldatu. Ganaduak libre ibiltzen ziran, eta lur ortara ez sartzeagatik jartzen zuten orrela. Ondoren, gaztaiñ-aleak, aritz-ezkurrak, pagoarenak ere bai, basoan, falta zan lekuan, gero landareak sartzeko. Orregatik zuan Andresmuttegi baso orrek izena.

An elurra kenduta zegoala-ta, idiak eta gurdia

artu eta aita ta ama ara joan omen ziran. Aitak garoa ebaki eta amak bildu. Asi ta laister amak esan omen zion etxera joan bearrean zala; ni asia nintzala munduratu naiean.

Aitak esan omen zion joateko; zerbait artu ta segituan zetorrela idiekin.

Ama gaixoak kilometro bat baiño geiago zeukan etxera elurretan. Bidean beartu bazan, leku ederrean zegoan.

Aitak, al zuana bildu eta pentsatu nola ibilliko zan etxera etortzen. Etxe-atarira iritxi zanean, idiak utzi eta sartu omen zan sukaldera.

Bagenduan auzoan aur-kentzen edo komadrone bezela ibiltzen zan emakume bat. Jertrudis Lasa zuan izena. Ez nolanaikoa; eun da berrogei kilotik gora ibiltzen zan. Ura omen zegoan beko suaren ondoan, ni magalean artuta. Errez kabituko nintzan. Ni jazten ari omen zan. Amaika aur jantzi zituan bere denboran. Jaunak berekin dezala.

Nere ama gaixoa! Zenbat laztan gozo artu ote nituan beragandik, eta nik bera ez nuan ezagutu! 1918'garren urtean, gripe izeneko gaitz txar batek eraman omen zuan, nik ogei ta bat illabete nituala. Geroz ta pena geiago daukat ama ez ezagutua. Baiña alperrik. Beste munduan ikusi bearko. Amona izan nuan nere laguntzaille.

Gero aita esposatu zan berriz, nik lau urte nituala. Orendain'go elizan ezkondu eta etxera etorri ziran. Etziran otelera joan bazkaltzera. Etxean ardiak baziran eta, arkumeren bat baldin bazuten, kontenttu. Baita oillo zarren bat zopa egiteko, eta bapo. Gogoan daukat oraindik, nere ama zala esanez, magalean nola eduki ninduan.

Lenengo amarenak iru anai: Joxe, Migel eta ni;

eta bi arreba: Felipa, senideetan zarrena, eta beste bat gazterik il zana, osasun gutxikoa zalako, Joxe eta Migelen tartekoa. Nik ez nuan ezagutu. Izena esan izan zidaten, baiña ez naiz gogoratzen. Bigarren emaztearekin etzuten familirik izan.

Munduratu baiño len
 lana galerazten,
 gero kostako nintzan
 mantendu ta jazten.
 Gurasoen laguntza
 etzait neri azten,
 ez nintzan bela asi
 dirua irabazten.

Pena auxe datorkit
 sari neregana:
 ez nuala ikusi
 sortu niñun ama.
 Gaitz txarren bat zitzaion
 sartu beragana,
 oso gazterikan zan
 Jaunak eramana.



Urkiogon-azpi baserrria. Bizente Barandiaran'en jaiotetxea.

GURE ETXEA

Gure etxea nolakoa zan begiak itxita pentsatzen jartzen naizenean, ikara eta danak ematen dizkit.

Atean sartu ta ezkerreko aldera, *sukalde zarra* deitzen geniona; eta ganadu aurrean bi metro zabaleko pasadizoa genduan erdian. Ate bat sukaldera sartzeko, eskubiko aldetik kuarto bat zuala; eta ezkerretik bestea.

Aiton-amonak bizi ziran. Aita eta ama ere bai. Eta gu, lau senide, bi kuarto aietan an moldatzen giñan.

Apaiza etorri zanean, gure etxean zegoala lekurik geiena eta guk artzeko apaiza esan zioten aitari auzokoak. Gure aita zanak, kuarto bat erditik itxita, apai-zarentzat jarri zuan. Ala ere, bazan naiko lekua bi oi eta armarioa jartzeko. Ogei ta amar bat metro izango zituan kuarto bakoitzak, eta sukaldeak ere bai. Gu iru anaiak gelditu giñan erditik partitutako kuartoarekin.

Beste kuartoan iru oi baziran. Bost jartzeko ere leku-faltarik ez. Mai aundi bat zegoan bi alderditara zabaltzen zana. Festa-egunetan familiko billerak egi-

ten ziran, eta orduan mai ori beste metro bana alde banatara zabaltzen zan, anak erditik partituta. Zabaldu nai zanean, irikitzen zizkioten anak eta doble luzeago gelditzen zan. Ala ere tokia bazegoan.

Ate ondoan erloju aundi bat egoten zan. Erdi-erdian eta zabalagoa, eguzkia bezela zuan, kristalarekin. Bost bat kilo pisu bakoitza izango zan. Zortzi bat egun gutxienez pasatzen zituan pisuak, jaso ta lurrera jeixterako. Kanpai-ots bizi askoa zuan. Gaur ez dakit zeinek izango duan. Baiña oraingo senide oietakoren batek jaso izango du. Ez da aztuta egongo, dagoan lekuan. Kaso egitea merezi duana da.

Sukaldean, berriz, beko sua, tximini zabal bat, trapu gorri bat bueltan jarrita. Bere azpian, egunez bustitako galtzerdi eta mantarrak, sekaten egur batzuetan zintzilika jartzen genituan gauean. Askotan lurrez zikinduta ekartzen genituan. Goizean gogor-gogor eginda egoten ziran. Orduan, bakoitzak bereak artu eta ikulluko posteari joka bigundu eta gozaten genituan, lokatzak aundienak kenduta.

Sukaldeko leioaren aurrean, *labetxoak* deitzen genien. Egur-ikatzarekin sua egiten zan. *Hornilloak* esaten zitzaien. Festa-egunetan jana garbixeago jartzeko izaten ziran aiek.

Beko suaren baztarrean, talo-burnia. Talo-mantenua ori izaten zan. Talo-burnian taloa pixka bat gogortzen zanean, suaren aurrean txutik bezela jartzen zan. Aiek egoten ziran su-baztarrean jasota.

Beste tresna bat kinkea izaten genduan. Olio pixka bat bota, ari pixka batekin metxa bat egin eta gainean zeukan txulo batean sartzen zan metxa ori, mutur bat kanpora zuala. Arek, bear zuan olio, barrendik txuputzen zuan. Ura izaten zan sukaldera-

ko argia. Eta beste kinke bat, ikullurako, farolean sartuta, ortarako preparatuak izaten ziran eta.

Tartean kandela eta argizaia ere bai. Baiña oiek gastu aundikoak ziran. Orduan diruari gaur baiño geiago begiraten zitzaion.

Gero azaldu zan *karburo-ontzia* esaten geniona. Karburoarekin argia egiten zan. Oraindik gure ganbaran badago bat jasota. Sukaldean ura jarri zanean, ematen zuan eguzkitan geundela. Alkarri begira arrituta gelditzen giñan. Ikulluan len bezela segi bear, gure farol xarrarekin.

Ikullu au nekosoa eta gaizki jarria zan oso. Ala oituta geunden eta ala ibilli bear.

Zortzi bat ganadu aurrera begira. Aien atzean beste bi, pareta baten kontra. Beste aldeko baztarran beste bei bat. Eta, azkenik, idiak aparte.

Azpiak ateratzeko, ikullu-atxurrarekin danak erdira bildu; eta gero, sardearekin lengo pillaren gaiñera bota eziñik, izerdi eta patsetan.

Gogoratzen naiz: ia urte beteko txekorrak amari botatzen genizkion, esnea edan zezaten. Txekorrak oitura aundia dute buruarekin amari kolpeak emateko. Eta, berriz ume egiteko bazeuden beintzat, bildurra izaten zuan aitak, amari umea bota araziko ote zioten.

Txekorraren lepo gaiñean igo eta amaren bizkarrera besoak jarrita, antxe egoten giñan. Lurrera botatzen bagiñun ere, gaur baiño errezago salto egiten genduan.

Gure aita zana, beti etxeari mejora nundik egingo pentsatzen egoten zan. Lana egiñaren poderioz, diru pixka bat aurreratzen zuan. Baiña etzuan Aurrezki-Kutxara eramaten. Etxea zuzentzen gastatzen zitu danak.

1931'garren urtean pentsatu zuan kuartoak eta sukaldea berritzea. Ekarri zuan igeltsero bat Lazkao'tik; eta arotza, Itsasondo'ko Latiñeko Joxe Aundie deitzen geniona. Asi ziran lengo pareta danak bota eta etxeari leio aundiak atera. Lenago iru zeuden tokian, lau.

Iru kuarto eta sukaldea eta pasillo ederra egin zioten. Ganbaran beste bi kuarto, tokiaren faltarik etzegoan eta. Ura ikusi genduanean, iruditzen zitzaigun otelean geundela.

Aiek bota zituztenean, Joxe Aundie asi zan ikullua zuzentzen. Bota zituan alperrik zeuden pareta zar danak, eta brontal batzuk berriak sartu eta ormi-goizko posteak jarri.

Nola etzegoan biderik kamioiak joateko, Zubin'go errekatik ondarra eramaten genduan, ballaran ziran asto danak artuta. Amalau eta amasei asto ibilli izan genituan, batzuk arrantzaz eta besteak ostikoka, iskamilla ederrak bere aiekin pasatuz. Zaku bana ondar jartzen genion bakoitzari bizkarrean. Asto aundia bazan, zaku aundixeagoa. Txikia bazan, arintxeagoa. Kontzientziz begiratzen genien. Illuntzean bakoitzari berea entregatu, eta eskerrik asko eman eta kito.

Gure etxean beietako zezena egoten zan, eta gure aitak etzuan ezer kobratzen, eta jendea pozik egoten zan al zuana laguntzeko, astoa emanaz. Eta berak ere askotan etortzen ziran txandaka, lanean laguntzera. Ondo konpontzen zan gure aita ballarako jendearekin.

Jarri zituan amabost buru alde batera begira, eta txekorrak baztarrean. Altxatu zituan ganaduak, eta zimaurrea botatzeko tokia ia metro bat gertu, berago. Orduan etzitzaigun lana zanik iruditzen.

Azkeneko ikullu zarrean, amabost eguneko zi-maurrak, gu obran ari giñala, gure arrebak atera zituan bakarrik. Nik amalau urte nituan. Nere arrebak ogei ta iru.

Obran ari ziran igeltseroak, gelditu ta ari begira egoten ziran arrituta. Esaten zuten:

– Ez ditek olako lanik egingo edozein señoiritak!

Sasoi latza zuan garai artan. Oraindik ere oso ondo dabil, bere larogei ta bi urterekin.

Ikullua jarri zuan bere gustora gure aitak. Guk ere bai poz ederra. Kendu zituan lengo lan torpeak.

Gero asi zan ganbaran. Lengo solairuaren gaiñetik, berria eman zion. Berak gaztain-txertakak erosi, Lizardi'ko zerrara eramane eta an olak egin.

Beste bizitzan, bidea tartean zala, aitaren lenengo emaztearen anaia bizi zan: gure osaba eta nere aita pontekoa, Bizente, ni bezelaxe. Arotzerian oso iaioa zan. Arek okerrak kendu eta josi zituan.

Ganbarako sarrerari mandioa esaten genion. Lenengo ganbarak sarrera bazeukan. Belarra gurdian ekarri ta sardeka gora jasotzen genduan. Ura ere nekosoia zan benetan. Kanpotik ederki berotuta gurdikada ekarri, eta dana gora jaso bear.

Eta aitak pentsatu zuan bigarren ganbara jartzea. Erosi zizkien Idoia'ko Migel Joxe eta Pedro bere semeari, ballara artan zeuden arbolarik dotoreenak, bi aritz-arbola. Aitak etzitian eman nai, baiña Pedro semeak baietz esan zion.

Ala, ekarri zituzten neurrian moztuta, eta osaba Bizentek aizkoraz preparatu zituan. Lau brontal ogei ta amabost zentimetro alde batera eta ogei ta amar bestera jarri zituan. Postean koskak atera eta aiek an kolokatzen izan genituan lanak. Baiña bai ederki neurtu ta juxtu asko ipiñi. Alderdi batetik altxatu eta

bestetik Joxe Aundik bakarrik eutsiko ziola, guk bestetik altxatzen bagenduan. Guk, bi anai eta osaba, bagenituan naiko lanak. Baiña zuzen etortzen zan eta ondo gelditu ziran.

Ondoren, soliboetako gaztain-txertakak Domingotegi'ko Juan Mariri erosi zizkion danak, eta osabak preparatzen zituan. Gero, bigarren ganbarako olak bazeuzkan Lizardi'tik ekarrita. Bigarren ganbara ederki antolatu zuten danen artean.

Andik aurrera, gurdia goitik sartu eta belarra andik bera botatzen genduan. Gurdia itzuli eta libre.

Etxeko lanak erosotu zituan, bere gogoari zana eta. Baiña terreno maldak edo aldapak beti. Aiek ezin zelaitu edo ordeka jarri.

Bere bizia antxe bukatu zuan, larogei urte betetzeko illabete falta zuala.

Anai zarrena gelditu zan etxean. Bere emaztea, Felipa Unanue, Santa Marina'ko Aldaola-goiko baserrikoa. Amaika seme-alaba izan zituzten.

Txikiak ziran artean, danak etxean. Baiña pixka bat azi ziranean, nunbait lanean asi bear, eta alaba zarrena Ordizi'ko taberna batean serbitzen jarri zan, eta besteak ere kanpora naiean, eta azkenean pentsatu zuten danak alde egitea.

Dana izan zan biderik etzegalako. Iru kilometro oinez pasatu bear, eta danak arek ikaratzen zituan. Neronek ere probatu nuan ondo.

Ibilli zan anaia bi lekutan baserria erosteko. Neri laguntzeko esan zidan eta alegiñak egin nizkion. Baiña tratoan etziran konpondu.

Azkenean, Ordizia'n taberna bat erosi zuten. Antxen bizi dira ama eta soltero daudenak. Besteak,

ezkondu aiñean, beren etxeetara zabaldu dira. Baiña danak inguruan, sarri alkarrengana biltzen dirala. Pozgarria da danak ondo etortzea alkarrekin.

Etxea, au gelditu zan penagarri, ala jarritako baserria. Gero asi ziran ituteak tellatutik bera, etxea ondatzen; eta eskerrak pentsatu zuten tellatua beintzat berritu egin bear zutela.

Tellatua jarri zutenean, bururatu zitzaien danentzako abitazio bana egitea. Ama eta amaika senide, amabi abitazio egin zituzten. Gero, aur txikientzat, bat mutillentzat eta bestea neskentzat egin zituzten. Danetara amalau abitazio, bi kuarto-baño eta dutxa bat. Eta azkenean txotx egin zuten, zein abitazio zeinrentzako izan. Amari utzi zioten, lenago amaika seme-alaba sortu zituan abitazioa, sorteatu gabe.

Etxearen baztar aldetik, lenago ezer ikusten etzan tokian, pelota-lekua jarri zuten, tellatutik argia eta eguzkia sartzen zala, amar metro luze eta bost zabalean. Badaukate nun jolastua joaten diranean.

Poz ematen du gaur, gu sortu giñan baserria era ortan jarrita ikusteak.

Terrenoak an dauzkate. Baso geienak, piñu sartuta. Soroak, belardi. Udaran auzoko batek mozten ditu, eta neguan artzaia maiatz aldera arte.

Ainbat sail gaztaiñadi bazituan. Neronek ere banituan sail ederrak boteak ikatz egiteko. Gure aita zanak gogo orixe zuan beti berekin: terrenoak erosi, egurrak bota, ikatz egin eta aien diruarekin basoa ordaindu. Lurra beretzat gelditzen zala esaten zuan.

Lenago, Errota-alde izeneko basoa genduan etxetik bistan. Gero erosi zuan. Itxesa baserriko Baso-bizkarra esaten geniona, ura ere erosi zuan. Bai lana pranko jarri ere.

Beste aldetik, bagenituan gaztaiñadiak. Terrenoz

aundiak ziran. Bat, Albitxuri; bestea, Jiunpai; bestea, Andresmuttegi; eta beste bat, Zalantegi. Oiek danak gaztain-arbolez beteak ziran.

Gero, Bidebieta eta Pagola. Pago-arbolak ziran oiek bietan. Danak bota egin zituzten, eta ikatz egin. Pena ematen du gaur ikusita. Baiña gure aitaren gogoia orixe izan zan.

Gero, ondorengoak piñua aldatu zuten, eta an daude, batzuk piñudi, besteak sasiak artuta.


Belardiak bazituan. Bat, Truzula; bestea, Txoa-txo. Bestea, Pagatxikita; bestea, Ariztitxo; bestea, Leitzea; bestea, Arrapaitz; bestea, Urrizpaitz. Geienak eun areatik gora ziran. Bazan nun nekatua.

Berrogei ta amar urte badira ez naizela iritxi terreno oietara. Badakit geienak piñu egongo dirala. Badaukat gogoia egun batean danak ikusteko.

Pena ederra daukat
nere biotzean:
guztiok ezin bizi
alako etxean.
Tristetu nintzan oso
andik aldentzean,
negarrak irteten dit
gogoratutzean.

Gogoan det oraindik
orduko kasoia:
agurtu egin bear
ballara osoa.
Lantegia eduki
arren nekosoia,
an zegoan guretzat
billera gozoa.

Len sasoiko eta gaur
bajatzen asita,
zartzeak zer dakarren
nago ikusita.
Urki'ra azaldu gabe
ni ezin bizi-ta,
al dan artean egin
nai diot bisita.



Urkigoen-azpi baserria, Bixente Barandiaran'en jaiotetxea.

NEKAZARITZA

Au irakurtzen duten askok, laiak zer diran ez dute jakingo. Laiak dira bi ankako erramienta batzuk. Garai batean asko erabiltzen ziran. Gaur ez dira ikusten. Zenbait etxetan, adornurako edo doto-rezirako egoten dira.

Erramienta oiekin preparatzen ziran lurrak. Abenduan edo ilbeltzean garia ereiteko, etxeko lurraren erdia; eta beste erdia, otsaillean edo martxoan artoak ereiteko.

Orain jendeak goldearekin leku geienetan. Trato-reak ari dira leku ordeketan. Aldapa xamarrean, ganaduekin oraindik.

Garia ereiteko lanak errezagoak dira, artoa ereiteko baino. Garia, azia bota eta lurrari berdindu bat eman ezkeru, ondo etortzen zan. Baiña artoari lur obeagoa jarri bear zaio, nola lurraren azpian sartu bear izaten duan. Garai batean, arto-lurrak ere laiekin gorritzen ziran. Geienean lau lagun ibiltzen gitan. Beste batzuetan, bost igual.

Laiekin lana egiteko, lenengo lurrean ebaki bat egiteko, *nabarra* izena zuan burni luze bat izaten zan.

Lurrean sartu ta ogei ta amar bat zentimetro bidean ganaduekin egiten genduan ebaki ori.

Gero, batzuetan, lau lagunentzako izaten zan. Baiña ganaduak beti etziran zuzen joaten, eta zenbait tokitan bostgarren laguna sartu bearra izaten zan zoian.

Zoia deitzen zitzaion, lau lagunen artean eramaten zan sail orri. Lan nekosoa eta pisua zan benetan.

Urte askoan jardun nintzan ni ere. Goizean asi eta amarrak aldean ogia eta ardo piska bat, gorputza bizitzeko. Amabi ta erdiak alderarte berriz segi. Orduan gaur baiño goizago bazkaltzen zan. Bazkalondan, siesta aundirik egin gabe, lengo lanera berriz.

Esku-opoak ederki minberatuta jarduten giñan. Baiña alaxe oituak giñan eta segi egin bear.

Leku ordekek edo zelaiak ziranean, nunbait or. Aldapa edo malda aundia bazan, lurak bizkarrean barrenekoak goraiño jaso bear. Ura ere etzan lan ederra izaten. Bizkarra ederki gorrituta, eguzki beroa bazan. Zaku burutik bera artu, zesto-zulotik lurak lepotik bera sartu etzitezzen. Gaurko gazteei esango balitzaie, ez luteke arpegi ederra jarriko.

Gero asten giñan arrearekin zoia austen. *Zoia austsi* esaten zaio lurra berdintzeari. Lenengo, are bat ibiltzen genduan, ortzak motxak zituana, lurrari puska aundiak ez kentzeagatik. Gero arre aundiagoa, lur gaiñean auts geiago egiteko.

Gaurko gazte askok area zer dan ez dute jakingo. Area da bost egur kuadrokoak, metro bat baiño zerbait luzeago aurrean, eta atzean bi trabesaiño. Egurrari zuloa egin eta ondo josita izaten ziran. Egur oiei *burnizko ortzak* esaten genien. Ogei ta amar edo berrogei zentimetro luzekoak.

Aiek erroak egiten zituzten. Su-tokian berotu

eta muturra zorrozuta jartzen zituzten. Gero, egur oiekin *mirabirjina* edo *taratulua* izaten zan zulatzeko, burnizko ortzak baiño zerbait estuagoa. Gero, burnizko ortzak berotuta, mailluarekin joka, bear zan lekuraiño egurra erreaz sartzen zituzten. Motxa bear bazan, gutxiago sartuta utzi. Luzea bear zanean, geiago sartu. Aiekin moldatzen giñan arto-lurrak jartzeko.

Lurra ondo preparatutakoan, gure gazte-denboran ol-puxketa bat izaten genduan lurrean, ogei bat zentimetro zabaleko zuloa egiteko. An jartzen genituan lau arto-ale ixkiña banatan, eta tartean bi babarruna.

Artoak beatz aundiarekin zapalduta, azkarrago lurrari eldu eta sortzen zala esan oi zuten. Gaur ez det uste iñor jardungo danik beatzarekin artoa zapaltzen.

Gero azaldu zan arto-azia botatzeko makina bat, ganaduekin ibiltzen zana. Baiña gure gurasoak laister baztatu zuten, arekin bota ta artoa gaizki etortzen zala esanez: toki batzuetan geiegi, bestetan bat ere ez. Gure aita zanak etzuan gustoko erramienta.

Gero, atxurrarekin zuloa eginda asi giñan botatzen. Geroztik, ontan segitzen degu baserrian gabiltzanak.

Orain, toki geienetan, danak belardi utzi eta ganaduak larrean ikusten ditut, Gipuzkoa aldean beintzat. Arto eta gariak Napar-aldean eta ortik aurrera egin bearko dituzte. Emengoak bukatzen ari dira.

Gariak ere bazituan bere lanak. Ereiteko errezena bera zan. Gero lan txarrak zituan. Ebakitzen asten giñanean, itaiarekin danak. Ballararen barrenekoak eltzen ziran aurrena. Orduan, goien bizi giñanak, aiei laguntzera joaten giñan, gero aiek guregana

etorri zitezen. Barrenean asi eta goikoak bukatzerako, ogei bat egun pasatzen ziran.

Iñoiz gertatu oi giñan: lastoari eltzen ezkerreko eskua nekearekin aunditu egiten zitzaigun. Ura lan-tegi txarra zan.

Gero, ganbaran, arri-losa bati joka, aien aleak ateratzen jarduten giñan. Eguzki beroa bear zan. Orduan ateratzen zitzaion errezena. Baiña lana oso zikiña eta penosoa zan. Makinak azaldu ziranean, orduan sikira egun bateko lana izaten zan, eta lanik gogorrena makinak egiten zuan.

Garia gauza ona da beti, eta bearrezkoa. Baiña garai aietan asko kostatzen zan. Nekosoa eta lan txarra zuan, naiz gero ona izan.

Orain, Gipuzkoa onetan bukatu ziran lan oiek. Leku zelaietan eta terreno aundiak dauden tokietan, lanak errez egiten dituzte. Zerbait bear ere bai, alako terreno-saillak ibiltzeko. Gu arriari joka; eta orain garia ebaki, zakuak bete alearekin eta lastoa txikituta utzi. Adelantu onik baldin bada, ori bai dala bearrezkoa.

Guk gariak etxeratzen genituanean, arbi-lurrak preparatzen asten giñan. Lenengo, arearekin gari tartean zegoan belarra bildu. Aiek, su eman eta erre egiten genituan.

Gero, *besarea* esaten zitzaion erramienta ganaduekin artu eta lenengo arekin lurra erabilli. Besarea esaten genion, pertika luze bat, eta atzean bi adarrekoa, edo erditik pitzatuta jartzen zan, atzea zabalagoa izan zedin. Aurrean ortz bat izaten zuan. Pixka bat atzeraxeago bi, eta atzeko puntan beste bi. Orrela, aldiko metro erdi bat gorritzen zuan.

Arekin lur danak pasatutakoan, ateratzen zituan sokorrak edo lur-tontorrak, alperrarekin zapaldu edo

puskatzen genituan. *Alperra* deitzen zitzaion, metro bat edo geixeago zan arri borobil bati. Bi puntetan zuloa egin eta bi burni sartu erdi-erdian. Gero, *alper-etxea* esaten zitzaiona gaiñetik jartzen zan; bi burni aietatik elduta. Ganaduak tiratzen ziotenean, bueltaka ibiltzen zan. Sokor guziak arek austen zituan. *Alperra* zuan izena, baiña langille aundia zala ura esaten zuten lenagoko zarrak. Lur guzia berdinduta uzten zuan.

Gero, beste erramienta bat bazan, *zazpi-ortza* esaten geniona. Ura zabaltxeagoa zan. Arekin ematen genion beste buelta bat lur guziari. Orduan sokor gutxiago izaten zan, lurra azpira biguiñagoa egoten zalako.

Eta, azkenean, *lau-ortza* esaten geniona. Arek ortzak luzeagoak zituan. Lurrean berago sartzen zan, eta arekin danak pasatu.

Gero, etxean ziran zimaaur danak ateratzen genituan. Urtean bein garbitzen genduan ikullua ondo. Artoak-eta egindakoan, danak bukatu gabe gelditzen ziran. Baiña arbiak egiterakoan, aurrena lurrari nastu egiten genion; eta, sobratzen bazan, gaiñetik berriez bota. Nola negua zetorren, berak lur danak desegiten zituan.

Arbiak egin aurretik, belarretan saio ederrak egiten genituan. Arbiak bota arte, aste bat etxean egiten genduan. Gure aita zanak, arbiak ereiteko egunik onenak Agoztuaren 14 eta 16'a esaten zuan, Urki alderako. Emen, Donostia'n, nik begiratu izan nionez, agoztuaren 20'tik 24'era arte garairik onena zala pentsatu izan nuan.

Arbiak alde aundiak ditu. Entzun izandu nuan, goizean bota edo arratsaldean bota, aldea ekarri izan duala. Orain ez dakit zein izango zan onena. Goiz

xamar egin eta euriak arrapatzen badu, azkar jaiotzen da eta bildugarria da askotan. Goizegi indar aundia artzen badu, zambrotu egiten da. Igartu edo arbi-ondoa ustelduta gelditzen da. Toki askotan berandu xamar egiten dute. Onek ez du zambrotu bildurrik izaten. Baiña ez da azitzen, bestea bezela. Bere garaian eginda obeak azitzen dira.

Nik urte batzuetan izan ditut arbi-sail ederrak. Orain dala bost urte, izugarriak baneuzkan. Tabernan amaiketakoa egiñez geundela, esan nien nere soroan egongo zala arropa bat pisatzen zuan arbia. Aundia zala esan zidaten.

Pentsatzen egoten nintzan aundi xamarra esan ote nien. Arroba bat da amabi kilo ta erdi.

Ondorengo egun batean, nere lengusua etxean dagoanak ekarri zuan karretilkada bat arbi. Danen gaiñean bat oso aundia zeukan. Ikusi nuanean pentsatu nuan pisatu egin bear nuala.

Bizkarrean artu ta banentorren pisatzera, eta lengusuak pentsatu zuan zertara ninjoan, eta esan zidan lenago ere pisatu zuala. Nunbait jakin nai zuan, nik tabernan esan nuana egia ote zan. Galdetu nion:

– Zenbat pisatu zuan?

Eta esan zidan:

– Amairu kilo.

Gustora gelditu nintzan, gezurrik ez niela esan pentsatuz.

Lagun batek esan zidan:

– Arroba bateko arbia baldin badaukazu, arbi bat eta kilo bat baba emanda, ez dago beia gaizki otordu baterako.

– Ala bearko.

Beste gauzak bezelaxe, arbiak alde aundia izaten du, zer girotan ereiten dan edo zer garaitan egin bear dan. Bere garaian eta giro onean eginda, arbiak etekin ona eman oi du.

Lurrak ere badira alde aundikoak, toki batetik bestera. Entzun izan nuan Santa Marina eta Errezil-alde ori oso arbi-leku ona dala.

Gure aitona zanari entzun nion Santa Marina'ko Larrañaga baserriaren ondotik pasatu zirala bein bi koñadoak, eta arbi-soroari begira omen zeuden. Atera omen zitzaien etxeko nagusia, eta esan omen zioten, arbi-soroari begira zeudela:

– Arbi-azia gordeko al diguzu?

Eta erantzun omen zien:

– Lurra eta danak eraman, arbia izatea nai badezute.

Arek esan nai zuan arbia bakarrik etzala ona, baizik lurra ere bai. Lengo moduan gelditu omen ziran, lurra ezin ekarrita.

Guk, Goierrin izaten ziran iru laboreen berri ondo ikasi genduan. Udaberrian artotik asi; udaran garria, eta neguan arbiarekin.

Baratzako gauzarik gutxi izaten zan, gu sortu giñan lekuan. Nola kaletik urruti bizi giñan, guk ez genduan eramaten, arto tartean izaten zan babarruna besterik. Kaletikan gertu bizi ziranak saiatzan ziran. Asteazkenetan ferira eta igande-goizetan ere plazara joaten ziran, berdura, fruta eta orrelako gauzak artuta.

Baratza-gauzak dirua ondo uzten du, baiña lan asko egin bear. Baratzako lana, nekosoa eta zer egin asko ematen duana da. Batetik garbitzen eta bestetik

jarri eta bildu, makurtutako lana asko ematen du baratzak. Baratzan saiatzeko, gaztea eta sasoikoa bear du izan.

Toki batzuetan ikusten dira baratza-sail ederrak, egunero kalera joaten oituta daudenak.

Gure lagun bati entzun nion:

– Baratzara ez da joan bear dagoana artzera bakarrik; jartzera joan bear da egunero.

Baratzan asko dabiltzanak, irurogei urterako gerriak okertuta ikusten dira. Siñalatzen da makurtutako lanean gerriak ondatzen dirala. Emen ez baidago arantza gabeko larrosik.

Baserritarren artean iritzi asko izaten ditugu. Batzuek diote, zer ikusi aundia duala illargiari begiratzek. Askok esaten dute, azi geienak ereiteko ilbera dala onena. Beste batzuek, giro ona dala bearrezkoa.

Baiña nik uste det giroa ta ilbera eta ilberriari begiratzea ohea dala. Beste batzuk badaude, esaten dutenak lurrari lagundu egin bear zaiola. Naiz ilberrian izan, ondo gobernatzen bada, lur arek emango duala.

Iritzi oiek gauza askotan ikusi ditut. Sagardo-zaleak ere badira, enbotillatzeko momentuan noiz dagoan begiratzen diotenak; eta, momentu onean jartzen danean, illargiari begiratu gabe botilletan sartzen dituzte sagardoak. Beste batzuk, berriz, ilberriko ostirala edo ilberako eguna etorri-zai egon oi dira.

Nik uste det bere aldea baduala. Egurrean beintzat, sasoiko denbora artan ibilli nintzan, eta alde izugarria du ilbera eta ilberriarekin. Batzuei entzun izan nien, ilberako ostirala eta ilberrikoak ez duala ezer esan nai. Baiña prueba asko ikusi ditut egurrean nere begiz. Ez duala ajolik esaten duanari, ez diot sinistuko. Neronek ikusi baidet alde aundia duala.

Osto borobilla duan arbola, ilberrian bota bearrekoa da; eta ostoa zabala eta koska asko dituana, ilberrian, material ona nai bada izan. Bestela, pipiak laister zulatuko du. Egurrarekin lana egin nai duanak, orri begiratu bearra dauka. Bestela, laister izango dute akatsa garai txarreko egurrarekin egindako lanak.

Nik uste det, egurrean bezela, lurreko lanetan ere alde aundia duala, beste gauzetan bezela. Batzuen buruan ori ez da sartzen. Baiña berentzako kalte. Nik uste det ohea litzakela begiratzea.

Beste gauza batzuk badira illargiari begira egotetik ez daukatenak. Belarra ebaki bear danean, illargiaren zai ezin egon diteke; baizik eguzkia zaindu bear da, belarretan lana egiteko, nola egun bat baiño geiago bear diran ebaki eta metan jarri edo legorrean sartzeko. Orduan ez dago ilbera edo ilberri-zai egotetik. Eguraldiak lagundu bear. Eguraldi onak badira, belarretan lana errez egiten da. Txarrak diranean, lana egingo litzakenean geldi edo beste lan batean jardun bear.

Orain, gure gazte-denboran baiño adelantu geiago dago lan ortarako. Toki askotan belar-zuloak eginda dauzkate, eta zulo oietan berdetan sartzen dituzte. Kilo asko ibilli bear, baiña ortarako preparatuta daude.

Gaur baserritar askok segadorarekin belarrak ebaki, eta gero berak artzen dituzten beste makinak ikusten dira; auek kargatu eta beajeak azkar egiten dituzte. Zuloetan sartu, ondo zapaldu aizerik tartean gelditu ez dedin, gaiñetik tapatu eta karga jarri estutzeko; eta neguan andik ematen diote ganaduari jateko. Eguzkitan sekatuta baiño indar aundiagoa omen du ganaduarentzat. Eguzkirik ez bada ere, ateri iza-

tea ohea. Sekoa sartu ezkerre, obeagoa dala entzun izan det.

Era orretan preparatuta daudenak, belarrari komeni zaion garaian ebaki, eta berria etortzeko alde aundia izaten da. Bere garaian belarra ohea egoten da, eta berria azkarrago etorri.

Eguzkiarekin lana egin bear duanak, askotan belarrak zarregi egiten, eta berria etortzeko galerazten egoten da. Belarra, berdea dagoala, ebaki ta azkarrago berritzen da bestea. Orregatik jendea ari da gauza oiek bereganatzen.

Gu gazteak giñanean, dozen erdi bat beirekin bizitzen zan familia. Baiña gaur baserritik bizi dan batek, ganadu geiago bear du, famili bat aurrera ateratzeko. Orain urte batzuk, berrogei litro esne ateratzen zituana ondo ibiltzen zan. Gaur, eun litro-tik bera ateratzen duanak ez dauka zer egiñik baserrian, diru askoren tresnak bear ditualako baserria ondo erabiltzeko. Milloi batzuk etxeko tresnetan gasatatuta, aiek ordaintzeko diru asko bear da, eta mantendu eta jantzi ondo dakigu zer kostatzen dan. Orrek estutzen gaitu danak.

Baserrian ondo ibiltzeko, sasoikoak bear dira izan. Gaurko makinari oiek ez baidira gure moduko zarrarentzat egiten. Orregatik ari dira baserri asko ustutzen. Gazteak, kanpoan lana badute, baserriari utzi ta kanpora dijoaz.

Etxe batzuetan ikusten da, kanpoan lana egin arren, beren baserritik gertu illuntzean edo erreleboan lana egiñez, baserriari eusten diotenak. Baiña leku askotan kanpora esposatzen dira gazteak, eta zarrak al degun bezela, geuren burua mantendu ezi-

nik. Nagusia gaizki eta etxea okerrago. Bear bezela ezin lanak ondo egin. Ori etxetik ondo ikusten degu, eta beste leku askotan berdin.

Baserria lan asko duana da, eta askotan oso nekatuak ibilli bear, eta sufritzen gauza askorengatik. Bartzuetan, euri geiegi dala; bestetan, legorregi dagoala; eta, bestetan, bear bezela ez duala laguntzen.

Baratzan egindako lanak kontrario asko dauzkate: orko karakol, bare, lurpeko bitxo txarrak eta sortzen zaizkion gaitzak. Danak salbatuko badira, pertsonak bezelaxe, medizinak edo bear diran autsak edo botikak dendatik erosi eta ekarri bear. Naikoa dezu boltsa txiki baten eske joatea milla pezetako bat kentzeko, eta ura bi eguneko daukazu. Lurrak ondo garbitu nai badituzu, milla pezetako askoren botikak bear dira, eta aientzat sortu egin bear; eta ez badezu lurra garbitzen, zuk egindako lanak lurreko bitxo oientzat dira danak.

Lenago ez omen zan izaten orrenbeste gauza txar. Orain nunaitik agertu dira, eta oiek garbitzen dauzkagu lanak.

Gure gazte-denboran patata-zomorrerik ez genduan ezagutu. Gerra-denboran kanpotik ekarritako patatarekin etorri zala entzun izan det. Geroztik ori ez da faltatzen. Neguan jela eginda ere, ori salbatzen da nunbait. Patata azitzen ari danean, or azaltzen da. Naiz kanpotik etorria izan, bueltatzerik ez du pentsatzen. Beste askoren gisa, betirako.

Or ikusten da leku onean bizi gerala. Onera etortzen diranak ez dute aldegin nai izaten. Onak eta txarrak bertan gelditzen dira.

Gure gazte-denboran nik ez dakit zergatik orren-

beste gauza txar ez genduan sentitzen beintzat. Barea ta karakola beti ezagutu genituan. Mendian ere bai azariak, azkonarrak eta oilloei segika zebiltzan gabiraiak.

ARTZANTZA

Oso gazteak giñala, Murumendi'n artzai ibiltzen giñan. Urki ballaran Don Salvador apaiza eskola ematen asi zanean, goizean ardiak eramaten genituan Murumendi'ko arkaitzetara. Barrenetik gora larrera bialdu eta bederatzietarako eskolara etortzen giñan.

Uniforme eta zapata lustreaturik ez genduan izaten. Galtzak lokatzaz beteak eta abarkak soiñean. Ala ere, bederatzia baiño len etortzea nai izaten genduan, amar minutu benik pelotan ibiltzeko. Apaiza joaten zanean, danok eskolara.

Eguerdian, eskolatik atera ta ardiak nun zebiltzan ikusi bear bazkal aurretik. Eskolatik kilometro erdi bat bide dago Muskildi'ko Egia esaten genion lekura. Andik agertzen zan Murumendi'ko arkaitza, erdiaz goikoa. Ikusten bagenituan, pozik izaten giñan. Bestela, aurrerago joan bear, Bidebieta'ko Egi'raiño. Andik geiena ikusten zan.

Bistan ez bazeuden, askotan aitari gezur bat asmatu bear. Esaten genion ondo zebiltzala arkaitzaren

erdi parean. Baiña bazkaldu ta eskolara joaten giñan, geuren pekatua barrenean genduala.

Arratsaldean, eskolatik atera ta berriz billa joan bear. Orduan izaten genituan komeriak. Nunbait billatu bear, eta neguan beintzat illundu egiten zuan bereala. Ankak astintzen genituan ardiak billatu arte. Aurrean artzen genituan, gustora izaten giñan.

Eskolatik jai genduan, egun guzirako bialtzen giñuzten. Goizean talo ta esnetik jan bat ederra egin, eguerdirako ogi-tarteko edo bokadillo bat artu eta egun guzia an pasatzen genduan.

Esaten ziguten Murumendi'ko arkaitzean Damaren zulo bat bazegoala. Aitak erakutsi zigun zein zan Dama egoten zan zulo ori. An egon izan giñan barrena begira. Guk ez genduan ezer ikusten. Etzegoan gizona sartzerik. Ez dakit zer dama-klase izango zan.

Eguna ez genduan motza izaten. Murumendi'ko puntara igotzea bildurtu egiten giñan. Beizama'ko Gorosagasti baserria gertuan zegoan andik. Geroago kontatuko det an gertatu zan ilketa. Ango iltzaillea inguruan izango ote zan izuak artzen giñun. Goiko puntatik begiraten genduan tarteka, baiña laister alde egin.

Gerora, ilketa ura pixka bat aztu zanean, Gorosagasti'ko ingururaino joan izan giñan. Baiña leku tris-tea zan ura beti. Buelta guzian etzeukan arkaitza eta basoa besterik.

Paurrea eta Agorta baserrietan artzaiak ibiltzen ziran. Paurrea'n zegoanari Aizmendi esaten genion. Uste det Beasain'go bera bizi zan baserriaren izena izango zuala ori. Oso gizon jatorra zan.

Batean, guri ardiak galduta, joan nintzan ikusi al zituan galdezka. Berak ere falta zituala esan zidan.

Biok joan giñan Matximenta aldera, ea billatzen genituan. Gureen arrastorik ez genduan atera. Berarenak, Enrikorta'ko arkaitzaren puntan billatu genituan. Aiek aurrean artu ta etorri giñan.

Urrengo egunean, aita eta anai zarrena joan ziran billa. Entzuten genduan inguru artan ikusi zituztela, eta Matximenta'ko Otota baserriaren ondoan billatu zituzten. Orrela ibilli bear izaten zuan ardiak zeuzkanak.

Geroztikan ez nuan ikusi Aizmendi artzai ori. Edadekoa zan, nerekin ibilli zanean. Gero uste det laister alde egin zuala Murumendi aldetik. Illa izango da.

Azari, azkonar eta gabiraien bildurrez izaten giñan gu, mendian genbiltzanean, gazte-denboran, mendi eta basoetan geuren ardien atzetik ibiltzen giñan da.

Egun tristea pranko pasatu genduan ardien atzetik, neguan otza zalako eta udaran bero geiegi askotan.

Egun batean gertatu zitzaidana gogoan det betirako. Uste det agoztua izango zala. Aitak esan zidan Lizardi'ko Aizordi'ra joateko, ardiak artuta. Aren ondoan geneukan belardi bat, Ariztitxo izena duana.

Orduan inguru danean pagotegiak zeuzkan. Gurea zegoan belarra ebakitzen zana. An belarra geneukan ebakita eta, ardiak zainduz, belarrak bueltatzen laguntzea nai zuan. Aruntza joan ziran arreba eta Zaldibi'ko lengusu bat. Antonio beraren izena. Aitaren arreba baten semea zan, eta askotan bialtzen zuan osabak guri lagun egitera, gu baiño zartxeagoa zan eta.

Alako beroa egiten zuan, kiskali bearrik danak an genbiltzan, eta bazkalondoan joan zitzaigun aita.

Anai zarrenak bazkaria eramán zígún. Gero aita belardira joan zan, idiak eta gurdia artuta.

Ardiak an zeuden pago-arbol baten azpian abaro. Beroarekin etziran itzaletik mugitzen. Orri esaten genion abaro zeudela. Euliak etortzen ziranean, txintxarria mugitzen zuten. Bestela, arrastorik ere ez. Baiña banekian nun zeuden.

Orrela, belarra bildu eta kargatu genion gurdia aitari, eta alde egin zígún. Aldiko belar gutxi, gurdi-kada txikia, eramaten zuan. Malda zeukan betik gora eta bide txarra. Bildur izaten zan karga aundia jartzeko.

Alde egin zuan bere idiekin, eta gelditu ziran belarrak bildu eta jartzeko agindu zígún.

Eguraldia asi zan mudatzen. Bero aundia zan eta eraso zioten trumoi-laiñoak alde guzietatik azaltzen. Gurdiarekin etxera iritxi ziranean, ganaduak utzi ikulluan; eta aita bere illobarekin soka bana artu eta joan ziran, sobratu ziran belarrak bien arte bizkarrean artu ta ekartzeko idean.

Aiek iritxi ziranerako, eguraldia oso beztu zan. Illuna ere gertu. Nik, berriz, artean eskarmentu gutxi. Amar bat urte izango nituan. Aitak esan zidan:

– Euria zetorrek eta azkar alde egin zak ortik.

Eguzkia gorde zanean, ardiak ekin zioten larrean. Artu nituan danak, eta zaku zar bat bizkarrean, egur-puxka bat edo bi barrenean zituala. Aiek ere etxera ekarri nai. Bagenekian amak gustora artzen zituala.

Ni abitu ta laister eraso zion trumoa eta tximista, baztar guziak autsi edo txikitu bearrean. Bai erruz bota ere. Ez det uste arririk egin zuanik. Baiña uretik bazan naikoa.

Egun guzian beroarekin itzalean egondako ardiak, alako euri-zaparradak eta ango trumoi eta txi-

mistak, begiak itxututa uzten zituan. Ni ere aien moduan. Bidean danak illaran jarri zitzaizkidan. Atzetik nik ots eginda, aurrekoak pausorik etzidaten ematen.

Urak baztar guztiak eramanean bear zituan. Illunduzuan oso, eta bidean ardiak ekarri ezin. Aiek negar-saioak nereak, tximistak ardiak eta ni noiz erreko giñun! Ia etsi nuan geiago ez nituala ikusiko nere guraso eta senideak. Orduan aiñako fedearekin ez det geroztik «nere Jesukristo Jauna» errezatu. Ura zan intentzio osoz erregu egitea!

Jesukristo bidean zijoala itxuak deitzen ziola fede biziarekin entzun izan det elizan sermoitik. Baiña orduko nere errezoak fedearekin eskatutakoak nituan. Nik zenbat eta geiago erregutu, orduan eta tximistak argi biziagoa botatzen zidan. Elorria izeneko basotik atera nintzanean, Santa Krutz'ko ermita bistatu nuan. Andik dei egiten nion Gurutze Santuari laguntzeko.

Ettxera iritxi nintzanean, aita atariko atean zegoan, naiko apuratuta, ni noiz agertuko. Ardiak arek sartuko zituala esan zidan, eta sukaldera joateko.

Sukaldean sartu nintzanean, alako itxura ekarriko nuan. Urak goitik sartu eta betik atera, legorrak ondo kenduta nentorren. Goiz-parteko berotasunak aztu ziran ederki.

Anai-arrebak eta lengusua parrez asi zitzaizkidan, nola nentorren ikusita. Nik, baztarrera joan eta negar-saio bat egin nuan. Ez nuan nik parregurerik ekarri.

Amak preparatu zizkidan arropa sekoak. Laister bota nituan soiñean neuzkanak. Sekoak jantzi nituanean, eta pentsaturik sukaldean nengoala, lasaitu nintzan pixka bat.

Gero apaldu, eta apalondoan errosarioa errezatu,

iñoiz baiño atentzio geiagorekin seguru. Orduan oiera poz ederrarekin sartu nintzan.

Egun ura etzait sekulan aztuko. Geroztik entzun ditut trumoi eta tximista-suak. Baiña alako bakardadean ez naiz iñun gertatu. Ardiekin olako ibilliak askotan egin bear izaten ziran.

Gu giñan artzairik miserableenak. Irabazi gutxi eta lana berdintsu. Eun ardi edo eun eta berrogei eta amar zeuzkanak, egun guzia aien kontu, eta askotan laguna. Zakur bat ere bai. Guk, berriz, ardiak eramana lana zegoan ingurura, eta ardiak zaindu eta lana egin bear. Lanean ari giñala ardiak alde egiten bazuten, gero aien billa.

Gure artzantza-lana penoso izaten zan. Udarapartean nunbait or. Neguan askotan euritan atera. Zaku zar bat burutik artu, ura erdi bustiarekin, eta otzagatik burutik kentzeko bildurrez. Eskerrak gaur baiño oituagoak egoten giñala. Gaur ez genduke denbora luzean ala jarrita iraungo.

Gero, askotan, etxera ekarri eta jetzi egin bear izaten genituan, biltzen zan esnearekin gazta bat benik egiteko. Neronek ere bein baiño geiagotan egin nuan. Arek ere baditu bere lanak.

Lenengo, esnea beroa zegoan artean, gatzagia ematen zitzaion, zenbat esne zan begiratuta. Esne asko baldin bazan, gatzagia geixeago bear du.

Askok ez dute jakingo gatzagia zer dan. Arkumak iltzen diranean, esnea edan berria baldin badago, bere estamuako boltsa ori beteagoa edukitzen dute. Zenbat eta zuriagoa izan, gatzagia fiñagoa izaten da. Kanpoan jaten asten diranean arkumak, gatzagi ori beltzagoa ateratzen zaie. Orrek gutxiago balio izaten du. Batzuk aprobeztatzen aritzen dira.

Baiña beste askok bota egiten dute, txartuta dagoala esanda.

Orain, berriz, badaude botilletan saltzen diranak, *cuajo* izenarekin. Gu ere orain, noizean bein mamia egiteko, orrekin ibiltzen gera. Entzun izan det artzaiak naiago dutela gatzagiarekin egin; gusto obea izaten duala gaztak gatzagiarekin eginda.

Esnearekin ere kontu aundia bear da. Ardiak jetzi ta al dan azkarrena eman bear zaio gatzagia, mamia ondo loditu dedin. Gutxienez ogei ta amasei gradu bear ditu gatzagia ondo artzeko. Berrogei gradu baldin baditu, obe entzun izan det. Gatzagia eman eta ogei bat minututik gora bear ditu, mami ona atera dedin.

Orduan, gorosti arbolaren gerritik moztu eta izaten ditu urteko adarrak: bost edo sei adar txiki eman izan ditu. Adar aien azpitik moztu gorostia. Adar txiki aiek berrogei bat zentimetro luzean moztu. Goi-ko makillari lotu eta egiten zan *malatxa* deitzen genion tresna bat.

Arekin, ontzian zegoan mamia dana nasten genduan; eta gero, bi eskuekin poliki-poliki zapalduz, ontziaren zoruraino jeixten zan mami guzia. Orduan kutxillo batekin ebaki, puskaka ateratzeko.

Gazta egiteko, ontzi aproposak izaten dira, azpian eta buelta guzian zuloak dauzkatena. Gazta txikia baldin bazan, ontzia ere txikiagoa. Esne geiago baldin bazan, ontzi aundiagoa.

Mamia sartzan genduan ontzi orri, *gatzazumitza* esaten genion. Ura bete aiñean, eskuarekin poliki-poliki zapaldu egiten genduan gazurak ateratzeko. Mamiak kendu ta gelditzen zan ari, *gazura* deitzen zitzaion.

Artzaiak mendian txerrikuma gazteak erosten zi-

tuzten. Gazura oso ona dala entzun izan det txerrikumarentzat. Gero, ardien esneak bukatutakoan saltzen zituzten, bastante azita.

Baiña gazurearekin azitako txerrikumak, etxeko pentsuarekin etziran bereala jartzen, guri-guri oituta egoten ziran ta. Neronek erosi nuan bat Ordizia'tik, eta gure baserrira ekarri. Kosta zitzaigun pentsuarekin asi arazten.

Udaran erosoago bizitzen ziran artzaiak. Udazkenean neguaren igesi goitik bera jeixten ziran, beko baserrietan eta etxe inguruetan zeuden terrenoetan ibiltzeko.

Orduan lan geiago izaten dute, ardiak umeak egiten asten zaizkiotenean. Len, garai batean, San Jose inguruan edo martxoan beintzat izaten zan arkumarik ugariena. Gaur, berriz, Eguberrietarako, dauzkaten ardien erdiak umeak eginda edukitzen dituzte.

Nere iritzirako, obetoago preparatuta daude gaurko artzaiak. Geienak dauzkate baserri etxeak erosita, beren lur eta guzi, eta ardiei janak eta pentsua emateko lekuak ondo jarrita. Eta mendian uste det, garai batean beintzat, esnea zeukaten arte jetzi egiten zituztela. Gaur lenago antzutzen dituzte, edo jezteari utzi, ardia indartu dedin.

Orregatik, arkumak sortzen dira lenago; eta arkumak, azi aiñean, saldu egiten dituzte, eta gazta egiten asten dira.

Nungo larretan dabilzan, alde aundia izaten du esneak. Larre fiñean baldin badabiltza, esnea fuer-teagoa izaten dute. Grasa geiagorekin entzun izan det. Toki onean dabilzanean, sei litro esnerekin kiloko gazta egin izan dutela. Eta indar gutxiko larrean ibillita, zazpi litro bear izaten dituztela.

Ardietan egongo da aldea. Baiña bei-ganaduaren

artean aundiagoa dagoala uste det. Zortzi edo amar litro ematen duan beiak, zortzi edo bederatzi litroekin kiloko gazta atera dezake. Baiña ogei litrotik gora dauzkanak, amar litro gutxienez edo amaika bearko ditu, kiloko gazta egiteko.

Orregatik entzun izan det, udaran mendira dijoazenean egiten dituztela ardiak gaztarik fiñenak edo onenak.

Gero, San Juanak inguruan, ardiak illea mozten izaten dute lana. Gaur ortan ere adelantuak dauzkate. Illea mozteko makinak sortu ziran. Oiekin azkarrago eta obetoago mozten dira.

Gure aita zana guraizekin aritzen zan etxeko bere ardiei mozten. Ni ez nintzan bein ere jardun lan ortan. Aurrena, aurreko bi besoak altxatu eta ardia eserita jartzen zuan. Lenengo, triparen azpian zeuzkanak mozten zizkion. Gero, lau anak lotu eta asten zan bere guraiza aundi batzuekin. Kozka nabarmenak uzten zizkien, baiña arindu ederra artzen zuten ardiak. Beroa zetorrenerako, alde aundian jartzen ziran.

Beren umearekin zeudenak, orroi-ots ederrak ateratzen zituzten. Amak ezagutzen zuten beren umea, baiña umeak ama ezin ezagutu, illea moztuta oso diferentea jartzen zalako. Baiña orroi-otsera laister konturatzen ziran zein zuten beren ama. Bi edo iru egun barru jartzen ziran berriz alkar ondo ezagutzen zutela.

Ardi batzuk izaten dira urtean bi aldiz umea egiten dutenak. Geure etxean gertatu zan: beste danak saldu eta bi ardi utzi zituan gure aitak. Ezin etsi izaten zuan ardirik gabe. Ta aietako bati *Ardi-aundia* deitzen genion. Besteak baiño aundiagoa zan. Diferentzi dezentea zuan. Errapea txikia zuan oso, baiña

arkuma ederrak azten zituan. Aren esneak bazuan grasa. Urte batean bi aldiz umatu zan, eta bietan bina ume egin zituan. Eta urrengo urtean, berriz bi aldiz, lengoan bezela, baiña batean bi eta bestean bat. Orrela, bi urtetan zazpi arkuma azi zituan.

Norbaitek esan lezake aundia dala ori. Baiña neroni nere etxean gertatua jartzen ari naiz.

Azkenean, gure aitak saldu egin bear zuala-ta, Ordizia'ra eraman zuan saltzeko. Erostuna Zaldibia'ko argin bat azaldu zitzaion. Ogei duroan egin zuten trataoa, eta bere ardia sokatik artu eta Zaldibia'ko ostatura iritxi zanean, atearen ondoan lotuta utzi eta barrena sartu omen zan, ardo pixka bat edatera.

Taberna artan artzai bat omen zegoan. Asi omen ziran ardi-kontutan, eta argiñak esan omen zion, artzaiak zeukan ardirik aundiena baiño aundiagoa erosi zuala. Eta artzaiak ezetz, eta baietz besteak, apustua egin omen zuten ardiarekin. Baiña aaria ekarri omen zion besteak.

Esan omen zion ardiarekin egin zutela apustu, baiña jartzeko pisu gaiñean ekarri zuana. Irurogei kilo pisatu omen zion aari orrek, eta besteak irurogei ta bat. Kilo batez irabazi egin omen zion artzaiari. Gure aitari ordaindu zuana, apustuan irabazi omen zuan, eta ardia beretzako debalde etxeratu. Lenago ondo portatua zan etxean. Urrengoa ere etzan gaizki atera ardi orrekin.

Gure ardien lanak orrela bukatu ziran. Andik aurrera, lanean segitu bear izan genduan, ardien aitzakirik gabe. Gero ekarri izan zituan, udara-azkenean gizendu ta etxean jateko. Beti, merke zeuden garaian noiz tokatuko ibilli oi zan.

Asteazken batean ekarri zituan bost ardi, txiki eta

flakoak. Prezioa ere alakoa zuten: amazpina peze-
ta bakoitza. Amazazpi duroan bost ardi.

Ematen zien al zuan jatenik onena, eta artoa ere
bai ganbaratik. Laister gizendu arazten zituan, sano
zeudenak beintzat. Orduan iltzen zituan, etxean jate-
ko. Ondorengo egunetan ez genduan ezpaiñak zarta-
tu bildurrik izaten.

Il da mondejuak egiten zituzten. Gu pozak ego-
ten giñan. Aiekin, egosi ta mondeju-zopak. Ogi-pus-
ka aundi batzuk sartzten zituzten. Aiek izaten zituz-
ten sego-pilla ederrak. Gaur txarra dala, pisua dala
eta gizendu egiten duala esaten dute. Garai artan
etzan alako bildurrik izaten.

Lenengo, mondejuekin asten giñan. Gero, burua
eta barrengo gauzarik gozoenak; eta gaiñerakoa, ga-
tza eman eta zeziña egiten zan. Azak gozatzeko ez da
zeziña bezelakorik. Denbora asko baiño len garbi-
tzen genduan, ardi txikia bazan. Larrua ganbarako
ateari josten zion, ondo sekatu zedin.

Ura bukatzen zanean, bestea gizona bazegoan,
laister garbitzen zuan. Ez genduan aragia jateko kar-
nizerira joan bearrik izaten. Ilbeltza aldera arte aie-
kin pasatzen giñan.

Udara azkenean
osatuak lanez,
«laister negua dator»
alkarri esanez.
Naiz pixka bat nekatu
gu umore onez,
gustora ibiltzen giñan
ardi zarrak janez.

Flakoak ekarri ta
etxean gizendu,

gure aitak ortako
gogoa izan du.
Zeziña jana neri
ezin ba atzendu,
eltzekada bat aza
ondo gozatzen du.

Gobernatzen giñuzen
itxura antzean,
goserik ez genduan
pasatzen etxean.
Babarrun gorri ederra
egosita eltzean,
gustora izaten giñan
tripa betetzean.

TXERRIA

Ilbeltza alde ortan amak izango zuan etxeko txerriren bat iltzeko. Esaera dan bezela, txerria ildako astea eta ezkonduako urtea onenak izaten zirala esan oi zuten.

Orregatik, lenengo, odola kendu. Gero, kanpora atera ta ganbaran zegoan lastoarekin erre egiten genduan. Urrena, bi zakuren gainean artu eta mai baten gainean jarri. Batek baldearekin ura bota eta besteak tella-puskarekin garbitu. Lengo oitura zarra ori zan. Gaur kutxilloarekin ikusi izan ditut. Guk preparatuta edukitzen genituan bi edo iru tella-puska. Pozik egoten giñan, aiekin ondo preparatuta, lasto errearen autsak kentzeko.

Orduan, ondo garbitutakoan, lau lagunek maia artu aidean eta sukaldera sartzten genduan. Bereala ekiten genion, putreak mendian galtzen zan ganaduari bezela, danak alde banatatik tiraka. Lenengo kentzen zioten lepoaren azpitik pusketa bat. Puska ari *paparra* deitzen zitzaion.

Ura kendutakoan, zintzurra agertzen zan, eta aren azpian *estegorria* deitzen genion estamura zijoa

esteari. Ura tirata kendu lepo azpitik, eta batzuek ariarekin lotzen zuten; besteak, esteari zuloa egin eta muturra zulo artan pasa, eta ondo itxita gelditzen zan, tripak ateratzerakoan barrenean zikiñik bota etzezan.

Gero, tripa iriki eta *bare-sarea* esaten zaiona kentzen zitzaion lenengo. Ura zan estamuaren gainean edukitzen zuan grasaren sare bat. Ori kendu eta makilla batean sekatzan jartzen genduan.

Gero asten zan gibela kendu, biotza ta biririkak ere bai, oiek ontzi banatan aparte jarri, eta azkenean esteak ateratzen genizkion. Aiek atera ezkerro, emakumeak bazuten naiko lana. Esteak garbitu odolkiak egiteko, eta tipula eta porrua txikitu, egun artan etzuten emakumeak jairik izaten.

Kentzen zioten mazkuria ere, eta ura aurrena ustu, garbitu urarekin eta askotan baba-zustar bat izaten genduan; eta ura muturreko zulotik sartu eta aizez puztutzen genduan. Geienean txerriaren grasarekin betetzen zuten, beste ontzirik ez ibiltzearren.

Txerria, barrenak ondo garbitutakoan, okotzaren azpitik bi sardeko egur bat sartu, txerria baiño luze-xeagoa. Egur-muturra lurrean zuala, aren gainean zintzilika jartzen genduan oztu arte. Gero mai baten gainera jetxi. Orduan lan erreza izaten genduan.

Lendabizi, burua kentzen genion, eta lau anak lendabiziko juntatik mozten zitzaizkion. Barrendik asten gain lenengo gantzak kendu, gero kostillak, eta bizkar-ezurraren gainetik ebakitzen zan, ezurra jo arte.

Gero, barrendik aizkora txikiarekin ezurak moztuz, bizkar-ezurra libratzen zitzaion. Gero sei puskatan gelditzen zan. Bi urdaiazpiko. Aiek borobilduta jartzen genituan, eta kentzen zitzaizkion puskek txo-

rixoak egiteko utzi. Eta aurreko besoak lau kuadroan gelditzen ziran, eta erdikoak ere bai.

Bizkar-ezurra kendutakoan, xolomoak izaten ziran txuxen kendu bearrekoak. Aiek sukaldean txintxilika jartzen ziran, eta dotore samarrak nai izaten zituzten. Atzeko urdaiazpikoaren kontra, *xolomo txikiak* deitzen zitzaienak izaten ditu txerriak, eta gero sei puska oiei zenbat nai zan kentzen jarduten giñan, txorixoak egiteko.


Txerria osorik samarrik utzi nai, eta txorixoak ere al zan geienak egin. Ortan izaten ziran komeriak. Txerriari puskak kendu gabe txorixorik ezin egin.

Lenengo egunetan ondo ibiltzen giñan, egun bat edo beste. Gatzetan pasatu ezker, kostillak probatzen asten giñan. Odolkiak egun berean.

Albaiteroari puska bat eramaten genion, ona zegoan edo ez ikusteko. Xolomo txikia bialtzen bagenion, arpegi alaiagoarekin esaten zigun jaten asteko bildurrik gabe, eta abisoa etorri zai egoten giñan gibelari ekiteko.

Lenengo egunean, merienda odolki prejituak janenez. Gaur esan izan digute txerrikoa pisua dala, eta jateko bildurrak egoten gera askotan, grasa asko daukalako. Orduan ez genduan olako bildurrik, eta gizentzeko gutxiago, berriz. Orduko odolkiak eta gibelak jan arte, festa ederra izaten genduan. Gero, xolomo txikia laister asten zan.

Garai artan, baserrian neguan txerria il eta udazkenean ardi zar bat edo bi, aiek izaten ziran baserriko jakiak. Arakiñak etzuten guretzat lanik egiten. Etxekoarekin pasatzen giñan urterik geienetan.



Urkia ballara. Ezkerretik asita: Urkigoen-azpi, Urkigoena, Santa Krutz-aurre eta Santa Krutz ermita

ELURRA

Udazkena eta negua aitatu ditudan ezkerro, gogoratzen naiz neguan nola ibiltzen giñan.

Gu sortu giñan baserria bastante altu dago, eta neguan elurte aundiak izaten genituan. Urte batean ezagutu genduan larogei zentimetro lodi etxe aurreko soroan.

Ganaduentzako arbiak atera bear, eta etxean izaten genduan *pelakia* deitzen genion egurrezko erramienta bat. Ol batekin egiten genduan illargiaren erdiaren antzeko bat. Ari kirten luze bat jarri eta erabiltzen genduan, ganbaran gariak garbitzerakoan. Makinak botatzen zuan gari-alea baztarrera apartatzeko izaten zan. Ura eramaten genduan sorora elurra kentzeko.

Elur-pilla ederra mugitu bear zan arbi bat edo bi azaltzeko. Orduan kostatzen zan saskikada arbia preparamaten. Elurretan ibiltzen giñan, baiña izerdiarekin bizkarra bustita. Lana asko egin bear zan elurrak kentzen. Egun aietan, berde asko gabe egoten ziran ganaduak. Eskerrak ganbaran belar ondua egoten zala, neguaren aurrenetik beintzat.

Etxetik berreun bat metrora, oraindik an daude, iturri ederrarekin, bost edo sei aska luzeak, urez beteta. Nola belar legorra jaten zuten, egarri aundiarekin joaten ziran ganaduak. Ura edaten aspertu eziñik jarduten ziran. Gero, ainbeste ur edanda, otza sentitzen zuten. Korrika etortzen ziran ikullura. Pentsu pixka bat jartzen genien beren lekuetan, gus-tora jartzeagatik.

Etxearen ondoan iturri txiki bat genduan, beti ura zeriola; eta bidean elurra urtu egiten zuan urak, eta lurmen egoten zan, elurrik gabe.

Ganaduak ura edatera zijoazela edo bueltakoan, norbaitek zimaurrea egin oi zuan bidean, eta zai egoten ziran, guk *burgoi-xoriak* esaten genien, beste batzuek *eliz-txoriak* esaten dietenak.

Arto kaxkarrak esaten genien buru txikiarekin gelditzen ziranei. Aiek ganaduari ematen jarduten giñan negu-partean beintzat, eta jandako artoetatik desegindu gabeko arto-aleak botatzen zituzten zimaurretan. *Burgoi-txoriak* oituta zeuden ango aleak billatzen.

Gu ere zai egoten giñan, ganaduak etortzen ziran. Korrika joan eta txori-zepoak edukitzen genituan zimaurraren gaiñean jartzeko. An deskuidatzen ziran errezena.

Bi edo iru egun elurretan pasatu ezkerro, asten ziran zozaok ere jaten billa, bestetan billatzen etzute-lako. Zepoak jarri eta ikulluko leiotik begira egoten giñan bi anaiok, azaltzen ote zan txorien tartean zozoren bat:

– Bazetorrek zepoaren ondora!

Saltoka an iritxi oi zan; eta arto-alea ikusten zuanean, arek zekarren gosearekin, laister tiratzen zion

golpea. Ikusten genduanean erori zala zepoan, laister joaten giñan, ikulluko atetik atera eta beraren billa.

Beste iru edo lau bat txori arrapatzen bagenituan, arratsaldean aiek lumatu eta amari ematen genizkion, gauean patatekin jartzeko.

Etxe aurrean bagenduan, garai batean ogia erretzeko labea omen zan. Labea autsi eta legorpe egoten zan. Eskutakada bat arto bota ta guk *galbaia* esaten genion erderaz *criba* esaten zaionari, eta ura an jartzen genduan. Makilla txiki bat, puntan sardea zuana, aren azpian, alderdi batetik altxatuta. Makilla oni soka bat lotzen genion, atariko atearen barrendik tiratzeko, txoria arto jatera joaten zanean.

Baiña an kulparik gabeak sartzen ziran. Malizi gutxi zutenak etortzen ziran: txantxangorria eta kaxkabeltxa. Galbaiaren azpian eskua sartu eta arrapatzen genituan.

Sukaldetik kuartoetara zegoan pasilloan botatzen genituan libre. An ibiltzen ziran, iñor sartzen giñanean, batera ta bestera, larrituta. Elurra zegoan artean, an egoten ziran, pasilloko leioan zeuden tapen gaiñean, gauean bertan lo egiñez, kanpoko elur artean baiño epelago.

Baiña nola ziran batere malizi gabeak, txantxangorriak eta kaxkabeltxak pena ematen ziguten aiei ezer egitea. Elurra kentzen zuanean, leioa iriki ta an bialtzen genituan, kanpoan bizi zitezten.

Aien poza lenengo arbolaren adarrera irixten ziran! Alde guzietara begira gelditzen ziran. Gu aiei atzetik parrez egoten giñan, aien poztasuna ikusita.

Elurra zegoan arte, saiatzen giñan aundiagoak arrapatzen. Etxearen beste aldetik bagenduan sagasti bat. Lurmen zegoanean, elurrik gabe, an ibiltzen

ziran zozoak eta birigarroak. Aiek arrapatu nai izaten genituan. Elurra egiten zuanean, estali bat egiten genduan, al zan bezela, azpian lurmen egon zedin. An jartzen genituan zepoak. Batzuk erortzen ziran, baiña ez guk nai aiña.

Tarteka deskuidatzen ziran birigarro aundiak ere. Aiek, kazuelan jartzeko, onak izaten ziran.

Gaur leku askotan ikusten dana gertatzen zitzai-gun. Arbi-soroan elurrak kentzea nai genduan; baiña piztiak zebiltzan tokian elurrak segitzea, geuren zepoekin gozatzeko.

Pixka bat lurmentzen asten zanean, ardiak atera bearra izaten genduan. Orduan bukatzen ziran gure eizak. Berriz ere lengo erara asi bear.

Elurra zegoan arte, etxean lana izaten genduan. Aitak ardien illearekin aria egiten zuan. Eskuarekin aldiko dozena bat ille apartatu eta jartzen zuan *txatilla* deitzen genion egur bat, ogei ta amar zentimetro luzekoa. Erdia metu; zulo txiki bat egin; an ziri bat sartu, beste puntan kakoa zuana.

Ari eskuarekin bueltak eman ez, bastante denboran jarduten zan. Indar pixka bat eman ezker, aldiko metro bat edo orrela egiten zuanean, len esan dedan txatilla ortan biltzen zuan; eta berriz ere segi beste ainbeste egiñez.

Gero, ari arekin amak galtzerdiak egiten zituan. *Artilezko galtzerdiak* deitzen genien.

Berritan oso latzak izaten ziran, baiña negurako beroak. Iru gizezkoegi egiten zigun pare bana, eta beretzako beste bat. Gustora izaten giñan galtzerdiak jazteko, eta ama ere bai. Ordizia'tik erosita ekarri bearrik ez. Etxean egindakoa dirurik kosta gabe izaten baizan. Aita eta amaren lana, elurra kendu arte, ori izaten zan.

Anai zarrena zestoak egiten jarduten zan. Elurra asten zanean, etxetik urrutira gabe egoten ziran urritz-makillak, eta aiek ebaki eta ekartzen zituan, elurra loditu baiño lenago; eta *gaztain-zepak* deitzen zitzairen gaztain arbolaren ondotik sortzen ziran adarrei, eta toki askotan lengo arbola zarrak moztu ta sortu oi ziran landare berriak. Aiei deitzen genien *gaztain-zepak*. Andik ekartzen zituan.

Aiek zesteroak labean berotzen zituzten. Baiña guk, nola ez genduan laberik, ikulluko zimaurrekin zuloa egin eta sartzen genituan. Zimaurre oso beroa egoten zan, desegindu edo zartu arte. An zimaurrekin tapatu eta edukitzen zituan egun bat edo beste. Bero-beroak egoten ziran, eta orduan aldiko bat ateratzen zuan; eta aizkora txikiarekin zentimetro erdi bat lodiko *zumitzak* deitzen genien, mordoska bat preparatzen zuanean, oiek izaten ziran saskia egiten asteko.

Dozen erdi bat zentimetro zabalekoak izaten ziran gutxi gora-bera. Batzuk egur mexeagoak, besteak lodiagoak.

Gero, urritz-makillarekin azaletik belaunaren kontra okertu eta ateratzen zituan makillaren azaleko zumitzak. Orrela egiten zituan, bi klasetatik, zesto bat bukatzeko aiña.

Orduan asten zan gaztaiñaren zumitzarekin. Iru edo lau alde batera, eta beste ainbeste beste aldera, gurutzean jarri eta ekiten zion. *Lepo-saskia* deitzen genion; beste batzuek *lepo-otarra* esaten diote. Gero, urritz-makillari kendutako zumitzarekin asten zan beste listoiak lotzen, baten gainetik eta bestearen azpitik.

Pixkabana, nolabait igotzen zuan bear zan alturariño. Orduan, goenean, lenago zumitzak kendutako

iru edo lau urritz-makilla alanbrearekin lotuta jarzen zituan, saskiak bear zuten zabaleroan.

Azkenean, betik artu gaztain-zumitz aiek, eta goiko makilla oiei buelta eman eta bera begira lotzen zituan.

Bi aldeetatik, eskuarekin eltzeko zuloak uzten zizkioten, eta aiek al zan ondoena estutu bear izaten ziran, kargatu eta bizkarrera igotzerakoan libratu etzitezen. Orrela bukatzen zuan bere lepo-saskia. Orduan berriz asiko zan bestea egiteko zumitzak preparatzen. Elurra kendu arte bi edo iru egiten bazituan, ferira joan bearrik ez zestoak eroatera.

Oiek bukatutakoan, elurrak ez bazuan alde egiten, basora joan eta arbola zarren batzuk egongo ziran; eta aiek bota eta surtarako preparatzen izaten genduan lana. Aizkora, zerra, borra eta ziria artuta joaten giñan. Ez genduan otzik pasatzen. Gizona berotu arazteko erramienta ederrak ziran aiek.

Nik, berriz, txikitatik nuan aroztegirako afizioa; eta, elurra asten zanean, aurretik preparatuta izaten ziran alamoduzko egur batzuk, eta aiek artu eta eskuareak egiten izaten nuan nere lana. Etziran oso txukunak eta dotoreak izaten, baiña dirurik kosta gabe.

Erramientarik ere asko ez, lan ortarako. Egurra zuzentzeko edo apaintzeko makinak bear dira, edo-ta erramienta onak. Baiña danetik eskax izaten genduan. Langillea ere nolabaitekoa.

An aritzen nintzan, itxurazko gauzak egin nai eta ortan larri. Ortzak sartzeko zuloak egiten jarduten nintzan gaizkiena. Ortarako, zuloa egiteko metxa duan makina bat izaten da ona. Nik dana eskuz egin bear, eta ortzak zuzen ateratzen lan zailla izaten

nuan. Dirurik etzan kostatzen eta, baldartxeagoa izanda ere, etxean egiña zalako gustora izaten giñan.

Geroztik egin nituan batzuk, *Ramón Vizcaino*-ren fabrikan ibilli nintzanean. Aprobetxatu izan nituan ango makinak. Dotorexeagoak egin ere bai. Ixilka jarduten giñan, enkargatuak ikusi gabe. Etxean bear genduana egitea ez al zan pekatu aundia izango. Bizi bearrak lanak izaten ditu eta gu ere, lenago bezelaxe, dirua ordainduta ez ekartzeagatik, orrela saiatzen giñan.

BASO-LANAK

Gure elurteko lanak orrela izaten ziran; eta elurra bukatzen zanean edo lurmentzen zuanean, izaten genduan naiko lana, udaberrirako ikatza egiten aste-ko. An ez genduan oztu bildurrik izaten.

Zerbait elurra zegoala ere asi izan zan gure aita, «lana bazegok gure basoan» esanez. Eta aruntza joaten giñan aita bi semeekin. Goizean talo eta esne jan bat egin eta eguerdira arte..

Ederki nekatzen giñan, bateko zerra, besteko aizkora eta borra; eta ziriak ez txarrenak nekatu arazteko.

Eguerdian ez giñan etortzen, bazkaltzeko zer zegoan galdezka. Orain, eskolatik datozen aurrak, sukaldean sartzean, «zer jarri dezu bazkaltzeko?» galdetzen diote amari. Orduan etzan orrelako oiturarik.

Eltzekada bat babarrun gorria egoten zan, urdai-puska batzuk barrenean sartuta. Fuentekada aundi bat ateratzen zigun amak, eta egurrezko kutxareak garai artan izaten ziran.

Gero, besteak ikusita, gu ere asi giñan platera

banatatik jaten; eta kutzareak ere burnizkoak, orain dabiltzan bezela.

Aita ta ama etziran lendabizitik gustora izaten. Aita kejatzen zan, jatena beroa zanean, kutzarea berotu egiten zala. Egurrezkoak etzuan olako bildurrik izaten. Amak, berriz, lenago baiño ontziak garbitzen lan geiago zeukala, ontzi banatatik jaten asi giñanean.

Baiña gu gustora izaten giñan, bakoitza bere ontzitik jaten asita, beste lekutan ala ikusten genituala. Azkenean, danok artara jarri giñan eta ortan segitzen da.

Murumendi aldean, berriz, ikatz egiten jardun giñanean, klase gutxiagorekin bazkaltzen genduan. Ontzi batetik lau edo bost lagunek baba-jan bat egin da, gaiñean urdai-puskaren bat baldin bazan, pronto lanerako. Etzan gaur ainbeste platera bear izaten. Baiña gauzak orrela aldatu dira.

Nai zan guzia orduan ere etzan izango noski. Andik urteetara, ni langille batzuk nere kontura artuta nengoan. Nere mutil oiek baba janez aspertuta egongo ziran, eta egun batean baserriren batetik oilloren bat edo bi ekarri zituzten jateko, nagusiaren baime-nik gabe. Baiña arek nunbait bereala pentsatu zuan zeñek eramana izango ziran, eta guardia-zibilei deitu zien, eta auek errira jetxi arazi mutillak.

Ni Donostia'n nintzan egun artan; eta, errira iritxi nintzanean, Kontzejuan bizi zan Andresek esan zidan:

– Ire mutillak emen zeudek, guardia-zibillak ekarri arazita.

Etzidan poz aundirik eman. Orduantxe zeukaten azkeneko txondarra piztuta, udara guzian egin zuten

aundiena. Eun ta ogei ta bi zaku ikatz atera zituzten gero txondar artatik.

Ni laister joan nintzan, mutillak falta zirala jakinda, nola ote zegoan txondarra. Anai zarrari esan nion laguntzeko. Oso ederki arkitu genduan txondarra. Gure aita ere joan zan, eta arek tapatu zuan dana, guk lagunduta. Seguru jarri zuan, eskarmentu ona zeukan eta.

Ikusi nuanean ondo zegoala, anaiari esan nion etxera joateko; ni geldituko nintzala mutillak etorri arte.

Sartu nintzan txabolan, lo egiteko ustean. An etzegoan begiak ixterik. Etzan orduko, asi zitzaizkidan gorputz guzian arkakosoak. Etzuten nunbait aiek garbitzeko medizinarik ibiltzen.

Zaku bat artu eta alboko belardira joan nintzan. Illargi ederra zegoan. Goizeko ordubiak aldera, etorri zitzaizkidan mutillak, baxoerdiren batzuk edanda.

Aiek azaldu ziranean, pozik alde egin nuan nere etxera. Ganbaran erropa danak kendu eta sartu nintzan kuartoan, lo egiteko. Ez dakit arkakosorik eraman nuan edo ez.

Ondo bukatu zuten azkeneko txondar ori. Lasaitu ederra artu nuan nik, kontuak garbitu genituan.

Ondorengo egun batean, Lizardi'ko Ramonek esan zidan:

– Zer ibilli zerate or, guardiazipil eta guzi? Susto ederra artu genduan guk, gure etxe aldera zetozela ikusi genituan. Oiek ikusi baiño, naiago degu Murumendi'ko gabiraiak ikusi. Geuren denborako bildurra sartuta gaude gizon-klase orrekin. Urruti ibilli ditezela. Etxe ondoan ez ditugu ikusi nai.

Guardiazibilekin zergatik bildurtuta zeuden ge-roago aitaturko degu, Beizama'ko ilketa kontatzean.

Baiña noan lengo bidera. Ez dakit jaten kontuan gaur baiña gusturago ez ote giñan egoten. Jartzen zutena ixilik jaten zan; eta, beste gauzarik jarriko zuten esperantzarik gabe, maira ekartzen zutena jan eta segi ixilik.

Gaur gauzak aldatu dira. Garai artan baiña jaten-klase geiago ikusten da, eta ala ere naiko lane-kin. Lenago askotan nai aiña etzan izaten; eta gaur, berriz, jateko klase asko eta erdiak jaterik ez, batek tentsioa altu, besteak azukrea geiegi eta besteak azido uriko. Garai artan guk ez genduan orrelakorik entzuten. Oraingoak dira gauza oiek.

Nik ez dakit, orduan gaitz gutxiago edo ezjakiñean pasa, zer gertatzen zan. Zenbat ote ziran, zer gaitz zuten ezagutu gabe gure mundutik joan ziranak? Gaur aiña indizio eta pastilla etzan beintzat usatzen.

Pulmonia arrapatzen bazuten, belarriari ebaki bat egin eta odola atera arazi sendatzeko. Belarrak ere izango zituzten, eta izango ziran fedea zutenak oiekin, eta saiatuko ziran. Orduko sasi-medikuak izango zuten lana.

Entzun izan nuan, kolera izeneko gaitz txar bat ba omen zala, eta garai artan gaizki ibiltzen omen ziran ura arrapatzen zutenak.

Gure aitonari entzun izan nion nola gaixotu izan zitzairen auzoan bat gaitz-antza orrekin. Legorreta'ko Zumiztia baserrian omen zegoan enplastoak egiten zekiana. Gizona gaizki ikusi zutenean, joan omen ziran aren billa, eta etxean esan omen zioten Legorreta'ra kalera jetxia zala. Erriratu omen ziran eta

billatu zuten taberna batean, bete-bete egiña, erre-medioak egiteko era ederrean noski.

Artu omen zuten, besotik eldu eta lagunduz. Andik Urki ballarara bazeuzkan bost bat kilometro. Pasatu omen zitzaizkion ardoaren indarrak. Gaixoaren etxera iritxi zanean, eskatu omen zien zartagi bat eta olio pixka bat.

Tabernatik atera ta bere etxera joan omen ziran lenengo. Andik artu omen zituan enplastoia egiteko bear zituanak. Gero, zartagia eta olioia eman ziotenean, sukaldetik alde egiteko agindu omen zien. Ez omen zuan iñork ikustea nai izaten, zerekin egiten zuan.

Kuartoan sartu ta giltza-zulotik begiraka egon omen ziran, eta ikusi zioten urritz-egurrari azala kendu ziola, eta intxusari ere bai, eta besterik ez omen zioten ikusi. Garai artan beko sua izaten zan, eta an egin omen zuan enplasto ori.

Orduan, gaixoarengana joan eta oiñaren azpian jarri omen zion, eta esaten omen zuan:

– Izerdia asita balego, salbo giñukek danak.

Aren zai omen zeuden. Izerdia asi zanean, gustora omen zan, garai artan gizon famatua izana.

Baiña noan arira; basora alegia. Aitaren lana jakiña izaten zan: udazkenean egurrak bota, neguan txikitu eta udaberrian ikatza egin.

Gu gazteak giñala, bera joaten zan txondar ondoan gaua pasatzera. Pena ematen zidan gu oiera eta aita basora, farola artuta.

Amazazpi urte nituala, esan nion ni joango nintzala basora, eta bera gauerako etxean gelditu zedilla.

Ea ni joango al nintzan erantzun zidan. Poz ederra artu zuan arek, nik baietz esan nionean. Kilometro bat bide zegoan etxetik txondarra zegoan lekura. Berak lagunduko zidala esan zidan, erakusteko zer egin bear nuan gauean, beartzen banintzan.

Iritxi giñanean, orduan ondo zegoala. Zulutzen bazan, nun zeukan arriskua erakutsi. Ez bazan zulutzen, kasorik ez egiteko. Eta, beartzen banintzan, aurrena kontuz garbitu, egurrez bete zuloa, eta berriz len bezela tapatzeko. Lenengo, belarra ezarri; gero, lurrarekin estali. Baiña ez nintzan beartu.

Oiek neri esanda, etxera pozik alde egin zuan, eta ni txabolan sartu nintzan lo egiteko.

Aita an zegoan artean, ni ere indarrean nengoan. Baiña bakarrik gelditu nintzanean, bukatu ziran umoreak.

Alamoduzko oia zegoan azpitikan: zotzak zearka, gaiñean lasto piska bat eta manta zarren bat. Etxekoa baiño oi txarragoa zan. Asi ziran azpiko zotz artean xaguak *birri* ta *barra*, eta alboko gaztain-arbolatik lurrera erortzen. Nere begietara etzan lorik etorri goizaldera arte. Goizean, lotatik esnatu eziñik.

Aita joan eta egur txikitzen asi zanean esnatu nintzan. Galdetu zidan ea lo egin al nuan. Baietz esan nion. Ez nion esan nai bildurrez egon nintzanik. Andik aurrera neretzat izan ziran gaueko lanak.

Gazte xamarrik asia nintzan
aitakin baso-lanean,
beti gustatu zait jarraitzea
gurasoen esanean.
Egunez ondo nekatu eta
gaba berriz etzanean,
atseden ere eman bearra
gorputzari al zanean.

Gizona errez nekatutzen du
lan gogorrekin basoak,
izerdirikan legortu gabe
sarritan egun osoak.
Ederki asko billatzen ziran
belaun, gerri ta besoak,
estutu pranko artzen zituan
guk gendun zato gaixoak.

Basoko lanak izaten ziran
gogorrek eta astunak,
ori zer lan dan ondo ez daki
iñoiz probatu ez dunak.
Borra ta ziriz puskatu bear
ango egurrik gaiztonak,
berriz ez luke ortan asi nai
zartuta dagon aitonak.

URKI BALLARA

Itsasondo'ko Urki ballara nun dagoan eta nolakoa zan, len eta orain nola dagoan nai nuke esan. Legorreta'tik Itsasondo'ra tartean dago, mendi-egal batean.

Beroztegi izeneko ballara bat dago Santa Ana izeneko ermita txiki batekin. Andik ikusten da Urki ballara, Murumendi aldera.

Beroztegi'tik Santa Marina aldera, erreka ondoan, kamiño bat dago egiña. Andik kilometro batera arrobia, eta karea egiten jarduten dira. Aientzako egindako kamiñoa da. Bide onen gertu bost famili zeuden.

Lenengo baserria, Lasarte izena zuana zan. Bi famili bizitzen ziran. Batean, Isidro. Emaztea ez nion ezagutu. Ni oso gazte nintzala illa izango zuan. Alargun gelditu zan seme eta alabarekin. Maria eta Juan Jose beren izenak. Nere kidakoak dira eta ondo eza gutzen ditut. Gero Isidro esposatu zan berriz. Terexa zuan izena bigarren emazteak. Berriz familia izan eta il egingo zitzaien noski, eta kanpotik ekarri zuten motiko bat. Teodoro Zabalua du bere izena. Nerekin

morroi euki nuan gerra-denboran. Nik ogei urte eta arek amalau. Orduan ondo konpondu giñan. Geroztik oso lagun izaten gera. Gero izan zituzten lau edo bost senide. Baiña aiek ez ditut ezagutzen. Ez dakit danak esosatuta edo nola dauden.

Beste bizitzan ezagutu nuan aitona edadeko bat. Inazio Mari izena. Emaztea ez nuan ezagutu. Beren semea, Joxe. Onek emaztea, Maria, Santa Marina'ko Aldaola-goiko baserrikoa zuan.

Inazio Mari aitona ori taberna-zale samarra zan, eta umore aundikoa. Baxoerdi batzuk edandakoan, kantatzen ekin oi zion. Au askotan esaten zuan:

A, a, a,
ardo gorri naparra.
Alimentu ona da,
baldin komeni bada.

E, e, e,
ni ardoaren alde.

Oiek zituan berak zekizkianak, naiz eta kantua luzeagoa izan.

Egun batean, Imazio Mari ori eta bere etxeko erraiña Mariaren aita, Lorentxo beraren izena, bildu omen ziran taberna batean, eta biak bestek etxera lagundu bearrean gertatu. Gure osaba Bizente eta beste bi lagun omen zeuden aiekin. Berak lagundu omen zieten Lasarte'ko baserriraiño.

Ate ondora iritxi ziranean, Inazio Marik esan omen zion Lorentxori:

- Gu ondatu gaituk, Lorentxo!
 - Zergatik?
 - Ni onoko gazte auek ekarri natxeaue.
- Eta Lorentxok erantzun:

– I orduan ni baiño eskaxagoa aiz. Ni batek eka-
rri negok.

Eta biak gau artan Lasarte'n gelditu omen ziran
lo egiten. Santa Marina'ra joateko bide luzea zeukan
Lorentxok.

Lasarte'ko Joxe eta Mariak famili aundia zuten.
Seme zarrena, Inaxio izena, ori dago etxean espos-
tuta. Baiña ez dakit emaztea nungoa edo zein duan.
Beste zazpi edo zortzi senide baditu. Zarrenetatik bi
edo iru ezagutzen ditut. Besteekin ez naiz gogora-
tzen.

Lasarte baserri ori, orain dala bastante urte, erre
egin zan. Ez dakit Isidro eta Terexa aurretik illak
ziran edo ez. Aien familia, bat alde batera eta bes-
teak bestera sakabanatu ziran.

Besteko seme zarrenak, Inaxiok, arrobi aldera
dijoan kamiñoaren ondoan etxe berria egin zuan.
Aita eta ama il zitzaizkien, eta bere familiarekin an
bizi da.

Andik irureun metrora beste bi baserri daude,
Zubin izena dutenak. Batean errota zan. Nik ez nuan
lanean ezagutu errota. Joxe Mari zan etxeko aitona.
Amona ezagutu nuan, baiña ez naiz gogoratzen ize-
na. Nik bederatzi edo amar urte nituala il zan aitona.
Ateraldi xelebreak zituana zan bera.

Gure etxean bizi zan apaiza, aitona ori gaizki
zegoala-ta, bisitatzera joan zan. Triste samar arkitu
omen zuan, eta galdetu omen zion:

– Ezagutzen al nazu?

Eta aitonak erantzun:

– Errezak al die beok ezagutzen?

Txerri-tratoan ibiltzen zan baserriz baserri: txe-

rriak erosi eta gero tratante aundiagoei saldu egiten zizkien.

Egun batean, arratsaldean, atera omen zan etxetik, eta illuntze aldera, mendian nekatuta, sartu omen zan Itsasondo'ko Tomasene'ko tabernan. Uste baiño denbora geiago pasatu. Lagunak izango zituan noski izketarako. Berandu zala konturatu zanean, etxera abiatu omen zan, eta emaztea asarretuta arkitu.

Ala zion gero Joxe Mari aitona orrek:

– Etxera joanda nik zeuzkeat lanak. Emaztea oiaren erdian. «Joan aruntzago» esanda, ez uan mugitzen. Bultzaka asita, berriz, nik ezin bera mugitu. Ondo kostata sartu niñuan bere ondoan. Orduan asi zitzaidan esanez: «Nun egon zera orain arte?». «Ortxe, txerri-tratoa ezin erabakiz. Txerri-jabeak jetxi nai ez, nik ainbeste ezin ordaindu, denbora akordatu gabe joan zaigu». Eta emazteak: »Trato ederrak egingo dituzute zuek, erdi mozkortuta jarrita». Eta erantzun nitxeoan: «Oraindik egin dedan tratorik txarrena, zu artu ziñudanean egin nuan». Orduan ixildu zitzaidaken.

Amaika olako ateraldi aterea zan. Laister bukatu zan.

Bere semea, Inaxio, gelditu zan etxean. Itsasondo'ko Oamiño baserriko etxeoandrea izan zanaren aizpa zuan emaztea. Badira lau edo bost seme eta bi alaba beintzat. Geienak ezagutzen ditut. Zarrena, Ramon, gelditu zan etxean; eta Gaintze'ko Ibarritza baserriko alabarekin esposatu zan. Ez dakit zer famili duten, nik alde egin nuanean soltero gelditu zan eta.

Baserri orren ondoan, bidea tarteko duala, beste baserria dago. An ezagutu nuan Antonio Mari gizon

edadeko bat, eta bere emaztea ere bai. Onen izenaz ez naiz oroitzen. Nola il ziran gogoan daukat. Beren semea, Joxe Joakin, gelditu zan etxean, eta Santa Marina'ko Larrañaga baserriko alabarekin esposatu zan. Beren ondorengoak oso ezagunak ditut. Ballarako festetan an biltzen gera geienak.

Beste baserria andik berreun metrora dago. Zubin-Etxeberri izena. An bizi zan Zubin'go Inaxioren anaia. Joxe, beraren izena. Ura Itsasondo'ko Olasagasti baserriko alabarekin esposatu zan. Seme-alabak izan zituzten; eta, aiek lanean asi ziranean, baserria utzi eta kalera etorri ziran. Berak, aitak, Beasain'go fabrikari lana egiten zuan, eta Itsasondo'ko beko fabrikari jarri ziran.

Gurekin Beroztegi'ko zerran lana egiten zuan Joxe orrek, fabrikako orduetatik kanpora. Egun batean, asteazkena ain zuzen, bertako nagusiak ferira joan nai zuan. Guri eman zigun lana egoarte guzira-ko altza arbolekin egindako tabloiak pillatzen.

Ortan ari giñala, Frantzisko nagusiak bere seme Inazio bialdu zigun, esanez lan ura bukatutakoan, trabiesak pillatzen asteko.

Lengo lanak bukatu eziñez ari giñan, eta Joxe orrek galdetu zion Frantziskoren semeari:

– Eta, trabiesak bukatutakoan, zer egin bear diagu?

Jira eta alde egin zuan.

Beste egun batean, Joxe ori bere aitarekin –Joxe Mari onen izena– joan omen ziran mendira, gurdi egurra ekartzera. Aita, edadekoa. Joxe, berriz, sa-soikoa. Aizkorarekin pago-egurra mozten ari omen zan. Taju gutxi samar nunbait, eta kortea oker ematen. Pentsatzen omen zuan aitak zerbait esango ziola, eta berak, aurrea artzeagatik, onela esan omen zion:

– Auxe da aizkora tontoa!

Eta aitak:

– I bai beintzat!

Ondoren, Joxek parre egiñez kontatu izan zigun. Onela zion:

– Banekian zer esango zidan aitak, eta aurretik nik esan nitxeoan, baiña alperrik.

Orain banoa goiko Urki aldera. Urki ballara ori da iru izenetan partitzen dana. Gu gera Urki Goi-koak, beste etxe batzuk dira Urki Bekoak, eta beste-
teari esaten zaio Lizardi ballara.

Urki'ra igotzeko, Itsasondo'ko plazatik asten gi-
ñan igotzen. Abiatu ta bereala, Beiti izeneko base-
rria dago. Oso baserri ederra zan. Baiña gaur, alde
egin zuten danak nunbait, eta erortzen asi da. Pena-
garria benetan. Beko kamiñotik berrogei bat metro
dauzka, eta etxearen goiko aldetik elizara dijoan ka-
miñoa pasatzen zaio. Ala ere, baserria erortzen ikusi
bear...

Andik berrogei metrora, kamiñoak buelta artzen
du Urki aldera joateko. Baiña bide gutxian joaten
da. Bueltatzen dan ortan, iturri bat dago, Txalburu-
toki izena duana. Amar bat zentimetro altuko aska
bat dauka, eta ura txalburuz beteta egoten zan beti.
Andik igotzen ziran kamioiak.

Azpiko aldetik, Iturbe; eta goiko aldetik, beste bi
etxe: Iturburu eta Iturburu-txiki.

Andik gora segitzen du bideak. Goraxeago, La-
rrai baserria dago. Ori omen zan Juan Martin Saraso-
la Pizarreriko nagusiaren jaiotetxea. Bere alaba bizi-
tzen zan an, Teodoro Aranburu'rekin esposatuta.

Andik laister dago, Sarasola'k pizarra-arriak ate-

ratzen zituan arrobi-zuloa. Ango arriak kamioietan eramaten zituzten, eta aruntza bitarte bide ona izaten genduan. Andik gora kontuak.

Arrobitik gora asten zan Malkorra izeneko bidea. Dana arkaitzean egindako bidea dago, baiña baldarra benetan. Amaika gurdi itzuli zan bide artan.

Irixten giñanean Malkor-goenera, asten zan ordeka edo zelaia. Gurdi-bidea seko zegoanean, nunbait or. Baiña euria egindakoan, zein ibilli? Ganaduak ere an larri, lokatza eta guzi.

Goiko aldetik, *eliz-bidetxiorra* esaten zaion bide-txior bat dago, arri-losekin egiña. Norbaitek lana pranko egin zuan ura ala jartzeko. An ibiltzen giñan, al genduan bezela.

Malkorretik asi ta kilometro ta erdi bide, dana gaztaindegia dago. Garai batean, danak segaz pasatu eta orbelak bildu eta baso danak garbi-garbi egoten ziran. Urtean dozena bat arbol-adarrak moztu eta negurako egurra izaten zan, eta arbolak freskatu edo berritu egiten ziran. Gaur, berriz, ez basorik garbitu eta ez adarrak kendu.

Garai artako edertasuna bukatu zan. Gaur askok, lengo zarrak bota eta zorioneko piñua aldatu. Onek itxusitu ditu mendi guziak. Penagarria benetan. Piñua aldatu ez dituanak, sasiaren mende lurak. Aka-bo garai bateko baso garbiak.

Bide orrek jarraitzen du. Oiabola du mendi orrek izena. Malkorretik urrengo puntuari Tupa-bidea esaten zaio. Urrengoa, Oiabola'ko Zubia; eta aurrera-xeago, Larrain-egia. Urrengo puntua Oiartu'ko Txuloa, eta andik bereala irixten giñan Errekarte izeneko bi bide partitzen ziran lekura.

Bide bat joaten zan Urki Bekora, eta bestea Urki Goikora. Eta bietatik berdin joan liteke Lizardi ba-

llarara. Lenago, Urki Goikoak bestekoen bidetik ibiltzen giñan.

Errekarte'ko aldapan gora, ganaduarentzat bide bat zan, eta Urki Goikorako eliz-bidetxiorra bakarrik genduan. Gero, egutera aldetik udaran bero egiten zuala-ta, ospeletik, eliz-bidetxiorra zegoan lekuan, ganaduen bidea jarri genduan, terreno-jabeak permisoa eman eta. Eun bat metroan ganaduaren bidetik igotzen giñan.

An badago Zubi-txikia esaten dioguna. Andik gora, bakarrik giñanean, ganadu gabe igotzen giñan. Malda izugarria dago. Gazte denborarako ohea zan ura. Gaur ez nuke an ibilli nai.

Orrela moldatzen giñan garai batean. Gaur ari dira gauzak pixka bat aldatzen.

Nik alde egin nuanean, nere anai zarrena gelditu zan etxean. Baiña aiek ere aspertu egin ziran, eta alde egin zuten, baserria utzita. Ordizia'ko taberna bat artu eta antxe bizi dira, nere anaia ez beste danak. Amaika seme-alaba azi zituzten. Aita gazterik il zan. Jaunak berekin dezala.

Gure etxeak ondoan dauka gure ama zana sortu zan baserria. Urki-goena beraren izena. An ezagutu nituan aitona eta amona. Ramon Txiki esaten zioten aitonari. Manuela bere emaztea.

Esaten zuten, emazteak amazapi urte eta aitonak emezortzi urte zituztela ezkondu zirala. Garai artan ezkontza asko egiten omen zan gurasoen bitartez:

– Gure Joxepa eta zuen Joxe Mari ondo etorriko lirake –gurasoak alkarrri esan, eta gazteak konforme izaten omen ziran. Gaurko asko ez lirake konformatuko. Aiek ere ala jarriak omen ziran.

Lenengo alaba emezortzi urterekin izan omen

zuan, eta orduan maiorazkoa nai izaten zan etxera-ko. Bestela, apellidua galdu egiten zala. Gaur, berriz, apelliduak eta baserriak, danak ari dira galtzen.

Gure aitona zanak ez omen zuan berealakoan poz ori iritxi. Beti alabak etortzen ziran. Ta, bostgarren alaba sortu zanean, galdetu omen zioten:

- Familia izan omen dezute?
- Bai -esan omen zuan aitonak.
- Zer izan dezute?

Eta:

- Utsaren urrengoa -erantzun omen zion.

Eta seigarrena alaba jaio berriz. Poz aundirik etzuan artuko, baiña zetorrena artu bear.

Zazpigarrena semea sortu omen zan. Orduan poztuko zan gure aitona. Ondo osatu ere bai semee-kin: sei seme illaran. Azkenean alaba ekarri eta alto egin omen zuten.

Amairu seme-alaba. Lenengoa, emezortzi urterekin; eta amairugarrena, berrogei ta lau urterekin. Ogei ta sei urtean amairu seme-alaba. Gaur aiña diru ordaindu bear bazan aurrak eskolatzeko, lan egin bearko zuan norbaitek.

Alabarik zarrena gure ama omen zan.

Semerik zarrena etxera esposatu zan. Bizente, ni bezelaxe. Nere aita-pontekoa bera izan zan. Emaztea Baliarrain'dik ekarri zuan: Pilar Esnaola. Ainbeste lan egin zuten, an bizi izan ziran artean. Izan zituzten lau seme eta lau alaba.

Azkenean, gureak bezelaxe, baserria utzi eta alde egin zuten danak. Donostia'ko Loiola'n, *Bar Americano* izeneko taberna artu zuten. An bizitu ziran bastante urtean. Zenbat ez dakit seguru.

Lenengo, semerik zarrena, Eusebio bere izena,

gaitz txar batek eraman zuan. Gero, arrebarik gazteena ere bai. Ura osasun gutxikoa zan. Arreba zarrrena ere oso gazterik il zan, Beasain'en. Biotzetik gaizki ibiltzen zan, eta azkenean arek eraman zuan.

Osaba Bizente ere taberna ortan il zan. Oso mai-teak giñan alkarrekin. Deitu zidaten triste zegoala, eta Altza'tik Loiola'ra oiñez joan nintzan. Ordu erdi bat bear nuan.

Galdetu nion zer moduz zegoan, eta erantzun zidan:

– Amaika aldiz esan zidak nere emazteak noiz jui-zioan sartu bear dedan. Oraintxe sartu nauk jui-zioan, baiña nereak egin dik orain.

Bere buruari antzema-na zegoan. Urrengo astean il zan gizarajoa.

Bere emaztea, etxean zeukan alabarekin, Ernani'ra joan zan. Suiak aragitegia jarri zuan. Baiña nun-bait taberna geiago gustatzen. Berriz lokal bat erosi eta taberna jarri zuten. Antxe segitzen dute oraindik. Ama, orain lau bat urte il zan. Alaba eta sua seme eta alabarekin an bizi dira.

Gustora joan izan naiz, ondo artzen naute eta. Ara sartu ezkeru, bazkaria edo merienda seguru. Bukaeran Justo lengusuari bertso bat kantatu ezkeru, besterik ordaindu gabe libre. Aruntza inguratu ezkeru, sartu-etxea seguru daukat an.

Beste alaba bat Irun'en bizi da, *Bar Humo* izene-ko jatetxean. Irun'a joaten naizenean, badakit nun aldaba jo.

Beste alaba bat Frantzia'n bizi da, Behobia'n. Oraindik denbora gutxi dala, bisitatu nituan senar-emazteak, Irun'en daukan aizpa eta bere senar-rarekin joanda.

Beste senideak Ernani alde ortan esposatuta bizi dira.

Urki-goena bi bizitzako baserria da. An ezagutu nituan Esteban eta Mari Juana, aiton-amon gogor askoak.

Beren semea, Jose Antonio, len esan dedan nere izeba Pilar orren aizparekin esposatu zan. Maria beraren izena. Izan zituzten iru seme eta bi alaba. Azkenerako, baserria utzi ta etorri ziran Ernani'ra.

Eta orain seme bigarrena, Zirilo, joan eta baserri ortan bakarrik bizi da. Kanean zorioneko zurrutak menderatzen omen zuan. Azkenean, lanerako ere gauza ez; eta aruntza bialdu zuten, astean bein edo bi aldiz bere arrebak buelta egiten ziola. Iturriko urarekin dagoanean, gizon jatorra ibiltzen da.

Ango festetara joaten naizenean, itzaldi batzuk egiten ditut berarekin. Bertsolariak gaia jarri bearrik ez degu izaten. Ziriloren ardiak eta mandoa eta oillo-arrautzak, izaten degu naiko zer kantatua. Ardo pixka bat eman ezkeru, ura pozik. Ez dio ajolik beragatik bertso batzuk kantatu arren. Danekin lagun gelditzen da.

Gure illobak ura an bizitzea nai dute. Baztarrak garbitzen omen ditu etxe inguruan. An egon dedilla esaten dute aiek. Bestela, sasiak artzen omen ditu etxeondo danak.

Orain banijoa beste baserri baten berri ematera. Saletxe-berri beraren izena. Lenago nunbait ardi-borda; edo saletxea askok esaten diogu. Orregatik izango du izen ori.

Lengo saletxearen ondoan beste puska bat ezarri eta bizitza ederra egiña dago. Lengo saletxean ganaduak, eta berak puska berrian.

An ezagutu nituan Markos Otegi eta Martina. Apellidua ez dakit nola zuan onek.

Markos ori bai zala gizon sanoa. Lanean baiño denbora geiago pasatuko zuan errezatzen. Maldizioak ere bazituan. Ez dakit frantzesez edo nola esanak ziran. »Kontxesa!» eta »Arraiea!», oiek zituan bere biraoak. Ez det uste Jaungoikoa asko naigabetzen zuanik. Bere bizitza iñori kalte asko egin gabe pasatu zuan. Eta bere antzekoa zan emazte Martina.

Etxetik eun metrora zeukaten iturria. Gure soro barrenean sortzen zan. Aruntza jeixten zan bide txarra eta malda aundikoa.

Edateko ura eta sukaldean gastatzeko, andik eramaten zuan Martinak, bere errada buruan zuala. Batzuek suilla deitzen zioten. Barrika bezela, egurrekin egindako ur-ontzi bat izaten zan, ogei litro ingurukoa. Gaur ezta olakorik asko ikusten.

An etortzen zan, bere ontzia buruan artuta, gu soroan ari giñala. Gure parera iritxitakoan, esaten zion gure aitari:

– Ur preskorik nai al dezu, Benito?

Ni itzulan ibiltzen nintzan. Batzuk *bei aurean* esaten diote. Gure terrenoa, bidea baiño metro bat altuago zegoan. Gure aita joaten zitzaion bere ondora. Paretaren kontra jartzen zan Martina arrimatuta, eta aita zanak, buruan zeukan tokitik, erradaren gaiñera eramaten zuan, guk antuxiña esaten genion, beste batzuk txantxilla deitzen diote, arekin artu ta trago bat ederra egiten zion. Berriz ere lengo lekuan, errada gaiñean, uzten zion antuxiña, eta:

– Eskerrik asko, Martina -esaten zion.

– Ez orregatik, gizona -erantzuten zion, eta an joaten zan, bere errada buruan zuala.

Beren semea Joxe Joakin zuten. Onen emaztea,

Bitori. Bost seme izan zituzten. Alkarrekin eskolan ibilli giñan geienak.

Beste Markosen seme bat Itsasondo'ko Azubi baserrian bizi zan. Familirik etzuten, eta pizarra-arrobia zeukaten beren terrenoan. Sozio-lagunak ere bazituan. Berak etzuan baserrian lanik egiten.

Saletxe-berri'ko gurasoak eta senideak, famili osoa jetxi ziran Itsasondo'ra. An bizitu ziran urte batzuetan.

Markos zanak, len esan bezela, bere denboran gogokoa izan zuan errezoa eta eliza. Eta azkenean, Ama Birjiña Agoztuko egunean, meza nagusian zegoala, ondo-eza egin eta etxera eramán zuten. Ez dakit bizirik etxera iritxi zan. Bere azkena elizan izan zuan.

Andik laister, ez dakit zenbat denbora seguru, bere emaztea il zan.

Andik urte batzuetara il ziran Joxe Joakin eta Bitori. Bost semeak gelditu ziran. Iru ezkondata. Beste bat, oso gazterik, ogei ta amar urte inguru zituala, il zan. Eta bostgarrenak Ameriketara alde egin zuan.

Bere arrastorik etzan izaten. Ez det uste asko abisatzen zuanik nun zebillen. Eta, oraindik ez dira lau urte, abisoa etorri Joxe Manuel Otegi il zala. Ez dakit zeñek deitu izango zuan.

Bi zarrenak bere osabaren arrobi ortan lan egiten zuten. Zoritxarrez, arrobiko auts orrekin osasuna galduta, gazte samarrik bukatu ziran.

. Gaur anai gazteena bizi da bakarrik.

Gero, Saletxe-berri'ra joan ziran Garakoetxe'tik, Matias Artza eta bere emaztea Jertrudis, beren lau seme eta bi alabekin.

Jertrudis au zan aur kentzen edo komadrona ibiltzen zana. Neroni ere, len esan bezela, berak jantzi omen ninduan lendabiziko. Ballara guzia berak serbitzen zuan, eun da berrogei kilo berekin zituala. Etzan ate txikian pasatzeko modukoa, baiña bai laguntzaillea benetan.

Il zanean, eun da berrogei ta amar kilo pisatzen omen zituan. Zortzi lagun txandan ibilli omen ziran iru kilometroko bidean ura errira ekartzen. Uste det pasada ederra artu zutela bide txarretan ura jeixteko.

Bere gizona zintzo askoa zuan, eta langillea benetan. Ni gaztea nintzala, entzun izan nuan baserri-lanetik egindako dirurik geiena berak omen zuala. Berrogei milla duro ba omen zeuzkala dirutan. Orduan berrogei milla duro gaur larogei milloi baiño geiago izango zan.

Batzuek ziotenez, Matiasentzat pezeta bat geiago omen zan –Goierriko beste baserritar bat bazan, zuanean errex gastatzen zuana–, onentzat ogei duro baiño.

Gazte denboran, igande-arratsaldean, alkarren-gana gure aita eta biak biltzen omen ziran, eta illea moztu alkarri. Aurrena batek besteari, eta gero txanda. Biak pelukero. Aiei esan balitzaie milla pezeta ordaindu bear zala illea mozteko, etziran presaka joango.

Gero bere seme Frantzisko Maria ezkondu zitzaion etxera, Lizardi'ko Mariarekin. Aitaren arre-baren alaba au. Lengusu-ezkontza egin zuten. Ogei bat urte inguruan izango zituan Mariak ezkondu zanean. Senarrak sei edo zazpi geiago.

Mariak lenengo familia izan zuanean, Itsasondo'ko medikua eramán zuten, bere amagiarreba komadrona izan arren. Nunbait bere burua libre nai zuan

onek. Don Jerman Lauzirika zan medikua edo sendagillea. Esan omen zion:

– Famili ederra izan bear dezu.

Eta asmatu zion. Arek uste bezela gertatu zitzaion. Amazazpi seme-alaba izan zituan. Bat, jaio eta bereala il omen zan. Eta beste bi baditu ezbearrean illak. Oraindik beste amalau bizi dira.

Zarrena, alaba, nere lengusu batekin ezkondu zan. Semerik zarrena, nere illoba batekin. Uste det danak, alabak beintzat, esposatuak daudela, bat izan ezik. Iru seme egongo dira soltero.

Festa-egunetan an ibiltzen dira Artzatarrak. Artza baidute apellidua. Dantzan asten diranean, ain dira ariñak eta dotoreak, gustoa ematen du beraiei begira. Zortzi bat senide bueltan jarrita, zer edertasuna! Ala ikusteko ohea da, mantendu eta danak jaztea baiño.

Anaietan gazteena dago Urki'ko Elkarte edo Soziedadean nagusi egiten duana. Alakoak asko bageunde, mundua dagoan baiño ohea egongo litzake. Arek egiten du lana merke eta bildurrik gabe.

Izerdi ederrak ateratzen ditu Santa Krutz maiaztzekotan eta agorrekotan. An izaten gera festetara joanda. Jende asko biltzen da.

Lenago kotxerik etzan izaten. Gure Ordizi'ko illobak, gu sortu giñan baserria arreglatzeko, pista bat ebaki zuten, eta kotxeak ondo joaten dira Santa Krutz ermitaraiño. Geroztik alde aundia dago Urki ballaran.

Festa-egunetan, Joxe Mari Artza orrek deitzen digu erriko iru bertsolariei. Zeberio, Mendizabal eta ni izaten gera urtero.

An juntatzen gera bertakoak eta kanpokoak, meza ondoren amaiketakoa egitera. Eseri orduko asten

zaigu salda, aragi egosia, txanpiñoiak, antxoak eta zer ez digu ekartzen? Berrogei bat lagun biltzen gera, eta aren izerdi atera bearra! Arreba pare bat jartzen zaizkio sukaldean laguntzen, eta bera danei serbitzen.

Askok egiten dute amaietakoaren izenean bazkaldu ederki, eta gero ordubietan kafea artu eta bapop. Arratsaldean festarako libre. Milla errealekin naikoa janda geratzen dira.

Guk ordubiak aldera beste saio bat egiten degu jaten eta edaten.

An izaten dira Zendoia soiñu-jolea eta Egañazpi pandero-jolea, bazkalondoan mai-aldea alaitzeko. Guk ere geuren saioa pozik egiten degu.

Arratsaldean jartzen dituzte aizkolariak. Orain bost urte-edo, Igeldo'ko Olasagasti an zan, eta urrengo maiatzean ere bai. Beste bi zituan kontrarioak. Galdu egin zuan, baiña ez det uste Mindegia'ren kontra bezela beartu zanik. Galduagatik lasai gelditu zan. Bertsotan, tongo egin zuala kantatu genion, baiña algara lasai egiten zuan. Etzigun gaizki artu.

Gero tokan tirada bana. Onenak bere saria bazuan. Oillasko pare bat errifatu zuten. Orain iru urte bi antxuma ziran. Jaberik ez omen zan azaldu. Andik illabetera beren artean jan zituzten anaitasun ederrean. Segi dezatela urte askoan olaxe.

Berriz astera noa beste bost'edo sei baserri aita-tzen. Urki-beko ballara oraingoan. Lenengo base-rria, Aurren-etxe. Ballara ortan lenbizi dagoalako izango da izen ori.

An ezagutu nituan Joxe Joakin eta Joxepa bere emaztea. Uste det bigarren senarra zuala Joxe Joakin ori. Lenengo senarra Joxe Mari entzun izan nuan.

Lenengo senarrarekin, Felix izeneko semea zuten. Joxe Joakiñenak: Juliana, Bitor eta Juana. Il ziran danak.

Felix ezkondu zan etxera. Bere emaztea Olate baserritik etorri zan. Arek ere Joxepa bere izena. Orduan deitzen zioten amagiarrebari Joxepa Zarra, eta erraiñari Joxepa Gaztea.

Lenengo semea izan zuten eta bere aitonaren izena jarri zioten: Joxe Mari. Baiña osasun gabea sortu zan. Biotzeko miña egiten zitzaion, lenengo astean bein, gero egunero, eta azkenean egunean lau bider igual. Ogei bat urte inguru zituala il zan gizarajoa.

Gero izan zituzten bi seme eta zazpi edo zortzi alaba. Aietan ere izan bear du atzeratu xamarra alaba bat. Uste det bere aizpa batekin bizitzen dala. Festetan ikusi izan ditut dozen erdi bat, sasoi ederrekoak, dantzan dabilzala.

Beren aita zana, ezkondu ezkerro, festa-egunean bakarrik etortzen zan, dantza egitera, bere bruxa beltza jantzita. Bai dotore asko dantzatu ere. An baldin bazan, bere illoba Maria artzen zuan laguna dantzatzeko. Len ez det aitatu: Felix orren arreba zan Maria orren ama Jertrudis. Bi edo iru dantza-saio egingo zituan. Uraxe zuan bere gogozko lana. Baxoerdi bat edo bi edanda, zintzo asko etxera joango zan berriz.

Uste det anai bat eta arreba ori egongo dirala ezkondu gabe. Besteak ezkondu ziran danak.

Orain beste baserria aitatu det: Domingotegi. Biak alkarren ondoan daude.

An ezagutu nituan Juan Mari eta emaztea Antonia. Aiek ere bazituzten iru seme eta bost alaba.

Zarrena etxean jarri zan. Juan Krutz aren izena. Emazteak Flora izena, Beizama'ko Aiñondo baserri-

ko alaba izan zuan. Senarra oso gazterik il zan. Gaitz txarra sortu zitzaion eta arek eraman zuan.

Seme-alabak zituzten. Bigarren anaia, Basilio ize-na, nere kintakoa da. Beasain'go fabrikan lana egin du bere denbora guzian. Zenbat kilometro pasa ote ditu, oiñez goizean iru kilometro bera jeixten, beste iru kilometro illuntzean gora, eta beste lau kilometro bizikletan? Ez dakit zenbat urte egin dituan orrela. Erretiratu zan. Lasaitasun ederra artuko zuan, beste askok bezelaxe. Orain bere bi illobekin baserrian bizi da. Illobak ere lanera joaten omen dira. Gauerako irurak etxera. Beste danak esposatu eta zabaldu ziran alde banatara.

Beste baserria, Garakoetxe. An ezagutu nituan lenago aitatu ditudan Matias eta Jertrudis beren familiarekin. Aiek Saletxe-berri'ra joan ziran.

Gero etorri zan Amezketatik beste famili bat. Aitak Ramon zuan izena. Emazteak ez naiz gogorazten zer izen zuan. Lenago gure aitona zan Ramon Txiki; eta gero txikiagoa etorri zan. Orduan arek artu zuan gure aitonaren izena.

Seme bat zuten, gure ballara ortara etorri zana. Ez dakit beste nunbait seniderik bazuan edo ez.

Orrera etorri ta laister ezkondu zan semea, Inazio. Amezketan ezkondu zirala uste det. *Viaje de bodas* luzea etzuten egin. Goizean ezkondu eta arratsaldean garia ebakitzen jardun ziran itaiarekin biak. Gaur bezela, etzuten Canarias aldera joan bearririk izan.

Gaurko gazteei esango balitzaie ezkondu eta arratsaldean lanean asteko, artan asi baiño len dibortzioa eskatuko luteke. Aiek etxean zeuden lanari eltzeko. Gaur alako gutxi ikusten da. Izan zituzten

bost seme eta bi alaba. Bizkor askoak, berak bezelaxe.

Emaztea il zitzaion. Maria zuan bere izena. Seme-alabak, bat ez bestek, alde egiñak dituzte. Batzuek esposatuta. Soltero zegoana, Joxe, orain amabost bat egun il omen da Frantzia'n, eta entierroa Itsasondo'n egin diote.

Aita bizi da, seme batekin. Larogei ta zazpi urte bete omen ditu. Orain arte festa-egunean azaltzen zan mezetara. Aurtengo maiatzean ere an agertu zan. Oraindik bizkor dabil, Jaunari eskerrak.

Orain pasako naiz beste baserrira. Sorrondegi beraren izena. An ezagutu nituan Luis Antonio eta Joxepa Antoni senar-emazteak.

Joxepa Antoniren aizpa Joxepa Iñaxi bazuten, gerriz-berak elbarriak zituana. Elizara asto gaiñean eramaten zuten, arentzat egindako pasta eta asto-kakoak bezelako armazoi bat jarrita. Ol txiki bat alderdi batean, anak jartzeko. Bere illoba Domingok arotzerian ondo zekian, eta berak preparatzen zizkion etxean danak.

Elizako atean, astoaren gaiñetik besoetan artu eta elizara eramaten zuan. Berarentzat silla txiki bat edukitzen zuten. An eserita egoten zan meza-denbora guzian, eta apaizak Jauna bertara eramaten zion.

Mezaren bukaeran, berriz, illoba orrek besoetan jaso, asto gaiñean jarri, astoa katetik artu eta ala eramaten zuan berriz etxera.

Etxeko lanak, asko, berak egiten omen zituan. Lurrean arrastaka bezela, bi eskuren gaiñean baliatzen zan. Josteko makina ere bazuan, eskuekin lana egiten zuana. Etxeko joste-lanak berak egiten omen zituan. Izeba Txikia deitzen zioten.

Luis Antonioren eta Joxepa Antoniren ondoren-

goak bost seme ziran. Zarrena, etxean gelditu zan. Beste lauak kanpora alde egin zuten. Bat Legorreta'ko Bizkarreta baserrian bizi zan. Bestea, Lazkao'ko Iztueta baserrian. Bestea errian bertan. Gazteena soltero egoten zan. Danak il ziran. Aspaldiko kon-
tuak jartzen ari naiz.

Beren aita langille izugarria omen zan: baserriko lanak eta, al zuan guzian, basoan ikatz egiten ibiltzen omen zan. Bere koñadoa, len aitatu dedan Garakoe-
txe ortan bizitzen omen zan. Biak alkarrekin askotan ibiltzen omen ziran. Sarritan, gaua basoan pasa eta egunez garia jotzen jardun omen ziran.

Etzan lantegi ederra. Neronek ere probatu nuan baserrian. Bildurrik geiena ematen zidan lana zan gari jotzea. Kanpotik lastoak, al zan beroenak, eramaten genituan. Gero losa aundi bat zutik jarri trun-
ko baten kontra, eta arri-losa orri joka, gari-alea bota arazi arte. Lan txarra eta zikiña benetan.

Eguna ortan pasatzen omen zuten. Gauean apal-
du eta berriz basora bi koñadoak.

Batean, illargia omen zegoan. Baiña badaezpada ere farola eskuan artuta Santa Krutz'ko ermitatik aurrera zijoazela, Luis Antonio atzetik bidean estropozoka omen zijoan; eta besteak esan omen zion:

– Farola piztea nai al dek?

Eta erantzun omen zion:

– Zertarako diat farola piztuta, begiak zabalik ezin dizkiat eraman eta?

Egun guzian lanean jardun eta loari ezin eutsi. Olaxe ibiltzen ziran garai artako gizon asko. Lanean gozatzen zuten gizonak ziran.

Gogoratzen naiz, ardi-zai nenbillela, nola eraman

zuten Luis Antonio ori, Errekarte'ko aldapan bera, lau gizonen bizkarrean. Nik bost edo sei urte izango nituan.

Orren seme zarrena, Domingo, etxean gelditu zan. Saletxeberri'ko alaba zuan bere emaztea. Maria onen izena. Bi seme eta alaba izan zituzten.

Domingo ori oso trebea zan, eta miñak ikaritzen etzuana. Gau batean, oiera joan eta agiñeko miñez lo ezin eginda omen zegoan. Aspertu zanean, ganbarara igo, borra bat ekarri eta lokarri batekin -fin eta fuertea izango zan- agiñari lotu omen zion mutur batetik. Beste puntatik borrarari lotu. Eta orduan leiotik bera bota zuan. Borra an joan omen zan bere agin eta guzi beko baratzaraino. Arek etzuan *dentista* edo agin-ateratzaillearen bearrik. Indiziorik ere ez miña kentzeko. Olako kontuak garai batean asko entzuten ziran.

Sorrondegi ori bi bizitzakoa zan. An ezagutu nuan Lazkao'tik etorritako famili bat.

Aitona, edadekoa, Mateo. Ezagutu nuan ura ere. Ni oso gaztea nintzala il zan. Emaztea ez nuan ezagutu.

Bere semea, Joxe Domingo, ezkondu aurretik morroi egon omen zan Legorreta'ko Iztatur base-rrian. Mutil fuertea omen zan oso. Gero ere ala izan zan.

Aita zanak kontatu izan zigun mutilla bikaiña zala, baiña bai dirua irabazi ere. Urteko mantenua, asteko erropak eta ontzako urrea, urteko soldata. Ontzako urreak amasei duro zituan, eta diru asko zala esaten zuten.

Gero etxera esposatu zan. Emaztea ez dakit nundik ekarri zuan. Petra zuan bere izena.

Izan zituzten lau seme eta alaba. Zarrena, Mar-

tin, egoten zan etxean. Besteak asi ziran kanpoan lanean. Danak Tolosa'ko San Blas ballarara joan ziran, baserri bat erosita. Baserri ortan gelditu zan Martin. Ori esposatu ta besteak errian bertan jarri zirala uste det. Geroztik gutxi ikusi ditut.

Martin orrek suertea izan zuan. Etxeak egiteko, terrenoak saldu omen zituan. Diru askoren jabe egin zala entzun nuan. Orain kalean bizi da.

Itzegin izan det, Tolosa'ra ferira joandakoan. Pozez egoten gera alkarrekin, denbora bateko Urki'ko kontuak berrituz. Ura ere irrikitzen, lengo kontu zarrak aitzatzeko. Zartu egin da, gu bezelaxe. Larogei ta zazpi urte aurki beteko dituala uste det.

Aiek alde egin zutenean, Bekoetxea'n bizi zan Adrian Garmendia eta bere emazte Zeferina, aiek etorri ziran Sorrondegi'ko baserri artara. Bazituzten iru seme eta iru alaba. Alaba zarrena oso gazterik il zan. Zeledoni beraren izena.

Aitak Itsasondo'ko arrobi-zuloan lana egiten zuan. Semeak ere an asi ziran. Zarrena, arrobiko autsarekin gaixotu eta gazterik il zan. Martin eta Manuel bizi dira oraindik. Arreba bat Ordizia'n bizi da esposatuta. Bestea monja joan zan. Ez dakit zein komentutan dagoan. Aurtengo Santa Krutz festetan azaldu zitzaigun Urki aldean. Itz aspertu bat pozik egin nuan berarekin.

Beren aita Adrian, egun batean ferira joanda, kontutan pixka bat berandu arte egon omen zan bere lagun batzuekin. Noizbait pentsatu omen zuten bazkaltzera joan bear zutela. Eta Ordizia'ko Sarasola tabernak oraindik an segitzen du beste izen batekin. An sartu omen ziran bazkari eske. Galdetu omen zion Adrian orrek etxeakoandreari:

– Bazkaririk bai al daukazu?

Etxekoandreak:

– Bai. Oraindik sobratu da.

Eta Adrianek erantzun:

– Sobratu egin al zaizu? Gure etxean, sobratutakoa txakurrari ematen zaio. Zuk ere emaiozu ari.

Ori esan eta alde egin omen zuten. Olako ateraldi asko zituan Adrianek.

Orain pasatuko naiz Olate baserrira. An ezagutu nituan Manuel eta Paula aiton-amonak. Beren semea Adrianen anai zarrena zan, Joxe Anjel, baserrira ezkondata zegoana. Bere emaztea, Eusebi, emakume bizkor askoa. Izan zituzten iru seme eta lau alaba.

Alaba zarrena, Joxepa, esposatu eta gazterik il zan. Seme zarrena esposatu zan etxerako, Sorrondegi baserriko alabarekin. Suerte txarrekoa izan zan. Bi seme eta iru alaba izan zituzten, eta famili gaztea utzita bere deskuido batez odol-ustu eta il zan. Juan Joxe gelditu zan bost seme-alaba gazterekin alargun. Beste senideak, danak ezkondu ta jarri ziran bakoi-tza bere lekuan.

Anai bigarrena nere edadekoa zan, eta urte batzuk badira il zala. Anai gazteena, berriz, esposatu zan. Etzuan urte askoan bizitzeko suerterik izan. Beste senideak bizi dira.

Baserri ori bi bizitzakoa zan. Bestean ezagutu nituan Antonio Mari eta Katalina. Etziran kilo asko-koak, baiña bai bizkorrak. Izan zituzten iru seme eta iru alaba.

Seme zarrena, Frantzisko, esposatu zan Abaltzisketa'ko bere lengusu batekin. Bastante edadekoa zan gizona. Emaztea gazte samarra. Zazpi edo zortzi seme-alaba izan zituzten.

Juan Joxek-eta, etxea saldu eta alde egin zuten. Gero, Olate baserri ori erre egin zan. Orduan, Franziskoren semeak ikullu bat egin zuten, eta ganaduak an dauzkate, Baiña berak kalean bizi dirala uste det.

Ganaduarentzat jaten faltarik ez daukate. Baserri danak ustutzen ari dira eta ganadu-jatenak alde guzietan sobra. Gure etxe-inguruko belarrak ere aiek garbitzen dituzte. Eskerrak lanean ondo zailduta-koak dirala.

Orain banoa Bekoetxe baserrira. Adrianek alde egin zuanean, ez dakit seguru nundik etorri ziran. Bautista Abaltzisketa'koa zan. Bere emaztea, Juliana, Aurren-etxe baserriko alaba. Famili ederra azi zuten.

Seme zarrena, Felix, Urnieta aldean bizi zala uste det. Oso gaztea zala, erniatik operatzera joanda, pasatua omen zegoala entzun genduan. Uste gabean ilda gelditu zan.

Beste iru anai badaude gutxienez, eta lau alaba ere bai. Famili bikaiña da. Bat ez besteak esposatuak daudela uste det.

Bautistak Itsasondo'ko arrobi-zuloan lana egiten zuan. Emazteak, berriz, erreka-baztarretan zeuden egur guziak garbitu zituan. Ainbeste ibillera txar egin zituan gaixoak. Egurrak moztu, astoa kargatu eta Billafranka'ko panaderira eramaten zuan. Lau libra-ko ogi pare bat emango zioten astakada egurraren truke. Ura bai zala ogia irabazita jatea. Azkenean, bere alabarengana Ordizia'ra joan zan.

Oraindik etxea berak darabilkite. Semerik gazteena joaten dala uste det, gauean lo egitera. Lasarte baserritik gora pista bat ebaki zuten, eta *land-rover* batekin joaten dala uste det, etxea ondatuta ez ikus-teagatik.

Orain banijoa Antzartegi baserrira. An ezagutu nuan aitona Joxe Martin. Emaztea ez nuan ezagutu. Entzun izan nuan, gizonak bezela eskopetarekin eizean ibiltzen zala.

Beren semea, Juan Anjel, etxera esposatuta zegoan, Lizardi-bekoa baserriko Dorotearekin. Izan zituzten iru seme eta iru alaba. Seme zarrena 41'eko kintoa zan. Azkeneko gerrate ortan utzi zuan bere bizia. Besteak esposatu ziran. Alaba bat dago solte-
ra.

Danak alde egin zutenean, aita eta ama ere jetxi ziran beren umeetara. Baserria utsik dago, ingurua arbolez beteta. Urteko Santa Krutz festetan senide danak biltzen dira baserrian, bazkaria egiteko. Noiz-
zean bein bisita bat etxeari etzaio gaizki etorriko. Bestela, kasorik egin gabe, bereala ondatzen dira.

Ari dira baserri ederrak ondatzen gure ballara ortan. Pena ematen dit. Garai batean ikusi edo gaur ikusi, alde ederra badago. Baiña ez dauka orrek ar-
glorik.

Pasatu gaitezen Errota baserrira. An ezagutu ni-
tuan Frantzisko Lasa eta Maria Krutz Otegi. Lenda-
bizi Errota'n bizi zana senarra izango zan.

Maria Krutz ori Saletxe-berri'ko Markosen arre-
ba zan. Lenengo senarrarekin seme-alabak izan
omen zituan, eta bereala alargundu. Berriz ezkondu
omen zan beste batekin. Arekin seme bat izan omen
zuten. Berriz ere, senarra il eta alargun gelditu omen
zan. Irugarren senarra artu omen zuan orduan, eta
ori zan Frantzisko Lasa, nik ezagutu nuana. Iru sena-
rrak Frantzisko omen zuten izena, eta orregatik Iru-
Frantzisko deitzen genion.

Azkeneko senarrarekin izan zituzten lau seme eta

bi alaba. Seme zarrena eta gazteena soltero bizi ziran.

Lengo Errota zarra botata, aldamenean, ango arriak aprobetxatuz, baserri berria alboan egin zuten. Etzuten suerte aundirik izan.

Antxe ibilli nintzan igeltsero-peontzan, oso gaztea nintzala. Zazpi pezeta ta erdi jornala. Gaurko etzan asko. Ni gustora ibilli nintzan ala ere.

Denbora gutxiko jarria izan zan etxe ura. Ni soldadu nengoala, deitu zidaten Errota erre egin zala, berria egin eta bost urtera.

Ganaduak gure etxean sartu zituzten. Ama seme zarrenarekin bakarrik bizi zan, eta gure etxean egon ziran, bizilekua billatu arte. Orduan Ordizia'n piso bat artu eta aruntza joan ziran. An bukatu zuten beren bizitza.

Irugarren semea, Juan Mari, nere arrebarekin esposituta zegoan. Donostia'ko Loiola'n jarri ziran bizitzen. Etxe berria eta dotorea zeukan. Baiña ogei duro illean errenta garai artarako asko zan, diru gutxi irabazten zan da. Aldamenean beste bizitza, bostgarren pisoan, libre zegoala eta aruntza aldatu ziran, illean bost duro ordainduz.

Egun batean joan giñan bi koñadoak muebleak aldatzera. Zer eguna pasatu genduan oraindik gogoan daukat. Bi silla artu, etxe batetik bestera berrogei bat metro eta bostgarren pisuraino eskillaretan gora. Urrengoan, oi baten jergoia naikoa. Etziran guk nai ordurako bukatu etxe artako trasteak. Illuntzean Urki'ra joan giñan, paliza ederra artuta. Eskerrek gaur baño sasoi ohea geneukala.

Berak Donostia'ko Tabakaleran lana egiten zuan. Baiña ura etzan kalean bizitzekoa. Donostia'n asper-tu eta Urki ballarako apaizaren etxea utsik zegoan

eta ara joan ziran, apaizarekin bertan bizitzeko. An jarri ziranean, anai zarrenari terrenoa eskatu zion, eta elizaren aurrean etxe berria egin zuten, beren etxean bizitzeagatik. Orduan apaiza gure etxera etorri zan berriz.

An bizitu ziran bastante urtean. Baiña gazteak lanera asi bear; eta jetxi eta igo ibiltzeko urruti eta bide txarra zegoalako, danak etxe berria utzi eta Ordizia'ra joan ziran.

Juan Mari bera arrobiko auts orregatik gazterik bukatu zan. Itsasondo'n asko dira suerte ori izan dutenak.

Nere arreba zortzi seme-alabarekin gelditu zan alargunduta. Semerik gazteena dauka soltero, eta alaba bat ere bai. Ama geienean Donostia'n egoten da. Bi alaba dauzka *hostal* banarekin. *Hostal Perla* eta *Hostal Urkia* dauzkate. Arreba gazteenak bi aur baditu. Aiei kaso egiñez, eta besteari ere bisita egu-nero egiñez, ortxe bizi da biekin.

Alabak esposatu ziranean, suiak tokatu ziran oso langilleak eta artetsuak. Igeltsero, arotzerian eta argintzan, danetan berak egiten dute. Lenago pixka bat atzenduta zegoan Urki'ko etxea, txaleta bezela jarrita dago. Gaur zer poz ematen duan, ermitaren ondoan, plaza erdian duala! Kotxearekin joaten dira, nai dutenean.

Garai batean orrela egon bazan, etzan orrenbeste etxe ustuko. Baiña ura joan eta gero, presa alperrik. Eskerrak oraindik ere baliatzen dirala batzuk.

Gurutze Santuaren laguntzaz egiña izango da noski. Berak ere bisita geiago izaten du orain igandee-tan, meza entzunez eta perretxikuak bilduz. Gero amaiketako ederra egin merke asko. Orain jende faltarik ez omen da izaten. Garai batean, meza en-

tzun eta baxoerdirik artu gabe alde egin bear izaten genduan. Orain, amaiketako ondoren, beste botilla bat edo bi musean jokatu, eta argi-argi eginda dnak.

LIZARDI BALLARA

Goazen azkeneko ballara aitatzera. Lizardi ballara degu, lau baserriekin. Lenengo aitaturko degu Lizardi-bekoa. Bi baserri ditu Bekoak, eta beste bi Goikoak.

Bekoan ezagutu nuan Antonio Maria Etxeberria. Beizama'tik etorri omen zan. Beraren gurasoak ez nituan ezagutu. Ezkondua zegoan Joxepa Artza'rekin. Saletxe-berri'ko Matiasen arreba bera.

Izan zituzten bi seme eta lau alaba. Alaba bat oso gazterik il zan. Lau mutillen artean eraman genduan, bost kilometroko bidean, bizkarrean. Bere anaia, Juan Mari, soldaduskatik etorri eta bereala il zan ura ere. Anai zarrena nere edadekoa zan. Amaika ibilli alkarrekin egiñak. Bi arreba zarragoak oraindik bizi dira. Zarrena, amazpi seme-alabaren ama. Bigarrena esposatu zan Lizardi-goiko Lorentxorekin. Ezkonberriak Orio'ra joan ziran. Gizona badakit il zala, baiña ez dakit zer famili izan zuten.

Beste aizpa esposatu zan Lorentxoren anaiarekin. Donostia'ko Loiola'n bizi izan dira berrogei ta geiago urtetan. Gizona orain bi anak moztuta dago. *Go-*

bierno Vasco'ri etxe-bizitza eskatu zioten, lengoan eskillaretan bera jetxi ezin zutelako; eta orain Donostia'ko Intxaurrondo ballaran eman diote bizi-lekua.

Beste aizpa Zaldibia'ko artzai batekin esposatu zan. Uda-partean Aralar aldeko aize sanoak artuz bizi da. Emakume ederra ikusi izan det.

Orain dala denbora gutxi, anai zarrena il zan. Jaunak berekin dezala.

Beste baserrian ezagutu nituan Migel Maria Irasortza eta bere emaztea, Frantziska. Bazituzten lau anai eta iru arreba. Gaintza'tik etorriak omen ziran Lizardi'ra.

Anai zarrena mina batzuetan lanean jardun omen zan, eta ango mantxarekin gazterik il. Juxtu-juxtu ezagutu nuan nik. Bigarrena, Pedro Inaxio, Lizardi-goiko Mikaela, Bizenteren alaba gazteenarekin esposatu zan. Beste bi anaiak soltero daude, Patxi eta Joxe.

Alaba gazteena Joxeren bixki-laguna zan. Oso gazterik il zan. Ura ere guk eraman genduan. Berak esan omen zuan zeinek eramatea nai zuan, iltzen zanean. Guk bere gogoa bete genduan. Ezi-aldi ederra artu ere bai, bost kilometro ura bizkarrean genduala. Gorputz aundia zuan, eta pisua ere bai. Kajarren ertzak bizkarrak gorritu zizkigun ederki.

Aizpa zarrenari biotzeko miña egiten zitzaion askotan. Gurekin zebilela ere gertatu zitzaion. Etxetik gertu zeukaten iturri bat. Putzu txiki bat beti beteta egoten zan. Andik eramaten zuten etxerako ura. Egun batean, bi ontzirekin ur billa joanda, bertan naigabea egin da putzura erori. Antxe billatu zuten, arpegia putzuan zuala, arnasik gabe. Bukaera triste benetan.

Beste aizpa soltera bizi da. Bi anai eta arreba daude baserri ortan. Esaten omen diete illobak andik kalera jeixteko. Baiña anai zarrenak ez omen du atera nai. Larogei ta lau urte baditu onuzkero. An bukatu naiko du bere mundualdia. Beste biak, ura bakarrik ez uzteagatik, antxe bizi dira. Gazteenak irurogei ta amabost urte. Gu bezelaxe, onenak emanda.

Orain aitatuko ditut Lizardi-goiko Bizente eta Ramon. Dominika zuan Bizentek bere emaztea. Beasain'go Garin ballaratik etorri omen zan. Izan zituzten bi alaba: Maria Joxepa, zarrena; eta len aitatu dedan Mikaela, bigarrena.

Ramon, anai gazteena, anai zarrenaren alabarekin ezkondu zan. Osaba-illobak alegia. Etzuten familiarik izan. Eta Dominika, Bizenteren emaztea, ainbeste disgusto izan ondoren, burutik nastu. Alegiña egiten zioten atea eta leioak ixten. Baiña gau batean, ikulluan altura ederrean zegoan leio batetik azpiko aldeko estalpe gaiñera jetxi. Andik salto egin eta depositu batean itota billatu zuten. Beste bizitzan bizi zan neska gazte bat orduan. Gaur Irun'en bizi da. Arek billatu omen zuan lenengo. Gero aitatuko det Dominikaren naigabeak zertatik izan ziran.

Bizente orrek bazituan ateraldi xelebreak. Elizara etorri eta jendeari parrealdi bat egin arazi gabe etzizun alde egiten.

Bein batean, Don Jose apaizak, beti bezela, mezetakoan sermoi egin zigun; eta, beste kontu askoren artean, atera zigun intentzio txarra pentsatu ezker, pekatua zala. Intentzioarekin pekatu egiten zala.

Elizatik irten giñanean, gure Bizentek ala zion:

– Gaur gure Don Josek sermoi xelebrea egin ziguk.

– Zer ba? -galdetu genion.

– Intentzioarekin bakarrik pekatu egiten dala esan ziguk. Guk, joan dan urtean, arbia erein giñuan Aztita'ko soroan. Azia bota genduanean, bi anaiok esan genioan alkarri: «Astoarekin eraman eta ondo zimaurtuta jarri bear diagu soroa». Baiña ez genduan eramaterik izan. Intentzioa bagenian guk eramateko. Baiña intentzioarekin arbirik ez uan aunditu. Intentzioak etzin balio izan.

Beste batean, Murumendi aldera joanda, otea eta belarra nastuta ekarri omen zuten bi anaiak. Urrengo goizean, beiei ote-belar ura ematen asi omen zan Bizente. Zakurra jan eske alboan. Eta esaten omen zion:

– Itxogin zak, auei eman arte.

Beiena bukatu zuanean, sardean artu eta bota omen zion zakurrari:

– Besteak auxe jaten ari dituk! -esanda.

Bizentek onela esaten zuan gero:

– Usaia egin zioan, baiña etzian probatu.

Beste batean, paotxaren kontua atera genduan eliza aurrean, eta onela zion Bizente onek:

– Paotxa guk ere egin diagu aurten. Dozen erdi bat urtean almazenean egondako azia izango uan. Oraindik ere an dagoalakoaan zegok ura, ez dek azalzen eta.

Amaika olako bota zigun bere denboran.

Lizardi-goiko beste bizitzan ezagutu nituan Migel Joxe Arantzegi eta bere emaztea, Madalena. Bazituzten iru seme eta lau alaba. Seme zarrena solteroa zan. Beste danak ezkonduak. Seme bigarrenak Tolo-sa'n zerra bat erosi zuan, beste lagun batekin. Eta

arreba zarrena Santa Marina ballarara esposatu zan, Larrañaga'ko Migel Joxe Jauregi'rekin. Besteak, Tolosa'ko zerra orren ondoan erositako terrenoan etxea egin eta aruntza joan ziran bizitzera. Danak esposatu ziran, seme zarrena ez besteak.

Oraindik anai bigarrena eta bi alaba bizi dira. Alaba gazteena, Tolosa'ko Arregi Lora-etxean esposatuta. Feritik ferira lora saltzen ibiltzen da. Ordizia'n askotan egoten naiz berarekin, gaztetako kontuak berrituz.

Oiek Tolosa'ra joan ziranean, Ikaztegieta'ko Benta-txiki'tik joan zan famili bat. Joxe Joakin eta Frantziska senar-emazteak. Bi semeak lenago aitatu ditut: Lorentxo eta Joxe. Urki'ra joan ziranak, iru arreba ziran: Anjela, Lutxi eta Maria. Beste bi edo iru alaba ezkondata zituzten Donosti aldean. Aiek ez nituan ezagutu.

Anjela, nere osaba batekin esposatu zan. Eta beste biak gure edade ingurukoak, batez ere gazteena, Maria, ni baiño illabete zarragoa. Eskolan alkarrekin ibilli giñan. Geroztik ere lagunak oso. Oso neska ederra zan. Gustatzen zitzaidan neri. Igandeetan dantza-saio ederrak egiten genituan. Lagundu ere bai iñoiz etxeraiño. Gustora dijoan tokian bideak akordatu gabe pasatzen dira. Naiz bueltakoan busti-aldi bat artu, ajola gutxi orduan.

Azkenean gerra etorri zan; eta, gu gerra-kontuekin genbiltzala, ezkondu egin zan gure Maria. Irun'en jarri zala bizitzen jakin nuan, mendiko guarda batekin. Gero Burgos'era eramán omen zuten, eta familia ere bai berarekin batera. Berrogei bat urte inguruan ez degu alkar ikusi.

Orain berriz alkarrengana biltzeko suertea izan degu aspaldiko partez. Lengo kontuak eta geuren

bizitzak kontatu dizkiogu alkarri. Gaztetan egun ederrak pasatu zituan, baiña geroztik bestelakoak ere bai, kontatu zidanez.

Josten ikasteko aitzekian Itsasondo'ra jeixten zan, eta lasai asko illuntzean etxe aldera joaten bazekian. Batean, gogoratzen naiz, gure etxe ondotik pasatzen zan, eta aitzekia sumatu aitari astoa ekarri bear nuala larretik, eta alde egin nion. Astoa larrean utzi eta Mariari laguntzera. Baiña aita konturatu zan gutxi gora-bera nik zer bide artu nuan; eta, konturatu zala nik jakiteagatik, joan eta astoa ekarri zidan berak. Nik bueltan astorik gabe etorri bear. Nun ibilli nintzan galdetu zidan. Nik parre egin nion eta esan zidan:

– Arrapatuko au abillen bideak.

Baiña gustora emandako pausoak ez dute penarik ematen. Orain kontu aiek berritu eta poztu egiten gera, biok naiz zartuta egon. San Martzial batzuetan deitu zidan bere alabak: mesedez joateko bazkalzera.

Esan nion Altza'n ere festak zirala egun ortan eta ez neukala joaterik. Urrengo egunean joango nintzala. Urtero joaten bainaiz Irun'era, ganadu-sariketak, bertsolariak, aizkolariak eta festa aundiak izaten baidira uztaillaren lenengo egunean, eta joango nintzala.

Esan zidan ezetz; berak lana egin bear zuala eta San Martzial egunean joateko mesedez, esfuertzo bat eginda; eta azkenean esan nion, Altza'ko meza nagusia entzun eta Donostia'ko erriak jartzen duan amai-ketakoa artu ondoren joango nintzala. Nai zuan bere amak etzekiala ni an azaltzea.

Ala joan nintzan. Ez niñun gaizki artu. Pasai Antxo'n bizi da bere aizpa Lutxi, bere senarrarekin.

Aiek ere an ziran. Bazkaldu genduan ederki eta umore ederrean bazkalondoan asi giñan geuren bizitza alkarri kontatzen. Esan genituan geure bizitzako kontuak.

Kontatu zidan lau alaba Irun'en izan zituala; bostgarrena, Burgos'en bizi zirala izan zutela. Berrogei urterekin alargun gelditu omen zan. Berriz Irun'era etorri omen ziran, gizona il baiño len. Jornal aundia ez nunbait, eta bost alaba mantendu, jantzi eta eskola eman bear. Emazteak esan omen zion senarrari, ea Frantzia'ra joan eta ordu pare bat interina pasatzen asiko al zan; eta oso ondo iruditzen zitzaiola esan omen zion senarrak. Orduan asi omen zan Frantzia'ra joaten, eta gero alargun gelditu. Ala esaten zidan:

– Zenbat etxe garbitu ote det Frantzi aldean?

Baiña bost alaba aurrera atera ditu, eta lau esposatuta dauzka. Gazteena soltera berarekin.

Gaztetako egunak gogoratuko ziran geroztik. Baiña nik esaten dedana ori da: lasa-aldietan naiz gaztetan ibilli, beartu zanean bai lanari gogor ekin. Ori da kristauak egin bear duana.

Ainbat kontu entzun eta gero, etxean esaten jardun nintzan, emakume arek duan balioa pozgarria dala benetan. Ainbat kontu esan genion alkarri. Arratsalde ederra pasatu genduan, eta berriz ikusteko pozak etxeratu nintzan egun artan.

Ezagun egin giñan
Urki'ko partean,
biok urte gutxikin,
gazteak artean.
Lagunak ontzen dira
kanpora joatean,
Maritxu baiño oberik
ez dakit ote'an.

Ez nintzan enteratu
edadean berri,
baiña erreztasunez
egiten zun korri.
Gorputz ederra eta
musu txuri-gorri,
urte askoan eutsi
edertasun orri.

Mesede bat eskatu
nai dizut nik, arren,
ez pentsa nabillenik
intentzio txarren.
Zurekin nago berriz
itzegin bearren,
egun batean bilduz
biok bulebarren.

ERMITA

Asi gaitezen Urki'ko ermita aitatzen. Oso txikia nintzala asi nintzan ermitara joaten. Eliza txikia zan. Kanpoko aldetik edo eliza atzean zimeterioa deitzen zitzaion estalia zeukan, jendea legorrean egoteko; eta eserita jartzeko, arri-losekin egindako eserlekuak zituan.

Gero, apaiza etortzeko asi ziranean edo esperantzaz artu zutenean, eliza berritzea pentsatu zuten.

Orduan, barrena sartzeko, egurrez itxitako lan asko eginda jarria zegoan; eta atea, giltza aundi batekin itxi eta iriki egiten zana. Ondo preparatutako amar bat zentimetro kuadroko egurrak ondo dotoretuak zituan, goien eta bean egur-tabloiari zuloak egin eta juxtu-juxtu sartuak. Norbaitek egin zuan lana, aiek ala zuzentzeko.

Gero, erdiko itxitura ura bota eta atzeko ateraiño eliza luzatu zuten. Kanpoan atea jarri eta ate gaiñean burnizko erreja bat dauka. Bertan esaten zuan: 1925. Obra egin zuten urtea izango da.

Orain, berriz, 1988 jarri dute, obra berria egin dutelako.

Gogoratzen naiz nola jardun ziran ballarako famili danak. Eskulana ballarak egin zuan. Obrako materiala erriaren kontura izango zan.

Kanpaia ere, lenago burnizko bi barillekin lotuta egoten zan. Gero, pareta gora altxatu eta gaiñean tellatua emanda jarri zuten. Soka bat goitik bera ate ondoan, eta andik jo arazten diote kanpaiari.

Aldamenean, lenago eliza atzean zegoan egonlekuan, beste estali bat egin zuten, bertan pelotan ibiltzeko. Alpargata pranko autsi genduan, garai artan gaur baiño gerri bigunagoak geneuzkan eta.

Orduan Santa Krutz maiatzekotan egiten zan festa-legea, maiatzaren 3'an. Gaur bezelako jendetzarik etzan juntatzen.

Santa Krutz bezperan, Itsasondo'tik erriko apaiza, sakristaua eta organista etortzen ziran. Askotan alkatea ere bai. Eta beraiekin jende asko.

Errogatibak egiñez eta errosarioa errezatuz irixten ziran, eta orduan apaizak meza ematen zuan, errikoak eta ballarakoak danak bilduta.

Ondorenean, amaiketako pixka bat egin nai izaten zuten, iru kilometroko bidean igo ziranak. Zerbait bear, eta ardoa, ogia eta gazta puska bat izaten zan.

Urte batean, Juan Krutz Sarasola omen zegoan kontzejal gure ballaratik, eta alkateak agindu omen zion, ermita zuritu eta artoa bat ardo eta ogia ta gazta preparatzeagatik, ermitatik gora asi eta Arrondo'ko puntaraiñoako terrenoak emango zizkiola. Garai artan, lautatik bi gutxienez erriarenak baiziran. Izango ziran ogei bat milla metrotik gora. Juan Krutzek gero saldu omen zituan, puskarik oberena bereztzako utzita.

Biamamonean, Santa Krutz egunean, an etortzen

ziran erriko alkatea eta kontzejal pare bat edo iru, apaiza ere bai, sakristaua eta organista, eta txistua eta ttuntuna. Alegia'ko Txintxarri izaten zan gure denboran.

Lendabizi, Urki'ko kontzejal bat bere gogoz asia izango zan Aiuntamentuari bere etxean bazkaria ematen. Lenengoa borondatez emana izango zan. Andik aurrera obligazioa jarri omen zioten urtero bazkaria emateko.

Azkeneko urtean, Urki-goena baserriko Esteban Garmendia eta bere emazte Maria Juanak eman omen zioten.

Maria Juana ori oso garbia eta besteetatik zerbait geixeago gustatzen zitzaion. Bazkaria emateko, kuarto bat preparatu omen zuan, buelta guzia pape-rarekin tapatuta; eta, ikusi zuanean orduan zegoan alkateak –Juan Sarasola bera– esan omen zuan gastu aundia zala kontzejal batentzat an biltzen ziran danei bazkaria ematea.

Orren aurretik auteskundeak edo botazioak izan omen ziran; eta, beti bezela, tema edo sesio aundia omen zegoan karlista eta abertzaleen artean. Botazio-eguna baiño len bai omen zekiten zeñek zeñi botoa emango zion. Kontatzen omen zituzten danak eta bietatik berdin omen zeuden botoak, eta bai omen zekiten Lizardi-goiko baserrian botorik eman gabe geldituko zala Bizente Mujika.

Eta, alkate nai zuanak esanda edo ez dakit beren buruz, pentsatu zuten zer egin. Aurreko egun batean, edo obeto esateko illundu eta gero uste det, joan omen ziran aren botoaren eske. Eta Bizentek ezetz. Baiña besteak ainbeste gogo agertu ziotenean, esan omen zien, botoa ematezkeroz, milla pezeta eta bazkaria bear zituala.

Orduan baietz erantzun omen zioten, eta igandean errira jetxi, bere botoa eman eta oraindik an dago Kalea izeneko taberna bat. Bertan eman omen zioten bazkaria. Milla pezetakoa artu eta etxeratu omen zan.

Bazan zerbait orduan irabazi zuan propina. Bi bei erosi zitezkean diru orrekin. Gaur bei batek berreun milla baiño geiago balio ditu. Ortik pentsatu milla pezeta zer ziran orduan.

Aren botoarekin iritxi omen zuan Juan Sarasola'k alkate izatea gure errian.

Beste gauza askoren artean, esan omen zioten Urki'n etxe bat egin bear zala ermitaren ondoan. Lenago ere bazegoan etxe xar bat. An maixua bizi izan omen zan. Nik ez nuan ezagutu, baiña etxea bai. Gure aitona zanak belarrez beteta edukitzen zuan.

Oraindik gogoan daukat kuartoak nola zituan. Egur batzuk josi zutika, eta urritz-makillekin esia bezela egin, eta tarteak lokatzarekin bete. Aiek ziran orduko tabikeak. Etxe lujosoa etzuan izan maixu arek.

Ez dakit zein kontura bizitzen zan. Seguru asko, erriak aginduta egongo zan. Illean eun milla pezeta etzuan kobratuko seguru. Ez dakit zein ibilli ziran. Nik ezagutu nuanerako, oso ondatua zegoan.

Gero bota zuten, eta etxe berria alkateak aginduta egin zuten. Materialak erriaren kontura izango ziran. Lana ballarakoak egin zuten. Ni juxtu-juxtu gogoratzen naiz.

Atean sartu eta lokal eder bat bere su bajuarekin. Igandetan jokoan egin eta zerbait meriendatu nai bazan, ura ballararentzat libre utzi zuan. Gero, elizako sakristira bitarte, lokal aundi samarra, festa-egunetan edo errikoak nai zutenean an egoteko. Le-

nengo pisoan jarri zituan lau kuarto, sukaldea eta komona.

Ura urte batzuetan utsik egon zan. Gero guk ere aprobe txatu genduan. Baserrian obran jardun giñanean, gaueko bizitza an egiten genduan.

Gero, nere arreba esposatu zanean, Donostia'ko Loiola'n jarri zan bizitzen; eta Donostia'n gustora etzegoalako, lengo paraje zarrera joan ziran famili guztia. Aiuntamentuak bizitza ori an zegoan apaizarentzat utzi zuan. Urte batzuetan an bizitu ziran apaiza eta nere arrebaren familia.

Gero, arrebaren familia, Santa Krutz aurrean etxe berria eginda, aruntza aldatu ziran; eta apaiza gure etxera etorri zan bizitzera.

Etxe orren beko lokalean eskola jarri zuten ballarako neska-mutillentzat.

Orduko festak gozoak izaten ziran guretzat. Santa Krutz egunean erritik joaten ziran beren apaizarekin, amarretan meza ematera. Ondorenean, txistulariak eta dantza librea. Orduan etzan beste klaserik izaten. Dozena pare bat suzko ziriak edo etxafuegoak eramaten zituzten, eta gure osaba Joxe Agustin izaten zan aien kargu. Munduan festa geiago izaten zanik ez genduan pentsatzen. Gure ermitatxoa, dana beteta jendez.

Arratsaldean, gure arreba, beste lagun bat edo birekin, zerbait jateko eraman eta eskatzen zuanari ematen jarduten ziran. Ori, dirua zuanak. Besteak plazan dantzatzen, jango gendukenean. Orrela pasatzen ziran gure ballarako festak.

Beste egunetan, igandean zintzo danak mezetara, eta bazkalondoan iruretan errosarioa arratsaldeetan. Eta aruntza joan gabe, errosarioa pasa ta gero ez

azaldu plazara. Gure aitari etzion grazi aundirik egingo, errosarioa esatera ez bagiñan joaten.

Andik aterata, biltzen ziran aitonekin Don Salbador apaiza musean jarduten zan, aitona danak tentatuz. Illunabarrean utziko zion jokoari, eta Abe Marietakoa joko zuan elizara joanda. Gero, bere ondoren, aitona danak ateratzen ziran kanpora. Elizaren aurrean Anjelus errezatu, eta «Gabon pasa» esan danei eta gure etxera etortzen zan. Aitonak ere bai beraren atzetik, danak alde banatarara.

Gu soiñua jo eta dantzan ari bagiñan, soiñua ixildu eta errezatu egin bear izaten genduan beraien ondoan. Gero, gogoa bazan, berriz dantzatu. Iñoiz gelditzen giñan ordu erdi bat benik, illuntzeko gozoa aprobetxatzeko.

Gero, batzuk neska laguntzera iñoiz, eta besteak tabernara sartu, aitonak egoten ziran lekura, eta ardo pixka bat edanez. Batzuetan laister irteten giñan. Bestetan amabiak alde arte igual gelditu.

Orduan lege berdiña izaten genduan beti: bertsoa kantatu. Nai etzuanak, litro bat ardo ordaindu bear. Ni gustora asten nintzan kantari, zerbait moldatzen nintzan eta. Baiña baziran litro ardoa ez ordaintzeagatik kantatzen asten ziranak. Algara ederrik egiten genduan aien bertsoekin. Beste batzuk baziran, paragarri ez gelditzearren, litro ardoa ateratzen zutenak. Ardo faltarik ez genduan izaten.

Eta, Jaunari eskerrak, okasiorik ere ez. Pake ederrean partitzen giñan bakoitza geuren etxetara. Gaur aiña droga eta sesio-biderik etzan izaten orduan.

Apaiza etorri zanean, Santo Kristoa bakarrik zegoan aldare aurrean. Gero ekarri zituzten Ama Birjiña eta San Luis; eta, komunio aundia egindakoan, neskatzak Mariaren Alaben Kongregazioan sartzen

ziran, eta motikoak San Luisen Kongregazioan. Danak geuren igandea txandatua izaten genduan. Eta ezkonduak, Jesusen Biotzarena.

Nork bere igandea zuanean, bere zinta medallarekin eta ezkonduak eskapularioa burutik sartu eta bizkarrean eta petxuan beren estampa zutela, danak zintzo, tokatzen zan egunean. Gaur kontu oiek atzendu ziran. Oitura onak atzeratzen dijoaz, eta oitura txarrak indartzen. Orregatik gabiltza gabiltzan bezela.

Oraindik ere leku geienetan ikusten da festa-giroa eta lagunarte gozoa. Iraillaren 12'an ari naiz idazten, eta 18'an degu berriz biltzeko eguna. Pozez nago Gurutz Doneari bisitatxo bat egiteko, ondo banaiz beintzat. Espero det egun eta lagunarte eder bat pasatzea, Jaunari otoitz egiñez, urte batzuetan lagundu dezala orain arte bezela. Ango lagun zarrak ikusi ta berakin itzaldi bat egitea pozgarria da neretzako.

URKI'KO MEZA

Iru anai eta arreba azi giñan taloa eta esnea nai-koa janez. Babarrun faltarik ere etzan izaten. Janari sanoak ziran garai artan.

Nik bost urte nituala, nere aurrekoak zortzi urte zituan. Itsasondo'ko eskolara asi zan, eta ni ere asi bear nuala ez nion pakerik ematen aitari. Baiña sei urte arte etzuten eskolan artzen.

Aita joan zan maisuarekin itzegitera, eta esan omen zion zerbait ordaindu bearko zuala. Ea zenbat bear zuan, eta urtebeteko sei pezeta. Etxera etorri eta ala esan zidan:

– Nai danean joateko esan dik eskolara. Eskola ikasteagatik dirua pagatuta, motell! Sei pezeta eman zioat. Ikusiko diagu zer ikasten dean.

Ala asi nintzan. Don Markos genduan maisu ori. Iru kilometro bide, bost urte nituala, eta alare pozik. Zortzi urte arte an ibilli nintzan.

Etxetik eramaten genduan babarruna, eta gainean jateko beti zerbait: urdai-puskaren bat edo gazta. Ori ere etxean egiña izaten genduan.

Iturburu izeneko etxe bat an dago oraindik. An

egosten zigun potajea Maria zanak. Aspaldi il zan. Jaunak berekin dezala. Naiko ogia emateko esaten zion gure aitak. Bai eman ere, ala egiten zigun.

Arratsaldean, eskolatik ateratzean, meriendatze-ko beste ogi-puska bana artzen genduan, andik pasatzen giñan eta. Beste lagunak inbiri ederrak izaten zituzten. Baiña guk ezin eman, gerontzako gutxi zan eta.

Orrela ibilli giñan iru urtean.

Zazpi urterekin egin nuan komonio txikia esaten zitzaiona. Komonioak danak berdiñak izango dira. Baiña lenengoari txikia esaten zitzaion orduan; bigarrenari, aundia.

Lenego, konfesatzera joan giñan bi anaiak. Ura lenago komonioa egiña zegoan. Sartu zan konfesona-riora gure erretore jauna Don Seberiano Iurrieta. Nere anaia joan zan beragana, eta ni ere bai atzetik. Erretoreak, geroxeago joateko esanda bialdu nin-duan. An egon nintzan bankutik aiei biei begira.

Anaia atera zanean, joan nintzan nere pekatuak esatera. Zer pekatu ote ziran nere ordukoak? Besteren sagastitik sagarren batzuk artu edo amaren esanak egin gabe utzi. Orrelakoak izango ziran.

Andik aurrera etzegoan jaietan meza entzun gabe gelditzerik. Oso gaizki egon bearko zuan.

Igandean, erriko eliza nagusian, goizeko zazpi ta erdietan lenengo meza zegoan. Eguna baiño len ir-tengo ziran sasoiko danak gure auzoko lau etxeeta-tik, batez ere negu-partean, lasto-bala eskuan artu eta su emanda; eta beste bat lagunak beso azpian zuala. Etxetik irten eta berreun bat metrora biltzen ziran danak, argi batekin jeixteagatik.

Nere irakurleen artean egon litezke, lasto-bala zer dan ez dakitenak. Itaiarekin bi eskutada lasto

ebaki, eta andik zortzi edo amar bat lasto artu, eta erdia baiño beraxeagotik lotu, eta ari deitzen genion lasto-bala. Garai artan nola etzegoan gaur bezelako linterna aukerarik, al zan bezela ibilli bear. Lasto-bala bi edo iru lekutan lotzen zan, denbora geiago irauteko. Lasai utzita lenago erretzen zan.

Danak ez, baiña gizonezko geienak oin utsik etortzen ziran, eguraldi txarretan galtza-barrenak gora jaso eta abarka-mantarrak beso azpian artuta. Eliza baiño lentxeago badago, Iturri Txikia deitzen geniona. An anak garbitu eta sekatu, eta abarka-mantarrak jantzi eta elizara. Zer gozotasun izango zan aien anketan, bost kilometro oin utsik pasatu ondoren?

Bearbada, egon liteke zuen artean mantarrak zer diran galdezka. Galtzerdiak bezela, anak biltzeko izaten ziran. Berrogei bat zentimetro bi aldeetara, gutxi gora-bera. Tela baiño lodiagoak, mantaren modukoak.

Abarkak, berriz, ganadu-larruarekin egiñak. Biguntzeko ematen zitzaien baiñu bat. Oso gozo eta dotoreak gelditzen ziran. Baiña legorrik ibilli bear. Bustita bereala ondatzen ziran. Beraz, eguraldi txarretan oin utsik joan bear elizara.

Gaur, bost kilometro oin utsik eginda meza entzun bear bagendu, zenbat meza entzungo ote genituzke urtean?

Ni, berriz, mezetara asitakoan, gure amona oso zartua zegoan eta arekin joaten nintzan elizara, ari kontutan benik laguntzeagatik. Jetxi eta igo arek baiño azkarrago egiten nuan.

Ura jetxi ezinda jarri zanean, bere alaba bat zeukan Donostia'ko Bretxan, txerrikiak saltzen, diru piska bat egiña nunbait; eta, bere ama mezarik gabe ez gelditzearren, len esan bezela, gu sortu giñan etxe-

tik gertu dago Santa Krutz ermita deitzen zaiona, eta an meza emateagatik dirua agindu zion erriko erretoreari. Eta erretoreak, diru arekin etzegoala Urki'ra igotzerik erantzun omen zion.

Orduan, gure izeba orrek ixilik egin nai zituan lanak, baiña agertu bearrean gertatu zan. San Bizente'ko apaiz bati esan omen zion Urki'n meza jartzeko bazegoala dirua eman nai zuana, eta gure erriko alkateari abisatu zion apaiz orrek, eta alkateak gure aitari esan.

Laister esan zien bere lagunei. Bai preparatu ere Donostia'ra etortzeko. Etzekiten seguru, baiña pentsatzen zuten gure izeba izango ote zan. Berarengana joan omen ziran. Esaten asi ziranean, parrez ekin omen zion gure izebak.

Aitak orduan esan omen zion:

– Pentsatzen nuan, bai, etxekoa izango zala.

Bere aizpa eta bere etxeko illobak ez omen zekiten ezer. Esan bezela, ixilik egin nai zituan lanak. Baiña alperrik bere idea. Orduan esan omen zien nola zeuzkan iru milla duro jarrita Urki'rako, an meza izateagatik.

Ura entzun zutenean, ez omen ziran asarre gure aita eta bere lagunak. Auek, Migel Jose Aranzegi eta Migel Maria Irastorza ziran.

Irurak joan ziran Gasteiz'era. Orduan ez baizegoan Donostia'n gotzairik. Eta Gasteiz'ko gotzaiak esan omen zien beste iru milla duro biltzeko, eta jarriko zuala apaiza laister.

Asi omen ziran erri osoan diru eske iru gizonak, atez-ate. Bakoitzak zer ematen zuan, apuntatu egiten zuten, ez bazan etortzen apaiza, berriz dirua bueltatzekotan. Orrela ibilli ziran ballaran eta erri osoan diru billa.

Santa Krutz'ko ermitari tokatzen zitzaizkionak edo ballara ortakoak amazazpi baserri zeuden, eta beren iritzia artu zuten zazpireun eta berrogei eta amar pezeta bakoitzak ematea, diru ori osatzeko.

Amazazpi oietatik lau ziran maiztarrak, bestek beren etxearen jabeak, eta maiztarrei etzioten kendu nai, berak jarri zuten aiña. Esan zioten, berak bota zuten diruaren erreditua edo interesa botatzeko, 1925'etik asita, euneko bost.

Baiña maiztar batek, Migel Maria Irastorza'k, esan omen zien, etxe-nagusiak bezela jarriko zuala, eta ermitako lanetan ere besteak bezela. Beste iru maiztarrak gelditu ziran diruaren erreditua botatzeko.

Amairu etxe-jabeak auek ziran: Migel Jose Aranzegi, Ramon Mujika, Antonio Maria Etxeberria, Juan Anjel Sarasola, Antonio Maria Otegi, Jose Anjel Garmendia, Domingo Garmendia, Juan Maria Sarasola, Jose Joakin Otegi, Esteban Garmendia, Ramon Sarasola, Benito Barandiaran eta Frantzisko Lasa.

Beste lau auek ziran maiztarrak: Migel Maria Irastorza, Felix Lasa, Matias Artza eta Mateo Lasa.

Oietzaz gaiñera, erri guziaz pasatu zuten, eta erri-tik kanpora ere joan ziran. Gure aitaren senideak iru baziran: bat Zaldibia'n, bestea Astigarraga'n eta bestea Altza'n. Oiek ere ondo portatu ziran, batez ere beren amarengatik zala meza jartze ori jakinda.

Beste bat ere bazan, Pedro Otegi, lareun pezeta eman zuana. Ordizia'ko partean zegoan baserri ori. Baiña ermita ori egiten zitzaion egokiena etxetik. Mezetara bertara etortzen ziran. Ondo ordaindu zuan, baiña gero ondo aprobetxatu zan orko meza eta eskolarekin.

Jarri zituzten sei milla duro, baiña oraindik falta zerbait: meza emateko jantziak eta aldarearen liburu, kaliza eta beste gauzak.

Enteratu zanean gure izeba ori, beste milla duro eman zuan. Apenas pelukerian eta azkazalak pintatzen gastatzen zuan, baiña elizarako bazuan gogo. Orrela iritxi zan meza jartzera.

Bear zana bildu zutenean, Gasteiz'ko gotzai jaunak beregana eraman arazi zuan, Urki'ko iru edo lau gizonekin, Urki'ra etorri bear zuan apaiza: Don Salvador Irigoien, Oiartzun'go semea.

Bertan paper batzuk bete zituzten. Oraindik or dabilta 1925'eko paper oiek, eta onela diote: apaizari agindu ziola gotzai jaunak, egunero Urki'ko ermitan meza emateko, eta urteko soldata milla eta irureun pezeta, iru illabetetik iru illabetera ordaintzekotan tokatzen zana. Eskola ere jarri zioten emateko kargua, ballarako neska-mutil danei, ogei ta bost lagun arte; eta eskola emateagatik zortzireun eta berrogei eta amar pezeta urtean, ura ere iru illabetetik ordaintzekotan.

Gero, erriko Udalak elizaren ondoan dagoan etxea eskeiñi zion apaizari bizitzeko, eta ballara osoak gurdi bana egur ekartzeko kargua artu zuten, eta ondo txikituta jarri, surtarako moduan. Eta ez baldin bazan irixten gurdi banarekin, danen artean txandan bear zana ekartzeko agindu zioten.

Baiña etzuan egur bearrik izaten, gure etxean bizitzen zan eta. Seguru ez nago, baiña egurra ekartzeko partez, uste det dirua ordaintzen ziotela apaizari. Danen bearrak izango zituan. Ala ere, ez det uste aberastu zanic jornal orrekin.

Lenengo, gustora giñan meza bat jarri zigutenean. Asi giñan sasoikoak, lenengo mezetara danak

joaterik ez eta errira jeixten meza nagusira, besteak Urki'ko mezetatik etxera etortzen ziranean.

Gure ballaran akolitoak falta, ordea. Nik introitoak-eta ikasi nituan.

Gero, jantzi egin bear aldarera joateko. Nere arreba eta beste bi lagunek preparatu zituzten jantziak. Baiña ni oso txikia nintzan gaztetan. Asi ziran jazten, eta soñekoa lurrean arrastaka. Aien algarak neri begira!

Soka bat billatu zuten, eta lotu zidaten gerria. Tiratu zioten soñekoari, soka buelta emanaz. Meza-denboran ez nuan gerriko otzik pasatzen. Gero, gaiñetik jantzi txuri bat jantzi zidaten, eta dotore agertu nintzan aldare aurrean.

Apaizari kontestatzen nion. Baiña liburu aundi bat aldatu bear aldarearen alde batetik bestera. An nituan lanak, eroriko ote zitzaidan bildurrez. Baiña piska bat indartu nintzan, eta gero pozik.

Gure apaiz jauna oso eiztaria genduan. Bi zakur, erbitarako onak, edukitzen zituan. Udaran, gauean intza egiten bazuan, goizean lau ta erdiak aldera jeiki eta deitzen zidan meza laguntzeko, eta ni pozik ateratzen nintzan.

Biok joan eta meza ematen genduan. Gero, sakristian, pezeta zillarra ematen zidan. Ni Roschild bera baiño aberatsago, pezeta zillarra artuta.

Orduan pezeta zillarra, gaur milla erreal baiño geiago zan. Garai artan bi pezetarekin bazkari ederra zegoan. Gaur bosteun pezetarekin baiño obea. Nik nai bezin sarri etzidan deitzen. Neretzat Amerika baizan ura.

Gero egin zitzaigun ballaran bigarren meza jartzeko inbiria. Esan zioten apaizari, eta arek esan

zuan, gotzaiak agintzen bazion, emango zituala jai-egunetan bi meza.

Joan ziran Gasteiz'era gotzaiarengana apaiza eta beste iru lagun. Esan ziotenean zer nai zuten, zenbat gelditzen ziran meza gabe galdetu omen zuan. Ogeitik ogei ta amarrera esan omen zioten, eta orduan asteko bigarren meza ematen. Baimena eman omen zuan gotzai jaunak.

Danak pozik omen zetozen. Ordizia'raiño trenean etorrira, garai artan etzan trenik gelditzen Itsasondo'n, eta Ordizia'n irten ziran trenetik.

Itsasondo'ra bueltan zetozela, erriko parrokoa topo egin omen zuten, Ordizia'ra zijoala esanez; eta Don Salbadorri esan omen zion lagunduko al zion arziprestearengana joaten.

Don Salbador berarekin bueltatu omen zan; eta arziprestearen aurrean esan omen zion parrokoak, jakin zuanean bigarren meza emateko baimena zuala, ez emateko bigarren mezarik Urki'ko ermitan; parrokia triste gelditzen zala Urki'tik iñor jetxi gabe, eta jetxi zitezela batzuk benik.

Aita etxeratu zanean, esan zigun bigarren meza bagenduala; eta, atzetik apaiza etorri zanean, ez emateko agindu ziola parrokoak esan zuan. An utzi giñun len baiño tristeago. Ustez bigarren meza gendualakoan, an gelditu giñan lenago bezela.

Lenengo meza-denboran deitu zuan Don Salbadorrek, parrokoak zer esan zion, eta tristetu giñan danok mezaren faltan. Orrela segitu zuan, bera Urki'n izan zan bitartean. Iru urte pasatu zituan gurekin.

Gure aitak pena aundia izan zuan, gotzai jaunak agindutakoa galeraztea parroko batek; eta egun batean gure aitak naikoa esan zion Don Salbadorri:

berak nai izan balu, baimena bazuala meza emateko; ea zertan etzan asi ematen.

Oso gaizki artu zion apaizak. Egun batzuetan triste ibilli ziran biak alkarrekin. Baiña ain zan biotz onekoa eta etzuan balorerik izan parrokoari kontra ematen asteko.

Gero, eskola ere jarri zuten bertan, apaizak mai-xu-lanak egiten zituala. Gustora giñan gu orduan.

Ortaz aparte, gure etxean jarri zan bizitzen. On-do bizitu giñan berarekin. Guretzat aita bigarrena izan zan. Iru urte egin zituan gurekin.

Arek orrela bukatu zuan Urki'n egon zan denborakoa. Garai artan uste det, meza berria ematen zutenean, erri txiki edo ballaretan iru urte egin bear zituztela apaiz gazteak.

Nunbait berak eskatuko zuan, iru urte pasatu zituanean, eta Billabona'ra aldatu zan. Pena ederra utzi zuan gure etxean. Baiña etzituan arek ere zorion danak izan.

Gerra etorri zanean, Avila aldera joan bear izan zuan gizarajoak. Gerra bukatu zanean, berriz etorri zan erri ingurura, eta azkenean bere sorterrian eman zuan azken arnasa. Zeruan gerta dedilla.

Illabete batzuk pasatu genituan apaizik gabe, eta esaten genduan, edo esaten zuten gure aurrekoak, errira jeixteko obligaziorik ez geneukala, apaizik ez gendualako; eta igande-goizean, mezetarako orduan, danok bildu eta errosarioa errezatzen genduan.

Neroni jardun nintzan igande geienetan erreza-tzen. Lenago akolito ibiltzen nintzan, eta gero ere errezatzeko kargua neri jarri zidaten ballarakoak. Danok ura errezatu eta bakoitzak geuren etxeetara partitzen giñan.

Illabete batzuk pasa ta gero, etorri zan beste

apaiz gazte bat: Don Jose Zubizarreta, Azkoiti'ko semea.

Larunbata-egun batean agertu zan, eta neri agindu zidaten ballara guztian abisoak ematera joateko: urrengo egunean lengo orduetan meza izango zala. Jendeari poz ederra jarri nion.

Lizardi'tik asita, etxero ardo trago bat eman zidaten. Ballarari buelta ematerako, bete nintzan ederki. Azkenean, lasto-bala bat eskatu nion Domingo Sorrondegi baserrikoari. Ura piztu eta etxera abiatu nintzan, al nuan bezela. Bide asko pasatu baiño lenago, erre zan nere lastoa. Batzuetan zutik, eta bestee-tan lau oiñean ibillita, ez nintzan oso garbia iritxi etxe aldera.

Anaiak parre egiten zidan. Ama konturatu zanean, kafe piska bat eman eta oiera bialdu niñun. Urrango goizerako pasatu zan.

Dana dala, asi giñan meza bat beintzat entzuten.

Lengo apaiza oso ona genduan. Baiña urrengoa ezin esan txarragoa zanik. Ballarari mesede ederrak egin zizkion. Ainbeste lanetan lagundu zion: bateko, argia jarri; telefonoa ere bai; kamiñoa ere egin arazi nai izan zuan. Zerbait irixteko bazekian nun aldaba jo.

Gure aitak esan zion nola izan ziran Gasteiz'era joanda, bigarren meza emateko baimenaren billa; gotzai jaunak baimena eman eta erriko parrokoak ez emateko esan ziola lengo apaizari.

Bigarren etorri zanak etzuan parroko bearrik izan. Eskutitz bat bialdu zion gotzai jaunari, eta bueltatu zion esanez ea oraindik ez al zan ematen bigarren mezarik; urrengo igandean asteko.

Ala, lenengo igandean deitu zuan, urrengo igan-

dean bi meza izango zirala. Jendea pozik jarri zan, ori entzun zutenean.

Enteratu zanean, erriko parrokoak laister deitu zion zeñen baimenarekin bigarren meza eman zuan, eta jeixteko berarengana.

Besteak etzuan bildurrik arrazoiarekin edozeñen aurrera joateko, eta laister jetxi zitzaion gotzaiaren eskutitzarekin.

Parrokoak galdetu omen zion ea zeñek aginduta asi zan bigarren meza ematen. Besteak, poltxillotik atera eta gotzaiaren eskutitza erakutsi. Ura irakurri zuanean, esan zion:

– Bide ortatik asi al aiz?

Baiña etzeukan ez emateko ari esaterik, alperrik zan eta. Oso jakintsua eta bizkorra zan Don Jose ori.

Geroztik, entierroko mezak ematera deitzen zion parrokoak. Beren juntak egitera ere bai. Baiña ura bere lekuan jartzen zitzaion. Arekin etzuan izan nagusitza-lanik egiterik, gauza askotan berak baiño geiago zekian eta. Beren ideaz ere oso ezberdiñak ziran; eta zerbait izketatzen baziran, alde guzietara ixildu arazi egiten zuan.

Andik aurrera, igandero bi meza emaneg segitu zuan.

Ermita guzia ere, Azkoiti'tik bere lagun bat eka- rri eta dana pintatu eta dotore asko jarri zuan.

Garai artan, etxeetako argia karbueroarekin eta olio-kinkarekin izaten zan. Bazegoan gure etxetik beko errira-bidean ur-manantial bat, iñork aprobe- txatzen etzuana. Ura ere bereganatu zuan. Deposito eta ur-salto bat egin ere bai. Ballara guzia edo geiena auzolanean jarri arazi eta amalau baserritara argia ekartzea iritxi zuan. Legortea zanean, gaizki ibiltzen giñan. Gero, beste aldetik, erreka batetik zijoazen

urak artu zituzten, naiko argia izan zedin. Kontentu jarri giñan, argi-indarra etxean ikusi genduanean.

Urrutizkin edo telefonorik ere ez geneukan. Ori ere iritxi zuan, gure etxean jarriz, bera ere gurekin bizi zan eta.

Gero, bidea egitea falta genduan. Iru kilometro oiñez ibilli bear izaten zan, eta oso bide txarra askotan. Egiñalak egiten ari zala, agindu zioten laister egingo zutela.

Baiña zoritxarreko gerra sortu zan 1936'an, eta arek ondatu giñun danak. Don Jose Zubizarreta apaizak danak utzi eta Frantzia'ra alde egin bear izan zuan. Arek irixten zituan lanekin, askok ezin ikusita zeukaten; eta gauza onik etzuan espero eta iges egin zuan. Eskerrak joan zan. Bestela, gaizki artuko zuten.

Nere bi anaiak soldadu eramán zituzten. Ni, irugarrena, beste bi aurretik joan ziralako, libre utzi niñuten, legea ala jarrita baizegoan. Aita eta amarekin bakarrik etxean gelditu nintzan.

Lenago, bi anai eta morroi bat izaten giñan etxean. Bigarren anaia, Migel, apaizetarako estudiantzen Gasteiz'en egoten zan. Zortzi urte zeramazkian karrera ortan. 35'eko kintoa zan. Soldaduska egiñez, segitu zion bere estudioari. Lizentziatu eta, ogei egun barru, gerra etorri zan. Orduan bera ere eramán zuten.

Ustez bera gendukan seguru zebillena. Kamioiarekin munizioak partitzen ibiltzen ziran, frentetik oso urruti, berak abisatzen zigunez. Baiña gau batean, Zaragoza'ko polboriñean lotan zeudela, gorrien aideplanoak etorri eta bonbardeatu, bertan bonba bat sartu, an ziran munizioei su eman eta barruan zeuden danak an il omen ziran. Bere lagunik aundiena, Za-

ragoza'n bertakoa, kanpoan guardia egiten tokatu omen zan, beste bost lagunekin. Orrek deitu zigun nola il zan, eta berak gorde zituala kazadora eta relojua, eta billa joateko.

Anai zarrena, permisoarekin etorri eta etxean gertatu zan, eta bera joan eta ekarri zituan. Ortan bukatu zan gure senidea eta bere karrera. Geiago ez genduan ikusi. Gure pozak bertan bukatu ziran.

Aitarekin ni bakarrik gelditu nintzan, doble lan egiñez. Etzan motza izan zoritxarreko gerra ori. Noizbait bukatu zan.

Anai zarrena etorri zanean, nik, nere kinta etxera etorri arte, soldadu joan bear izan nuan. Erderaz itzik ez nekian, eta Iruña aldean instruzioak ikasten erabilli nituan komeri ederrak.

Iruña'tik Etxalar'era eraman giñuzten. An, base-rritarren artean sartu nintzanean, gustora nintzan ni. Sei illabete pasatu nituan. Naikoak ziran neretzako.

Gero, anai zarrena esposatu zan, eta urte betean berari laguntzeko esan zidan, saria ordainduko zidala; eta ala egon nintzan.

Don Joserren ondotik, izan dira beste apaiz batzuk gure ballaran, iru edo lau bat. Baiña nik ere alde egin nuan eta gutxi ezagutu nituan besteak.

Bertan egoteko apaizak bukatu ziranean, erriko koajutorea igotzen zan igandeetan Urki'ra. Urte-sail ederra pasatu zuan, oiñez iru kilometro gora eta beste iru bera egiñez.

Ogei ta bost urte bete zituanean, omenaldi bat egin zitzaion Urki ballaran. Ermitan sartzeko jende geiegi izango zala eta, ondoan zegoan nere arrebaren soro-zelai bat eta antxe meza eman zuten. Baziran iru edo lau apaiz, eta jende-talde ederra ere bai.

Lau bat bertsolari ere bagiñan. Ballarako jendea-

ren partetik erregalo bat egin zitzaion. Eguraldi ederra gertatu zan. Ermitaren aurreko plazan bazkaria eman ziguten, eta bazkalondoan etzan bertso faltarik izan.

Gero ere urte batzuk pasatu zituan bere buelta egiñez. Baiña azken aldera bidea jarri zuten kotxearekin igotzeko moduan. Bertan meza entzun nai zutenak, kotxean artu eta eramaten zuten.

Oso gizona egoten zan. Martin Iztueta zuan izena, baiña Potxolo deitzen zioten. Ernialde'ko semea zan. Gizon jator askoa bai. Andik urte gutxira etorri zitzaion bere eriotz-ordua.

Geroztik, erriko parroko Iñaki Larrañaga jauna igotzen da bere kotxearekin. Errian bertan meza eman eta andik ordu betera Urki'n ematen du bes-tea.

Gaur ikusten da apaiz-eskasia sortu dala. Lenago errian bi apaiz izaten ziran, eta Urki ballaran bestea. Orain bat bakarra danetarako. Leku askotan lan gutxirekin dabilzala entzuten degu. Baiña apaizak gero ta geiago. Bi edo iru erritan bakarrak egiten ditu gaur meza emateko lanak. Gure gazte denboran, Eguberri-egunean eta Animen egunean ematen zituzten iruna meza. Gaur, berriz, igandero ematen dituzte iru edo lau bakoitzak. Eskerrak kotxeak dauzkatela bideak korritzeko. Oiñez joan bear balute, egun guzian erriz-erri ibilliko ziran.

Etorriko al da apaizetarako beste zaletasunen bat! Len, garai batean, seminarioak beteta inun kabitu eziñik ezagutu genituan. Lenago ere izan omen ditu erlijioak otzaldi aundiak. Gaur ere badarabilzki bajatu-aldi ederrak. Nik uste det sinismenik ezak ekarri dituala oker auek danak. Ea zerbait mudatzen ikusten degun.

Gu gazteak giñanean, iritxi zan apaiza meza eta eskola ematen zuala. Alde ederreko alaitasuna ikusten zan gure ballaran. Baserri guziak jendez beteak. Zortzi edo amar senideko familiak edozein etxetan, al zutenak kanpora lanera joaten zirala, eta etxean ganadu-sail ederra.

Biderik etzegoalako asi giñan danak alde egiten. Eta orain iru famili, eta irurak laister bukatuko dira. Ermita bakarrik geldituko da.

Eskerrak kotxeak joateko bidea egin zuten. Bertan etxeak dauzkatena, udara-partean beintzat, ostiral-gauerako igotzen dira, laruntaba eta igandea bertan pasatzeko. Igande-goizean, bertan lo egin dutenak eta mendira ateratzen diranak, antxe alkartzen dira Elkarte edo Soziedadean. Meza ematen segituko al du norbaitek! Eta eskerrak orri. Bestela, gu sortu giñan ballara arbolak eta sasiak tapatuko luteke. Norbait agertu dedilla beintzat, olakorik gertatu ez dedin.

Ematen du ballarako jendeak eta Itsasondo'ko erriak asko maite dutela Santa Kruz ermita ori. Aspaldian obrarik egin gabe zegoan eta konturatu ziran tellatuko ituteekin ondatzen ari zala; eta pentsatu zuten tellatua zuzentzea. Ermita dago alde batetik, ballarako etxea edo Elkartea, eta bestetik pelotalekua, tellekin estalia ura ere.

Esan zioten bi edo iru anairi. Arotzerian jarduten ziranak berak, Itsasondo'ko Otadizabal baserrikoak. Oiei eskatu zioten zenbat dirutan egingo zuten. Aiek beren kontuak atera ere bai. Baiña tellatuak kentzen asi ziranean, billatu zituzten azpiko egur danak usteldu eta erortzeko zorian zeudela. Eta orduan, zuzentzera tellatura joan ziranak esan zuten ura etzegoala ala uzterik. Tellatu ura lurrera zijoala.

Orduan, erriko alkateak deitu zioten ballarako etxe-jabe danei, eta gastu aundiak zetoze la tellatua zuzenduta; bertan utzi edo zer egingo zan; danak ezin zezazkeala erriak egin; obispadura abisatu bear-ko zala, ea elizagatik zerbait ematen zuan.

Etorri zitzaidan illoba bat, esanez nik banuala obispaduan lagun bat –Don Imanol Aldaregia da bera–, eta ea esango al nion zerbait. Pozik asi nintzan berari deika. Telefonoz ez nuan itzegiterik izan. Joan nintzan bera egoten zan tokira, eta ez nuan topatu. Kanpora atera zala eta amabietarako etorriko zala esan zidan atearen kargu zeukan neskatxak. Itxogin nion amabiak arte, baiña etzitzaidan azaldu.

Urki ballarakoak kejatzen ziran eliza orren garbitasunik etzala agertzen.

Ondorengo egun batean, anai zanaren emazteak, nere koñatak, deitu zidan Ordizia'tik telefonoz: Urki'ra apaiza etorri zanean egindako paperak billatu zituala; eta, nai banuan, ikustera joateko.

Urrengo egunean bertan joan nintzan, eta irakurri ere bai an zeuden paper danak. Bertan esaten zuan noiz etorri zan eta zer lan jarri zioten eta zer sari izango zuan, eta jendeak zer obligazio artu zituan. Ermitaren esku-lanak ballararen kargu. Etzegoan beste gastuak zeñek egingo zituan garbitasunik.

Paper oiek irakurri nituanean, pentsatu nuan Urki'ra igotzea, nere suiarekin nenbillen eta. Etzitzaidan damutu, ikusi nituanean tellatuak arreglatzen lau edo bost lagun ari zirala. Ia bukaeran zeukaten ballarako etxea. Ermita eta pelota-lekuan azkenean ari ziran. Elizari alderdi bateko pareta berritu zioten ederki. Pelota-lekuari, ia erorian zeukana bota eta blokeekin altxatuta jarri zuten. Eta eliza barrenean, ballaran bertan sortutakoak, eta ballarako alabekin

esposatutakoak ere bai, zortzi edo amar bat lagun an billatu nituan, danak beren etxean bezela lan egiten ari ziranak. Zer poz artu nuan, ura ikusi nuanean!

Iru edo lau bat lagun paretak barrendik garbitzen. Lengo mortero zarrak danak kentzen ari ziran, umedadearekin ondatuta zeudenak. Autsez beteta, zein ziran ezagutu ezin ziran moduan zebiltzan. Bildurra ematen zuan ainbeste auts tartean nola ari ziran ikusita.

Ni joan eta berealaxe iritxi zan erriko alkatea. Berarekin itzezin nuan eta esan zidan obispadutik ere bi apaiz izan zirala, ikustera joanda. Nik uste nuan baiño aurreratuago zebillen alkatea. Bertan izan ziran apaizak, Don Jose Maria Madina eta Don Jose Maria Zunzunegi izan zirala. Berak agindu omen zioten alkateari nola jarri elizaren goia, tellatua bistan zala, ondo pintatuta.

Ikusi nuanean lanak aurrera zijoaztela, alaitasun ederrean jetxi nintzan.



Bizente Barandiaran eta Xabier Zeberio bertsolariak, bertso kantari.

BEIZAMA'KO ILKETA

Beizama'ko Gorosagasti baserrian, 1926'garren urteko azaroaren 14'ean, ama-alabak ilda agertu ziran: Bibiana Okariz, irurogei ta sei urtekoa, eta Maria Juana Odriozola, ogei ta zazpi urtekoa. Biak bakarrik bizi ziran baserri ortan.

Nik bederatzi urte nituan orduan. Ala ere ondo gogoan daukat gertaera negargarri arek gure ballarari eman zion astiñaldia. Gorosagasti'tik urruti ez baidago.

Aserako zeaztasun batzuk Pako Aristi egunkarizaleari artu dizkiot. Gai ontaz bi artikulu argitaratu baizituan *El Diario Vasco* egunerokoan, 1986'ko azaroaren 12 eta 19'an. Gaiñontzeko zer esanak, berriz, orduan nik ikusi eta entzunak dira, edo orain jendearen aotik ikasiak, galdezka ibilli naiz eta.

Jazinta Odriozola, beste alaba, Tolosa'n bizi zan, ango *Zeru-txiki* tabernan lana egiñez. Igande artan, eguerdiko amabiak aldera joan zan baserrira, ama eta aizpa bisitatzera.

Atea erdi irikita zegoan. Barrura sartu eta izututa geratu zan: aizpa, eskillara barrenean zegoan ankaz

gora, bular aldeia ebakita, eta sukaldea odolez betea. Ia bere onetik aterata, oiuka asi omen zan amari deika, eta iñork erantzuten ez.

Orduan gertuena zegoan baserrira abiatu omen zan: Garagartza'ra. Baiña irureun bat metrora, bere ama ilda billatu zuan. Buruz bera omen zegoan, eta bizkarrean zeuzkan zauriak.

Orduan, amaren gaiñetik ez pasatzeagatik, berak esan zuanez, Txapartegi baserrira, urrutiago egon arren, joan omen zan, ikusi zuanaren berri tristea ematera.

Kanel, etxeko txakurra, alaba illaren ondoan omen zegoan; eta farol bat amaren ondoan.

Aita aspaldi illa omen zan, eta bi seme Ameriketara joanak, dirua irabazi eta soldaduska ez egiteagatik.

Zauriak kutxilloz egiñak zirala ematen omen zuten. Etzegoan beste arrastorik ateratzerik. Ala ere, illabete barruan dana argitu omen zuan Pedro Marroquín juezak, bere ustez beintzat.

Frantzisko Aranburu eta bere anaia, Jose Inazio, artzaiak, izan omen ziran lenengo detenituak. Urrena, Jose Manuel Oiarbide. Ondoren, Isidro Aranburu, Beasain'goa, Jose Migel Urkizu, beizamatarra, eta Juan Frantzisko Mendizabal, beizamatarra bera ere. Azkeneko iru auek laister askatu zituzten.

Jazinta ere detenitu zuten. Deklarazioak artu eta libre utzi. Baiña laister berriro sartu. Oraingoan, dana amaitu arte, etzuten libratu. Aseran negarra besterik ez omen zuan egiten. Gero bera izan omen zan gure auzoko Mujika eta Arantzegi bi familien kontrariorik aundienetako bat.

Beste asko ere detenitu arazi omen zituan Marroquín juez orrek: ijito-talde bat, Martin Artola Be-

daio'ko artzai bat, Goizueta'ko baso-mutil bat, Jose Antonio Irazustabarrena Ormaiztegi'ko tratantea. Baita libre utzi ere, errugabeak zirala ikusitakoan.

Juezaren iritziz, gauzak onela gertatu ziran: krimena gauzez egin zan, amaren ondoko farolak adierazten zuanez; eta ostiral-gauean ziur asko, larunbatez ez baiziran ama-alabak, oi zutenez, Tolosa'ko merkatura azaldu. Oieratzeko asmotan zeuden, iltzailleak atea jo zuanean.

Itxurak diranez, Maria Juanak atearen goiko alde irikitakoan, iltzailleak ebaki izugarri bat egingo zion bularrean, ezkerretik eskubira. Orduan, alaba eskillaretan gora igesi asi, amarengana noski. Au oiean zala esan nai du orrek. Baiña ia igo zanean, atzeraka erori. Eskillarak odolez bustita baizeuden.

Ama, aren karrasiak entzunda, etxe atzetik aterako zala. Iltzailleak, ori ikusi eta segi, farolaren argiaz; eta, arrapatu zuanean, kutxilloa bizkarretik sartu.

Aurrena, iltzaillea lapurretara joango zala pentsatu zuten. Baiña Gorosagasti baserria pobrea zan. Maiztarrak ziran, eta nagusiari milla eta berreun pezeta zor omen zizkioten. Batzuek esan zutenez, txekorra saldu berria zuten, eta aren dirua etxean euki zuten zutelakoan joan ote zan. Baiña diru ori artu zutenean, Aurrezki Kutxa edo Bankuan Tolosa'n sartua omen zeukaten. Besteak zioten, gorrotoa zeukan batek agindu ta egin ote zituan eriotz oiek. Gauza garbirik etzan azaldu.

Amaren orpoak odolez zikinduta omen zeuden, baiña alpargatak garbiak. Orrek esan nai zuan, alabak bota zituan odoletan oin utsik pasatu zala, eta gero alpargatak jantzi. Itxura zanez, ama oiera joana zan; eta, karrasiak entzun zituanean, oietik jeiki ta

anka utsik jetxi zan alabarengana. Orduan bustiko zituan oiñak. Gero, odolak zerbait legortuta jantzi zituala alpargatak; eta, alaba illik ikusi zuanean, etxetik alde egin zuala.

Iltzaille orrek ez omen zuan izango ama iltzeko asmorik. Bestela, etzion utziko alde egiten. Baiña gero nunbait bildurtu, berak galduko ote zuan. Igual izango zan bere ezaguna. Orregatik pentsatuko zuan ama ere iltzea, etxetik atera ta laguntza eske zijoala ikusi zuanean.

Zauriak aundiegiak omen ziran labana normal batentzat. Ardiei illea mozteko guraizak dudarik gabe esaten zuten; erdiko tornilloa kendu eta guraiza erdiarekin egiñak.

Batzuk kartzelan sartu eta deklarazioak eginda bialtzen asi omen ziran. Frantzisko Aranburu artzaia eta Jose Antonio Irazustabarrena tratantea bakarrik omen zeuden kartzelan. Frantziskoren borda ondo miatu zuten, ezer armarik billatzen zuten. Baiña ez omen zegoan zato ardoa, bujanda bat, babarruna, ogia eta gazta besterik.

Aldaola-beko baserriko Jose Inazio ardi askoren jabea zan. Neronek ezagutu nuan ondo. Beizama'ko terrenotan ardiak ibilli oi zituan. Basoa libre uzteagatik, Beizama'ko erriari urteko zortzi edo amar pezeta ordaintzen omen zizkion.

Aiek ordaintzera joanda, Beizama'n galdetu omen zioten ea errotarik gertuena nun zegoan; eta esan omen zien Itsasondo'ko partean bi errota zeudela: bat, Zubin baserrian; bestea, Lizardi baserrian, gertuena zegoana.

Orduan paper bat eman omen zioten Lizardi'ko errotakoei entregatzeko, eta berari laguntzeko Al-

daola-goiko baserriko Manuel Unanue lagun artuta etorri omen zan Lizardi'ra.

Ez dakit seguru paper ortan zer abiso ekarri zuten. Baiña Beizama'n edo Azpeiti'n presentatzeko izango zan. Ordutik zuten lenengo asera Lizardi baserrikoak, eta emazte Madalenak esan omen zuan:

– Zer egingo ote digute?

Eta Migel Jose senarrak:

– Lasai egon zaitea, orain danekin orrela ibilliko dira eta.

Lenengo deklarazioak artu eta etxera bialdu omen zituzten. Baiña urrengo egunean danak kartzelara eramateko agindu omen zuan Marroquín juezak. Eraman zituzten Migel Jose Aranzegi, Jose Joakin seme zarrena, Jose Antonio seme gazteena eta iru alaba: Fermina, Joxepa Iñaxi eta Luzia. Beste baserritik eramán zituzten Bizente Mujika eta bere alaba Maria Joxepa; eta Ramon, Bizenteren anaia eta Maria Joxeparen senarra, osaba-illobak zeuden ezkon-duta eta. Bi etxeetako amak, Madalena, Migel Jose-ren emaztea, eta Dominika, Bizenteren emaztea, biak edadekoak ziralako, beren alabarik gazteenak amari laguntzeko etxean utzi zituzten: Mikaela, Bizenteren alaba, eta Maria, Migel Joserena. Bi etxeetatik amar lagun eramán zituzten.

Danak kartzelan banaka jarri omen zituzten, alkar ikusten etzutela. Egunero deklarazioak artzera eramán arazten zituzten.

Egun batean –Ramon Mujika'k kontatzen zigun–, juezak esan omen zion beste danak il zituztela eta, aitortzen bazuan zein zan kulpantea, bizirik utziko zutela; bestela, arekin ere berdin egingo zutela. Eta Ramonek erantzun omen zion, gezurra aitortzea baiño naiago zuala iltzea. Orduan, «*Pronto caerás*» esan

eta ostiko bat emanda, bialdu omen zuan berriro kartzelara.

Atea itxi eta alde egin ziotenean, giltza-zulotik kanpora begira omen zegoan, eta bere emaztea ikusi omen zuan nola zeramaten mikeleteak deklarazioak artzera. Orduan pentsatu omen zuan dana gezurra zerabilkiala juezak.

Beraren anaia, Bizente, eraman zuanean, galdetu omen zion juezak ea noiz aitortu bear zuan zein zan kulpantea. Eta aren erantzuna: eriotza orrekin etzeukala zer esanik, etzekiala ezer eta. Orduan, lapitz bat eskuan zuala, okotzaren azpitik gora jo omen zuan juezak; eta, lapitzaren puntarekin zuloa eginda, odolatan utzi omen zuan. Orduan Bizentek, besteak ere odoldunak zirala jenio txarrean esan omen zion juezari; eta onek, bultzada bat emanda, atetik kanpora bialdu omen zuan, kartzelara berriz ere.

Era orretan ibilli arazi zituzten danak. Ondoren, Jazinta Odriozola ori pekatari bezela ibilli omen zuten; eta gero uste det juezaren laguntzaille jarri zala. Batzuetan parrez eta urrengoan edozeiñen kontra itzegiteko preparatzen omen zan.

Nik ez dakit garai artako egunkari-zaleak berak asmatzen zituzten edo Marroquín'ek agintzen zien zer jarri. Egunero jende guzia egoten zan egunkariaren zai, zer kontu jartzen zuan jakiteko.

Egun batean ekarri zuan Migel Jose artu zuala juezak, eta esan ziola ea noiz deklaratu bear zuan egin zituan krimenak; eta Migel Josek erantzun zion etzeukala krimen oiekin zer ikusirik. Eta Jazintak galdetu omen zion Migel Joseri, ea ez al zuan deklaratu nai, goizeko ordubietan, krimena egin eta etxera iritxi ziranean, bere alaba gazteenarekin atariko erre-kara joanda, Gorosagasti'n erabili zituzten erropak

alabak garbitu arte, farolari eusten egon zala. Ori, gure etxean orduan zegoan apaizak sukaldean irakurri zuan.

Beste batean, egunero zai egoten zan eta, irakurri zuan Azpeiti'ko Juzgaduan Urki'ko apaiza deklaratzan ari zala nola konfesatu zion Migel Josek bera izan zala krimenak egin zituana.

Famili oiek ezagutzen etzituztenak, sinistuta egoten ziran, oinbeste gezur irakurri ondoren, kulpan-teak aiek ziralakoan.

Gero eraman zituzten Migel Joseren seme bigarrena, Martin, eta bere sozio laguna. Legorreta'ko Beroztegi ballarako Frantzisko Lasa zan lagun ori. Bien artean, Tolosa'n zerra bat erosi zuten amalau milla duro ordainduta, eta aurreko igandean Murumendi aldean intxaur arbolak ikusten ibilli omen ziran. Ortaz enteratu zanean, aiek ere kartzeleratu egin zituan juezak.

Orduan amalau milla duro gaurko berrogei eta amar milloi aiña baziran; eta, ikusten zanez, Frantzisko Lasa orri, zerra eta terrenoak erosteko dirua, beraren anaiak, etxean ezkondata zegoanak, Juanek, jarri izango ziola jendeak esaten zuan.

Bere anaia kartzelan sartu zutenean, Juan ori larri: anaia kartzelan eta emandako diruak aidean.

Eguna joan eta eguna etorri, lau bat illabete pasa ziranean, Lizardi-beko Migel Mari Irastorza, gurdi egurrarekin panaderira eramateko; eta mendi-bideetan gurdiari karga aundia ez jartzeagatik, atzetik erantsi eta bi arbola adar arrastaka ekartzen zituzten. Eta kamiño ondora iritxitakoan, moztu eta orduan guardiaren gainean jarri.

Aiek mozten ari zala Migel Mari, etorri omen zitzaion Juan errotakoa, Frantzisko kartzelan zegoa-

naren anaia, eta galdetu omen zion ea zer zion jendeak kartzelan zeudenengatik.

Migel Marik erantzun omen zion, dana gezurra esaten ari zirala; Lizarditarrak etzeukatela ezeren kulparik.

Orduan, buelta eman eta alde egin omen zion. Migel Mari, bere gurdi egurrarekin, Ordizia'ra joan omen zan panaderira. Ogiaren truke eramaten zuten egurra. Gure aitak ere, amar ogi lau librakoren truka eraman oi zuan.

Ordizia'n gurdia ustu eta bueltan Beroztegi'ra iritxi zanean, lenago kargatu zuan tokira, jende guzia bueltaka an omen zebiltzan.

Ala jendea ikusi zuanean, galdetu zuan zer pasatzen zan. Eta lenago berari galdezka egon zan Juanek, errotaren ondoan zeukaten baserri zar bat, Kastilla izena zuana, eta an ganbarara joan eta bere burua urkatu zuala esan omen zioten.

Laister konturatu izango ziran. Beraren amak itaiarekin moztu omen zion soka. Bizirik zegoala ematen omen zuan. Alegiñak egin omen zizkioten, lurrera jetxita. Baiña danak alperrik. Emaztea eta alaba Maria Luisa, artean oso umea, utzi zituan.

Enteratu zanean Marroquín jauna, beraren anaia eta Martin sozio laguna etxera bialdu omen zituan, eta beste danak gela batera bildu.

Orduan zerbait egin bear. Gure aitari bi pelota eta karta pare bat edo bi eramateko agindu zioten kartzelan gelditu ziran oiek, eta kazuela-jaten batzuk ere bai.

Jatena preparatu eta eramateko eskatu ziotenean, gure etxean jana maneatu eta gure aita eta ama zanaren anaia, Bizente nere aitapontekoa, zesto ba-

tean kazuelak artu bizkarrean eta oiñez joaten ziran Azpeiti'ra.

Urki'tik atera eta Lizardi baserrietan, kartzelan zeuden bi famili oien ateetatik pasatzen ziran. Seguru, aiek ere zerbait emango zioten etxeko familikoei eramateko. Bat nekatzen zanean besteak txanda egiñez zestoa eramaten zuten.

Lizardi'tik Zategi'ko zelaira ateratzen ziran. Andik Gorosagasti gertu zegoan. Zategi'tik bera, Iutza deitzen zioten puntu bat da. Mandubi'tik Azpeiti'ra zijoan kamiñoan an sartzen ziran, Urrestilla'tik Nuarbe'ra bitartean. Andik lenengo Nuarbe zeukaten. Urrena, Urrestilla. Andik Azpeiti'ra. Trenik eta kotxerik usatu gabe buelta egiten zuten. Seguru ez dakit, baiña zortzi bat kilometro gutxienez egongo dira kamiñoz bakarrik. Dana oiñez pasatzen zuten.

Kartzelako atean kontu-saio bat beren aiekin eginda, urrengoan joaten ziranean ekartzen zituzten eramandako kazuelak. Lenengo biajean zesto utsarekin etorri ziran bueltakoan. Urrengoetan, kazuela beteak eraman eta utsak ekarri.

Esaten omen zuten, zeuzkaten diruak etzituztela bestek gastatu bear danak, eta al zuten ondoena jenez egoten ziran. Bakarrik baiño argiago beintzat, bi famili alkarrengana bilduta. Beste illabete pare bat orrela egin zituzten.

Bitartean, alegin guzia ballarako jendeak egiten zioten. Kartzelara joan ziranean, soroak garia ereiteko zeuzkaten. Ballarako etxe danetatik lagun bana eta batzuetatik bi joaten ziran. Soro guziak laiatu eta garia bota. Bertako ganaduekin arearekin nastu eta jarri zizkioten.

Kartzelatik atera ziranean, gariak laister ebakitzeko moduan zeuzkaten. Ikusi zuten ondo ballaran

maiteak zirala. Uste det auzoak pozik egiten zutela dana.

Sei bat illabete pasatu ziranean, Migel Jose eta bere seme zarrena, Jose Joakin, kartzelan utzi eta beste danak libratu zituzten. Orduan, aien berri etzekitenak:

– Kulpanteak or gelditu dituk –esaten zuten.

Penagarria zan, aiek ezagutzen zituanarentzat; eta an gelditu ziranentzako, oraindik pena geiago.

Beste bi illabetean egon ziran aita-semeak bakarrrik. Baiña kontzientzia lasai zeukaten, eta noizbait irtengo ziran esperantza osoa. Bi illabete pasatu ziranean, bialdu zituzten biak etxera.

Erri osoa zai zegoan, beraiei ongi etorria edo agurra egiteko; eta pentsatu zuten erri osoak bi famili oiei omenaldi bat eskeintzea, bazkari bat egiñez.

Itsasondo'n badago oraindik Kalea izeneko taberna bat. An egin zuten bazkaria erriko danak, esateko; eta inguruko errietakoak, asko.

Orduan taberna ori Jose Anjel Izuzkitza erriko sekretarioarena zan. Orrek zeukan taberna ori. Jose Anjel bera ere izan zuten kartzelara eramanda, deklarazioak egiten. Baiña bereala bialdu zuten.

Bazkalondoan, danak elizaren ondoko pelota-lekuan argazki batzuk atera zituzten.

Poz aundia artu zuten, errian ain maiteak zirala ikusi zutenean. Gero, gastatu zituzten diruak pena ematen zioten.

Itsasondo'ra jeixten ziranean, gure etxean sartu gabe etziran joaten iru gizon zarrenak beintzat, andik pasatzen ziran eta. Migel Josek esaten zion aitari:

– Ni bizi naizela naiago nitek kulpantea azalduko

balitz, gu giñala kulpanteak esaten zuten oiek jakin dezaten kulparik gabe ibilli gerala.

Bizente Mujika'k, berriz, goiz batean gure etxean sartuta, ala esan zigun:

– Guk gastatu ditugun diruak! Baiña diruak!

Esaten zuan, kartzelara joan ziranetik etorri arte, ogei ta sei milla erreal atera zirala aien etxetik. Gaur ez da asko; baiña orduan ogei ta sei milla errealek, gaur milloi ta erdiak aiña balio zuten. Bazan pena artzeko aiña.

Baiña deseo zutenik edo nai zutenik etzuten irixi. Aiek il eta gero, krimena egin eta andik amazapi urtera, konfesatu omen zuan kulpanteak, bera izan zala krimenak egin zituana.

Geroztik jakin nuan, krimena egin zuan aurreko egunean, bi ganadu erosi zituala tratolari batek Gorosagasti'n; eta ganaduak eraman baiño len ordaindu omen zituala baserrian bertan; eta ganaduak eraman eta gau artan bertan il zituala. Itxurak ziranez, egunez utzi zuan diruaren billa joana izango zan noski.

Juezak etzuan jakingo aurreko egunean ganaduak andik atera ziranik; edo etzuan jakin nai izandu. Bestela, bazuan zeri eldua.

Kulparik gabeak ondo pagatu zuten. Kulpantea billatzen etzegoan ain zailla, itxurak diranez.

Geroztik entzun det, ganaduak erosi eta arakiñei partitzen ibiltzen zala tratolari ori; eta gauean, arakiñarekin batera txekorraren gibela jan eta ondorenean, jokoan aritzen zirala. Etzuala ematen arek alako gauzarik egin bear zuanik. Bere kezka eramango zuan barrenean.

Azkenean damutu eta aitortu bazuan, danak balioko diote. Nik ez diot opa zoritxarrik.

Orrela bukatu ziran orduko kontuak. Baiña penak eta naigabeak aurrera jarraitu zuten.

Beroztegi'ko errotan bere burua urkatu zuanak, alaba txiki batekin utzi zuan emaztea; eta au gero, kartzelan egon zan Frantzisko bere koñadoarekin esposatu zan berriz.

Frantzisko orrek Tolosa'n zuan zerraren partea, Arantzegi'tarrak artu zioten; eta bere zerra, errota eta tabernarekin anaiaren lekuan segitu zuan Beroztegi'n.

Neroni ibilli nintzan berarekin zerran lana egiñez urte pare bat. Ondo ezagutu nuan famili ura. Lenengo anaiaren alaba ori neska polita zegoan, ni an ibilli nintzanean. Nik ere begiratzen nion, baiña beste bat egin zuan lagun.

Urte batzuk pasatu genituan alkar ikusi gabe. Joan dan urtean, Arantzazu'n alkartu giñan. Berak ezagutu niñun. Ni ezin konturatu zein zan. Berrogei bat urte gertu izango ziran, lenago alkar ikusi genduala. Esan zidanean zein zan, besarkatu nuan pozik. Gero ikusi nuan bere senarra alboan zeukala, eta esan nion:

- Ori lenago ikusi banu, esango nizun zein ziñan. Senarra neretzako oso ezaguna zegoan.

Gero, Arantzegi'tarrak Tolosa'ko lur ortan bi bizitzako etxe bat egin zuten. Lizardi baserria utzi eta Tolosa'ra joan ziran danak bizitzera. Etxea utsik gelditu zan.

Ikaztegieta'ko Benta-txiki baseritik joan zan famili bat maiztar Lizardi'ra. Ikaztegieta'ko baserri orrek kamiñoa dauka atean. Nunbait aspertuta egongo ziran kamiñoarekin. Bost kilometro urrutiago jarri ziran Lizardi'n bizitzen, Murumendi'ko arkaitzaren ondoan.

Gurasoak, bi seme eta iru alabarekin joan ziran. An bizitu ziran urte batzuetan. Alaba bat nere osabarekin esposatu zan. Seme zarrena baserrian gelditu zan, Dolores Etxeberria'rekin esposatuta. Beste semea Doloresen aizparekin –Roxali onen izena– esposatu eta Donostia'ko Loiola'ra etorri zan. Itxasotik ondarra ateratzen lana egiten zuan. Urte askoan sa-soiko eta gogorra izan da, baiña gaur bi anak moz-tuta dago. Beste alaba neskame joan zan, eta urte askoan ez det bere berririk izan. Orain dala urte pare bat alkartu giñan. Berriz lagun eginda gaude. Alaba gazteena ere atera zan etxetik Donosti aldera. Gaztetan lagun aundia nuan. Gero Donosti aldean billatu zuan laguna, eta urte-sail bat pasatu degu alkar ikusi gabe. Baiña zartzarora asi gera tarteka itzegiten.

Gero, anai zarrena, baserriari utzi eta Zumaia'ra alde egin zuan. Bere emazte eta ez dakit zer famili zuan, ara joan zanean.

Famili ori an bizi zala, beste bizitzako Bizenteren emaztea burutik nasten asi zan. Eta ikusi zutenean idea txarrak zeuzkala buruan, gauean ateak giltzaz itxita joaten omen ziran lotara. Baiña ura amets txarretan beti.

Egun batean, ikulluan bastante altu zegoan leiotik aterata, alde egin omen zien. Etxe azpiko oillotokiaren gaiñera jetxi, andik lurrera salto egin eta norabait joan omen zan.

Senarra konturatu zanean kuartoan etzeukala bere emaztea, asi omen zan danei deika. Etxean agiri etzanean, oartu omen ziran nundik atera zan. Orduan danak aren billa. Etxe inguruan ondo begiratu eta gero, erreka zeukaten etxearen kontra pasatzen zana, eta ganbarako leiotik bere burua aruntza bota ote zuan. Baiña arrastorik ez.

Orduan beste bizitzakoei deitu omen zioten, eta danak alde banatara zabaldu omen ziran beraren bila. Beste bizitzako alaba gazteenak arkitu omen zuan etxetik kilometro erdi bat bidera.

Tolosa'ra joan zan familiak zerra eta errota zeuzkaten; eta, aiek ibiltzeko ura izateagatik, Ordizia'ko erriak, Murumendi'ko arkaitzaren barrenean dagoan manantial aundi bat erosi zion Migel Jose Aranzegi'ri; eta goragotik zetorren ura, kanal batean eramanda, deposito bat egin eta jarri zuten salto eder batekin. Nai zutenean zerra eta nai zutenean errota ibiltzen zuten.

Beste bizitzako Maria Iztueta orri bururatu omen zitzaion ea depositu artara bere burua bota zuan, eta joan omen zan bakarrik deposito artara.

Kanalaren gaiñean, ganaduak ez pasatzeko, elorri-adar bat omen zeukaten jarrita. Bera pasatzeko, ura kendu eta berriz jarrita omen zeukan. Atzetik joan zanak ere ori bera egin omen zuan. Oso ondora iritxi baiño len ikusi omen zuan uraren gaiñean nola zegoan itota. Laister bueltatu omen zan abiso ematera bere familiari.

Oraindik egun gutxi dira orduko gertakariak kontatu dizkidala, orain Irun'en bizi dan Maria Iztueta'k berak.

Erritik jueza joan arte an egon omen ziran berari begira.

Gogoratzen naiz. Nik amairu bat urte izango nituan.

Santa Krutz'ko ermitaren ondoan egon giñan zai. Angarilla batean ekarri zuten, eta ermitaren ondoan bizkarretik jetxi. Don Salvador apaizak, orduan gure etxean zegoanak, aitagure bat errezatu, eta berriz lau lagunek bizkarrean artu eta errira eramán.

Lenago bi kilometro bidean etorri ziran, eta beste iru kanposantura. Ez da bide motza izaten. Neroni tokatu zitzaidan bi neska gazte Lizardi'tik errira jeixtea. Bizkarra ederki minberatzen zan, bide luzea eta txarra egoten zan eta.

Beraz, Gorosagasti'ko krimen orrek beste bi eriotz ekarri zituan ondorenean, beren pena eta nairgabez. Orrela ixildu zan Gorosagasti'ko krimenaren kontua.

Baiña gaur ere gogoan daukate, oraindik bizi diran iru senideak: Martin anaia, Luzia eta Maria.

Aizpa gazteenarekin ia asteazken geienetan itzegiten det, Ordizia'n lora saltzen egoten da ta. Tolosa'ko *Flores Arregi*'ko familiarekin esposatua dago; eta, Gorosagasti'ko kontua aitatzen degunean, laister berotzen da. Ez det uste arrazoiaren faltarik daukanik.

Baiña oiek beintzat badakite zein zan kulpantea. Beren gurasoak ori jakin gabe bukatu ziran. Pena ori izaten zuten.



Lizardi-goiko Aranzegi eta Mujika familiakoak espetxetik askatutakoan egindako bazkariaren ondoan ateratako argazkia.

IDIAZABAL'KO ITZAIAREN ILKETA

Beste kaso onek, gertatu zala, eun urte eta askoz geiago ditu. Penagarria bada ere, fetxarik ez daukagu. Ama batek bere seme-alabei kontatzen omen zien gertakizun au, eta seme aietako batek esanda jaso degu.

Idiazabal'ko itzai batek, bere ogibide bezela, naiz egunero ez egin, mandatari-lana egiten omen zuan, Idiazabal'tik Tolosa'ra dauden errien artean, orretarako bere idi-parea eta gurdia erabiliz.

Itzaiak, bere ustez, konfiantza aundiko adiskide bat omen zeukan, Beasain'go trenaren estazioan faktore-lana egiten zuana. Gero ikusiko degu konfiantza orrek zenbaiteraiñoko indarra zuan.

Itzaiak, egun batez, esan omen zion faktoreari, Tolosa'tik etxerakoan naiko diru ekarri bear zuala eta ea mesedez lagun egingo al zion Beasain'go Katea pasa artean.

Faktoreak baietza eman omen zion itzaiaren eskabideari.

Kontutan izan bear degu, Tolosa'tik Idiazabal'era etzegoala gaurko kamiño edo biderik. Billafranka'tik

Beasain'era kalez-kale joaten zan. Beasain igaro eta kamiñoa nola trenbidea gurutzatuz pasatzen zan, erderazko *paso a nivel* oneri Katea deitzen zitzaion, kate bat jartzen zutelako, tren pasatzean gurdi, oiñezko eta abarrei bidea mozteko. Bide ori bakarra zan Beasain'dik Idiazabal'era joateko.

Nunbait –zer gertatu zan gero jakingo degu– itzaia faktorearen laguntzarekin zijoan bere etxe-runtz.

Itzaia, gutxi gora-bera, ordu berean irixten omen zan bere etxera. Egun artan ageri ez eta etxeko danak jartzen dira kezkatu eta larri.

Ala zeudela, *tapa-tapa* an dator idi-parea itzairik gabe. Askatu omen zituzten idiak eta beren uzta-rrian, kopetakoekin tapatuta, an omen zeuden itzaiak zekarzkian diru guztiak. Nunbait lapurrak dirua nun zegoan etzuten arkitzerik izan.

Desgraziren bat gertatu zala-eta, itzaiaren etxe-koak irteten dira itzaiaren billa. Kamiño-bazterrean ilda arkitu omen zuten. Itzaiak zeuzkan zaurietatik, garbi ikusten omen zan krimen bat izan zala.

Itzaiaren etxe-koak parte eman dute Juzgatuan, gertatua kontatuz. Agintari oiek asten dira miaketan, eta auzoko etxe batean aurkitzen dute aizkora bat, gorri-arrastoak zeuzkana. Gaur ainbat analisis etzan izango eta egingo; eta aizkoraren jabea, kriminaltzat juzgatu ondoren, kartzeleratzen dute.

Aizkora-jabeak bere deklarazioetan esaten omen zuan, krimena gertatu zan egunean, altza –*aliso* erderaz– botatzen jardun zala, eta gorri-une aiek zugaitz-mota onek uzten duan tinta gorria zala, eta ez odolarena.

Dana alperrik, ordea. Gizona kartzelara, errurik gabe.

Au gertatu eta gerora, ez dakigu zein urte, il eta egunik, Donostia'n gertatu da tiroketa bat, kalean. España'ko ministro edo goi-maillako jaunen bat il omen zuten edo il nai zuten. Ortik tiroketa.

Bala galdu batek jotzen du Beasain'go faktorea; eta bere burua il-zorian ikustean, deklaratu omen zuan gertatua zeaztasun guziekin, zer eta nola itzaia il zuan. Bera ere tiro artatik il omen zan.

Ara, entzun degunez, gauzak nola izan ziran.

Emen ikusten da diruak zer gauza egin erazten dituan. Dirua lagun ona da norberak mendean ibiltzeko. Baiña diruaren mende jartzen bada gizona, bide txarrean sartzen da. Diruak egin erazten du mundu ontan kalterik geiena.

SANTA MARINA'TARRAK

Lengo gizonak ere gure modukoak izango ziran. Entzun izan nuan, garai batean telefonorik etzala erri askotan; eta, enteratu ziranean, asi omen ziran alkarri esaten telefonoa jartzeko ideak artu omen zituztela, eta lagun artean onela omen zion batek:

– Telefonoa ere ba omen diagu.

Gure ballaratik gertu, Itsasondo'ko Urki'tik bistan dago beste ballara bat, Santa Marina izena duana. Lau errirena da gutxienez. Eliza dago Albiztur'ko partean; beste etxe batzuk, Bidani'koan; besteak, Errezil'koan; Beizama'koan ere bai.

Or bizi zan zerbait zan usteko gizon bat. Eta, tabernan entzun zuanean telefonoa jartzen asi zirala:

– Zer dek ori? –esan omen zuan.

Esan diote Madrid'tik otsegin eta emendik entzungo zala telefonotik, eta ala omen zion:

– Ez dik eztarri txarra bearko Madrid'tik onera deitzeko.

Eta esan diote:

– Bai, gizona, bai. Orain, Tolosa'ra ferira zoaze-

nean, emazteari deitu nai badiozu, telefonotik egin zenezake.

Urrengo astelenean joan da ferira. Asi da telefonoa nun dagoan galdezka. Esan diote zein kaletan dagoan. Joan da gure gizon ori. Jo du atea eta atera zaió neskatxa bat, galdetuz ea zer nai zuan.

– Telefonotik itzegin nai nuke.

Eta neskatxak:

– Etorri barrena –esan omen zion–. Nora deitu nai dezu?

– Santa Marina'ra emazteari nai diot.

Eta orduan neskatxak:

– Zer numero da? –galdetu omen zion.

Eta gizon ori erdi asarretuta jarri omen zitzaion, esanez:

– Numeroa? Zer uste dezu: nik berrogei andre dauzkatela numeroka itzegiteko? Banengoan, ba, sorginkeri au egia izango ote zan! –esan eta atera omen zan.

Edozeiñek esaten zion ari, Tolosa aldean, egia zala.

Baiña denborarekin sartu zitzaion. Jabetu zan egia zala. Zelebrea zan eta beti etzan arratserako etxera biltzen.

Egun batean, ala entzun nuan, Ordizia'ra ferira joan da. Orduan goiz ta arratsalde egiten zan feria. Goizetik jateko gauzak eta jaztekoak. Arratsaldean ganaduak. Plaza batean, esne-beiak. Bestean, lanerako idiak; eta bestean, aragitarakoak. Zer ikusi aundia egoten zan. Gaur ganadurik ez da izaten.

Gure gizon orrek egun osoa an pasatu izango zuan. Lenengo, bazkaldu. Gero, berriz, beste buelta

batzuk ganadu artean, eta berriz meriendatzera lasai, eta akordatzerako illundu.

Eta, emaztearekin oroitu zanean, abarkekin ibiltzen zan eta abarka-sokak askatu, soka maiaren ankari lotu, abarka jarri belaunean, eta deitzen omen zion esanez:

- Maria, Maria! Oraintxe apaldu det. Bapo-bapo nago. Laister naiz etxean.

Bi orduko bidea zeukan Ordizia'tik bere baserri-
ra. Emaztea lasai bazegoan, lo-kuluska bat egingo
zuan ura etxera joaterako. Lenago ere oituta egongo
zan, eta ala obe.

Beste auek ere Santa Marina'koak ziran. Lau gi-
zon ferira etorriak, baiña zuzen samar ibiltzen zira-
nak.

Goizeko feria ikusi eta bazkaldu ederki, eta lau-
rak aldera etxerako bidea artu omen zuten.

Oitura onak bazeuzkaten. Ordizia'tik Itsasondo-
'ra tartean, badago San Juan deitzen zaion ermita
bat; eta oitura omen zuten, an sartu, ur bedeinkatua
artu eta aitaren egitekoa. Baiña lauetako batek esan
omen zien:

- Naiago diat nik, orko ur bedeinkatua baiño,
Tomasene'n kuartillo bat ardo.

Eta ez omen zan sartu.

Itsasondo'n bai omen zan Tomasene izeneko ta-
berna bat. Nik ez nuan ezagutu. Baiña entzun nien
nere gurasoei.

Ala, etorri omen ziran taberna ortara; eta, baten
tokian, kuartillo bana igual edango zuten seguru.
Noizbait atera omen ziran, patxara ederrean, etxe
aldera danak.

Beroztegi'ko ballaran artzen zuten mendi aldera, erreka baten ondotik.

Amaika bider pasatua naiz ni bide oietan. Lenengo, ikatz-karretoan; eta gero, egur txikiak, trunko aundiak eta danetatik. Iru bat urtean antxe ibili nintzan, batean errekatik eta bestean legorretik. Ango berri ikasi genduan ederki.

Iru baserri daude erreka orren ondoan. Bi, Zubin izenekoak; eta bestea, Zubin-etxeberri. Oiek danak pasata, ba omen dijoaz kontu-kontari laurak.

Andik aurrerakoak Santa Marina erreka du izena, ta alako batean irristatzen omen da bide-ertzean eta an dijoa beko erre kara. An omen zebillen, atera eziñik, larri. San Juan'go ermitan sartu nai etzuana omen zan, eta lagun batek goitik esaten omen zion:

– San Juan'en ez uan ur bedeinkaturik artu nai, baiña orain artu dek naikoa!

An atera omen zan txittoa bezela. Izerditu bildurrik gabe joan omen zan etxe aldera.

San Juan'en etzuan nai
beatzikan busti,
gero errekan sartu
abarka ta guzti.
Eskarmentu geiago
badauka gerozti,
elizara maizago
sartuko da noski.

Zer txar egiten duan
federikan ezak!
Gero etortzen dira
gauza aldrebesak.

Oker oiek ez dira
zuzentzen errezak,
ondo zaindu gaitzala
zeruko Juezak.



Bizente Barandiaran eta Uztapide zana.

ETXETIK KANPORA

Ogei eta lau urterekin atera nintzan kanpora lanera, errian bertako Sarasola'ren arrobi-zulora. Baiña neretzako lan txarra zan. Umedade aundia zegoan eta ni erreuma aidearekin gaizki ibiltzen nintzan. Ogei eta zortzi egun pasatu nituan eta jornalaren aitzakia jarrita atera nintzan.

Gero, Beasain'go fabrikan eskatu nuan, eta gaur baiño errezago zegoan lana billatzen. Sasoia ere alakoa orduan: ogei eta lau urte. Pentsatzen jarrita ere, ezin nekatu garai artan. Berealaxe deitu zidaten.

Asi nintzan lanean eta zortzi ordu bakarrik. Ni ezin egon lan geiago gabe. Aspertu nintzan eta denbora gutxi egin nuan.

Andik atera eta lau lagun artuta, basora joan nintzan ikatz egitera. Baso-sail bat erosi nion Lizardi baserriko Bizente Mujika'ri: Aitzordi izeneko basoa, Murumendi'ko arkaitzaren ondoan.

Lau lagunak ikatz egin, eta nik idi-pare bat erosi nuan eta aiekin ikatzak jetxi. Beroztegi'n bizi zan Frantzisko Lasa'ri saltzen nizkion danak.

Ikatzaren prezioa, bi erreal kiloa. Gaur amabost

durotik gora balio duala uste det. Alde ederra dago, gu ibilli giñanetik oraingo preziora. Lana gaur baiño merkeago egiten genduan.

Ez giñan ikatz egiten bakarrik jarduten garai artan. Egun batean, gogoratzen naiz, San Juan eguna ain zuzen, Itsasondo'n banuan lagun bat nerekin bertsoan jarduten zana: Santos Olaizola, Beizama'ko Santa Ageda tabernako semea, gure errian perratzaille zegoana. Asteazkenez tokatu zan urte artan San Juan. Ordizia'n pasatu genduan goiza.

Bazkaldondoan etxe aldera gentozela, San Juan ermita bidean dago eta an festa zegoan. Nere lengusu bat, Bizente ni bezela, festako zuzendari zebillen, eta esan zigun balkoitik bertsoak kantatzeagatik aparria emango zigula. Guri ajola gutxi balkoira igotzeko.

Agindu zigunean, ekin genion kantu-lanari. An agertu zan guri entzutera jende-sail bat. Aien artean, Arama'ko Ibas'ko alaba gaztea, Martina zana. Norbaiti ekin bear eta asi giñan berari kantatzen. Gorritu arazi genduan. Baiña etzigun gaizki artu. Bera jetxitakoan, dantza-saio ederrak egin genituan berarekin, eta ondo partitu giñan.

Illundu zuanean, sartu giñan tabernara apaltzera. Soiñujolea, Aldaba deitzen ziotena, gure koñatak orain Ordizia'n daukan tabernakoa zan. Apaldu ederki eta asi giñan, arek soiñua jo eta guk bertsoa kantatu.

Ustu genituan an zeuden edaririk geienak. Frantzisko Mari tabernariak esan zigun etzeukala kaja ardo bat besterik. Ura mai gaiñera ekartzeko esan genion, eta danak segituan ordaindu. Edaten asi giñan, baiña ezin bukatu. Sobratu ziranak, tabernariari guk kobratu eta irten giñan goiz aldera.

Bagiñan gure ballarakoak bi osaba, lengusu bat

eta beste lau bat lagun alkarrekin. Etxe aldera abiatu giñan. Bat gelditu zitzaigun joan ezinda. Nik eldu nion laguntzeko, baiña ni ere naiko lanekin. Ala ere ez nuan utzi nai, nere familiakoa zan eta. Izerdi ederrak atera arazi zizkidan andik Urki'ra bidean.

Etxera joaterako, eguna argitzen asia zegoan. Idiekin basora joan bear. Atetik ixilik sartu eta erro-pak aldatu nituan. Ama sua piztutzen ari zan. Esan nion azkar joan bear nuala basora, eta gosaria jartzeko. Idiei jana eman, eta aiek jan arte atzeko aldetik begira egon. Jan zutenean, lotu, gosaria artu eta joan nintzan basora.

An gurdia kargatu. Ordu pare bat bear nituan bidean kamiñora jeixteko. Beroztegi'n gurdia ustu. Bera jetxi arte, eroriko ote zan bildurrez loak ez niñun penatu. Baiña bueltan abiatu nintzanean, ezin zutik joan, lo artzen nuan eta.

Gurdian banituan berriz betetzeko zaku utsak. Aiek gurdian zabaldu, akullua alanbrearekin lotu gurdiari, eta etzan nintzan zakuen gaiñean. «Aida!» esan nien idiei, eta nik uste det lo laister artu nuala. An joan nintzan, aurrak seaskan bezela, lo egiñez.

Idiak gelditu ziranean, altxatu eta begiratu nuan. Goizean kargatu nuan lekuan zeuden, arbol-tarte gu-ziak pasata. Aiek ni baiño argiago zeuden. Bitartean, deskantsu ederra artu nuan.

Koñataren aizpak, Anitak, eraman zidan bazka-ria. Bazkaldu eta idiak jan arte siestan jarri nintzan. Ez nuan asko egin izango. An etzegoan erlojurik eta ordurik. Siesta luzea egin nuan bildurrez, presaka gurdia kargatu eta alde egin nuan.

Bigarren buelta eginda, bestetan baiño goizago etxeratu nintzan. Iritxi nintzanean, aitari esan nion idiak gobernatzeko.

- Nora joan bear dek? -galdetu zidan.
- Oiera -erantzun nion.
- Atzo baiña goizago joan bear al dek gaur?

Orrela bukatu zan gure San Juan festa. Parranda egin eta urrengo egunean ez giñan, gaurko askok bezela, oiean egoten. Naiz gorputza kastigatu, lana egin gogotik.

Gu udara osoan an ibilli giñan ikazkintzan. Nekea bear bazan, izan genduan naikoa. Nola ikazkiñak ala karreteroak, naikoak egin genituan.

Udara pasatu genduan. Gure kinta, erdia etxera etorri eta beste erdia an zegoan kuartelean. Eta neri errira presentatzeko abisoa eman zidaten, nere kinta berriz deituta. Baiña ez ninduten eraman orduan. Kontuak eginda partitu giñan basoko lanetik.

Ni gelditu nintzan nere idi-parearekin etxean, eta ondoan bizi zan osaba bat, ama zanaren anaia. Arek ere bazeukan idi-pare bat. Biok asi giñan.

Baso bat artu genduan, egurra bota eta nunbait saltzeko. Lenago ikatzak eraman nizkion Frantziskori saldu genizkion egurrak geienak. Arek zeuzkan lekuak bete genituanean, etzuala geiago bear esan zigun.

Ordizia'ko panaderoiei asi giñan orduan eramaten. Noizbait bukatu ziran gure egurrak. Gero idiak saldu nituan eta libre gelditu nintzan.

Berriz nunbait asi bear. Jango bazan, lan egin bear. Orduan, Beroztegi'ko zerrako nagusi orri esan nion ea lanik zeukan, eta nai nuanean joateko esan zidan. An asi nintzan zerran, trunkoak zerratzen.

Baiña betirako etzitzaidan gustatzen lan ori. Lan gogorra zan trunkoak ibiltzen. An ere urtebete pasa-

tu nuan. Ez nengoan gustora, ordea, eta esan nion nagusiari beste toki batera joan bear nuala.

Erantzun zidan, arek ez zidala galeraziko. Batzuk bazirala ez joateko esaten asten ziranak. Baiña gizonak bere idea libre zuala.

Donostia'n koñado-gaia neukan, eta esan nion ea bai al zekian neretzako moduko lantokirik. Bai laister billatu ere. Urrengo astelenean etortzeko igeltesero-peoi.

Ala, etorri nintzan Donostia'ra. Bi lagun ziran, Antonio eta Elias, gizon jatorrak benetan. Astelengoizean, txabola bat zeukaten Barrio Gros'en, eta ara joan nintzan.

Artu genduan astoa bere karro eta erramientekin. Ala, joan giñan Intxaurrondo ballarara. An transformadorea jartzeko txabola bat egin nai zuten, iru bat metro alde batera eta bestera.

Eliasekin joan giñan, eta esan zidan berrogei zentimetro zabalean, eta beste ainbeste bera, zimenduak ateratzeko.

Artu nituan atxurra ta pala. Bi ordu barru atera nituan nik ango lurrak. Bederatziak aldera asi eta amaiketarako bukatu nuan.

Orduan Eliasek esan zidan bazkaltzera joateko. Goiz baterako naiko lanak egin nituala. Aiek arritu egiten ziran, orduan nik neukan sasoiarekin.

Arratsaldean, Zategi baserriko Antonio etorri zan idi-parearekin. Izengoitia *Erbia* deitzen zioten. Ari laguntzeko esan zidan Eliasek. Bereala kargatu genduan gurdia blokeekin.

Oso txistosoan zan gure Antonio ori. Errera'ko bere lagun bat eizera omen zijoa, bi zakur eta eskopeta artuta. Zakurrak bere ondoan pasatu ziranean, eiztariari esan omen zion:

– Zakur tonto ederrak dauzkak.

Eiztariak galdetu omen zion:

– Zergatik?

– *Erbia* ondoan pasa eta kasorik etziotek egiten.

Eiztariak, parre eginda:

– Beajondeikela, Antonio!

Lanean ere olako zelebrekeriak esanez aritzen zan.

Gurdia kargatu eta abiatu giñan aldapa gora. Karga aundia ipiñi genduan eta, idiak gelditzen zira-nean, kurpillaren azpian arri bat jarri nuan nik. Ikusi niñun Antoniok eta esan zidan:

– I, lenago ere, ez aiz ofizinan ibilli.

Antzeman zidan ganaduekin ibillita nengoala.

Ala, iritxi giñan goiko gaiñera. An ustu genduan, eta andik bear zan lekura karretillarekin jetxi nituan.

Seiak aldera utzi genion lanari, eta Elias an gertu bizi zan. Bi edo iru barrika sagardoz beteak zeuzkan, eta aiek probatzen jardun giñan.

Ni arritu egiten nintzan. Goiz artan ezagutu genduan biok alkar eta familiko bat bezela jartzen giñun. Arekin segitu zitekean lanean.

Gu goizetik arratsera oituta geunden. Aiek lenago uzten zioten lanari. Asko nekatu gabe pasatu nuan astea. Gu latzago oituta geunden.

Bigarren egunean, aurrekoan bezela, astoa trasteekin kargatu eta eraman genduan lantokira. Ustu genduan, astoa txabolara eramateko agindu zidan Eliasek; goizean artu genduan tokira alegia. Gaur aiña kotxe etzan ikusten, baiña *Jai-Alai*'ko tunelean karreteratik pasatzerakoan begiratzeko kotxerik zertorren. Andik aurrera uzteko astoari bere gisara. Bidea bazekiala ondo txabolara.

Ara iritxi zanean, atea irikita, erderaz entenitzen zuan eta nik ere ala itzegin nion:

–*¡Atrás!*

Karroa atzeraka sartzeko alegia. Baiña jenio txarra zeukan nunbait berekin; eta, atzeraka asi bearrean, neronen gainera saltatu zitzaidan, besotik ortzekin elduta. Baiña gaur baiño sasoi obea neukan, eta laister alde egin nion bere ondotik.

Bildurtu zan astoa, nai zuana iritxi etzuanean. Sartu zan atzeraka aguro. Kendu nizekion karroa eta bere tresnak. Txabola ondora eraman eta lotu nion baztarrari. Karroaren baran zebilkiñ katea artu eta ekin nion burutik bera jotzen. Baiña suerte ederra izan zuan: beste nagusia azaldu zitzaidan. Bereala ekin zion oska:

– Zer pasatzen da?

Ura etorri zalako, nik nai aiña berotu gabe gelditu zan. Besotik azal-puska kendu zidan. Oraindik an segitzen du San Inazioko elizaren aurrean botika batetik, eta nagusiak ni ara eraman eta an lotuta jarri zidaten besoa.

Bazkaldu eta berriz lantokira joan nintzan, besoa lotuta nuala. Eta Elias nagusiak ikusi niñunean, ondoratu baiño len, deitu zidan:

– Astoak eldu dizula apustu!

Erantzun nion:

– Len ez didazu esan asko nolako astoa zan.

Eta esan zidan:

– Naiago nuan akabatu bazendu.

Geroztik ibilli nintzan asto arekin. Baiña geiago etzidan azio txarrik egin. Bildurra sartu nion.

Ni gustora nenbillen, baiña nere emaztegaiaren etxean ez nunbait. Koñadogaia etorri zitzaidan: Bea-

sain'go fabrikan makina bat ona bazegoala libre, eta jefeari esan ziola artuko al niñun; baietz esan ziola, eta ea ez al nuan joan nai.

Ikusi nuan aien gogoa, eta baietz esan nion. Lotsa ematen zidan berriz baninjoala esateak, baiña esan egin bear. Orduan larunbatean ere lana egiten zan, eta illuntzean, kobratzera joan nintzanean, esan nion nola etorri zan koñadogaia Beasain'era joateko esanez, eta:

– Joan bear badezu, guk ezin galerazi –erantzun zidan.

Aste guzian an ibilli zan nere paperak zuzendu eziñik: bateko, Abastos'era; besteko, Segurura... Orduan bazan rasionamentua eta kontua ugari. Eta, paper-lanak bukatu zituanean, nik alde. Pena artu zutela uste det.

Ala, urrengo astelenean Beasain'en asi nintzan. Lotarako tokia ere billatu nuan Ordizia'n. Oraindik zutik dago Bustuntza izeneko baserria. Bi bizitzako etxea da. Batean bizi ziran senar-emazteak seme batekin. Aiengana joan nintzan, artuko niñuten esanez. Ezagunak ziran, eta baietz esan zidaten.

Kamiñoaren ondoan dago baserri ori, ta atariko atean bizikletan jarri eta kilometro eta erdi lantokira.

An bagoien kurpillak zaintzeko ejeak desgastzen nituan. Nere lana, gruarekin jaso ta jarri mar-txan, eta berrogei eta bost bat minutu bear zituan bukatzen. Zutik egoten geiago nekatzen nintzan lanean baiño.

Baiña ura etzan neretzako lana. Aste bat egunez eta bestea gauez. Gaueko astea tokatzen zanean, ez nintzan bizitzen. Oso triste ibiltzen nintzan. Gaua lotarako bear zan neretzat. Naiago nuan nik egunez

amabi ordu egin, gauean zortzi ordu baiño. Baiña an agindutakoa egin bear.

Orrela nenbillen, iñun neretzako moduko etxerik azaltzen ote zan.

Alako batean, Oiartzun'en zeukala Simon Aduriz korredoreak esan zidan, eta joan giñan aita ta biok. Ikusi genduan etxe ori. Bastante urruti zegoan. Lekune, baserriaren izena. Baiña kamiñoa ondoan zeukan, Artikutza'ra dijoana. Arek poz ematen zidan neri. Naiz urruti egon, kamiñoa gauza aundia zan neretzat. Asi giñan tratoan, baiña ez giñan konpondu.

Urrengo asteazkenean, lanetik irten eta etorri nintzan Ordizia'ra. Aita billatu nuan, eta esan nion zerbait aginduko ote genion. Nik baiño eskarmentu gaiago zeukan berak. Urruti zegoala esaten zidan.

Gero, billatu genduan Simon ori. Galdetu nion ea zer egin genduan etxe orrekin, eta saldu zuala erantzun zidan. Pena artu nuan.

– Baiña beste bat badet Errera'n –esan zidan.

Galdetu nion:

– Ea noiz ikusten degun.

– Zuk nai dezunean –erantzun zidan–. Biar bertan, nai badezu.

Baietz esan nion.

Arratsaldean, fabrikara joan eta eskatu nuan permisoa urrengo egunerako, eta eman zidan, zertarako nuan esan nionean.

Ala, urrengo egunean joan giñan aita eta biok. Aitaren anaia lendik an bizi zan, Altza'ko partean. Aren etxera joan giñan lenbizi. Andik etorri giñan irurok, ikusi genduan eta trataoa egin ere bai.

Aukera aundiak jarri zizkidan. Bi bizitzako etxea da. Aldamenean zegoan beste etxe bat, lengo etxe orren nagusia bizitzen zana. Iru bizitzatik nai gendua, beren prezioa jarrita; eta nik baserriaren erdia artu nuan.

Obra piska bat egin eta bi bizitza jarri nituan. Lenago Legorreta'ko zerran bi lagun ibilli giñan, eta lagun arek esan zidan beretzat bizitza bat egiteko. Oso lagun ona zan, eta ala jarri nion bizitza bat.

Laister, esposatu eta etorri ziran. Juan eta Daniela beren izenak. Biak il berriak dira. Zeruko zorionean ditezela.

Illeko ogei duro errenta. Urte batzuk pasatu zituzten. Bi senar-emazteak alkarri lagunduz, oso ondo bizitu giñan.

Gero, berak etxe bat egiteko gogoia sortu zitzaion maiztarrari, eta bere emaztearen aita argiña zuan; eta, arek lagunduta, Lasarte'n terrenoa erosi eta bien artean etxe ederra egin zuten. Antxe bizitu dira Jau-nak deitu arte. Berekin gorde ditzala.

Aiek alde egin zutenean, besteak etortzeko pozez neuzkan, eta Julian eta Juanita etorri ziran. Orduan, illeko irureun pezeta.

Pasaia'ko puertoan lana egiten zuan, eta puertoak bere langilleentzako etxe-bizitzak egin zituan. Modu onean jarri zioten eta aruntza aldatu ziran.

Urrengo, Cáceres'ko famili bat etorri zitzaidan. Oso onak aiek ere. Amalau urte pasatu zituzten. Illean iru milla pezeta sartu ziranean, eta sei milla azkenean. Famili orrek emen gertu piso bat erosita, alde egin zuten.

Orduan bi neska gazte, batek bear eta besteak bear. Lenengo iritxi zanari eman genion. Bakarrik etorri zan, baiña esposatu zan eta ementxe bizi da.

Maiztarren kontuak aitatu ditut eta nereei segitu bearko diet.

Etxea erosi eta, oraintxe berrogei ta lau urte, bakarrik etorri nintzan. Bi bei zeuzkan lenago zegoanak. Aiek erosi nizkion, eta artzaia zebillen artean gure etxean. Neretzako etzegoan lanik, eta Pasaia'ko puertoan asi nintzan lanean.

Maiatzean artzaiak alde egin zuan. Orduan egin nintzan terrenoaren jabe, eta asi nintzan baratza-gauzak zerbeit egiten.

Gauean Donostia'ra joaten nintzan lotara. Goizean, lenengo tranbean etortzen nintzan Errera'ra. Andik baserrira oiñez, kilometro bat pasea. Orduan etzegoan gaur bezelako kotxe-aukerarik.

Ettxera etorri, beiak jetzi eta gobernatu. Bildutako esneak artu eta Errera'n zai egoten zan koñatagaia. Zenbat laguntza egin zidan ez dago esaterik. Arek Donostia'ra esneak eramane, eta bere auzoan danak partitu. Neretzat bazkaria jarri eta marmitekin batera bazkaria baserrira eramaten zidan.

Ni, amabietan puertotik atera eta baserrira joaten nintzan. Bazkaria berotzen jarri eta beiei jatenak eman eta bazkaldu, eta ordubata ta erdirako lanera berriz.

Arratsaldean, eguraldi ona bazan, lanera etortzen zan koñatagai ori. Nik, orduak baldin baziran, bi ordu geiago lana egiteko, puertoan gelditzen nintzan. Eta ura, gaixoa, aritzen zan ni etorri arte. Neretzat merienda an edukiko zuan.

Egiñalak egiten dizkiogu zorrak ordaintzen, baiña ez dizkiot danak ordainduko. Oraintxe dago lagundu bearrean, larogei urterekin. Saiatzen naiz alegiña, danak merezi ditu eta.

Onela ibili giñan, uztaillaren 13'ra arte. Orduan

egin nintzan emaztearen jabe. Etxeko obrak bukatu zizkidaten, eta bertan bizitzen jarri giñan. Andik aurrera nunbait or. Etxean beintzat jan eta lo, eta laguntza ere bai. Beste bizi-modu bat.

Bostetatik bi genitun illak,
bizirik iru senide,
zarrena etxean geratu zana,
aldegin bearren ni're.
Etxe koxkor bat billatu nai ta
pasa nun ainbeste bide,
Jainkoak ala nai zuan eta
billatu nuan ori're.

Donosti'ko Altza'n baserritxo bat
orduán nuan erosi,
esposatu ta biok lanean
gogotsu giñaden asi.
Familia're sortu zan eta
aiek biar ziran azi,
antxe ordurik gozoenak guk
oieri begira kasi.

Gero ere puertóan segitu nion urte bat edo bi. Ondoren etxean naiko lana sortu zan, eta utzi egin nion puertoko lanari.

Zortzi urtean etxean jardun nintzan, eta gero asi zitzaizkidan esanez, subsidioak eta puntoak bazirala fabrikari asi ezkeró, eta gu orduán danen bearrean giñan.

Ala, eskatu nuan *Ramon Vizcaíno* fabrikari. Lais-ter deitu zidaten. Lenengo, kaldererian artu ninduten. Baiña nik arotzerian naiago, eta bereala pasatu nintzan nere gogoko lanera.

Baserriko lanak eta fabrikakoak, danak egiñez, sasóia zegoan arte. Gero etorri zan emaztearen len-

gusua, bidanitarra, etxean artuko al genduan esanez. Emazteak nai zuan, eta ni ere pozik, lagunduko zuan esperantzan.

Orrek denbora pixka bat pasatu zuanean, bere anaia etorri zan, eta biak artu genituan. Ez dago esaterik zer suerte etorri zitzaidan. Baserriko lanak aiek egiten zituzten. Nik fabrikan, al nituan ordu guziak sartzen nituan.

Orrela pasa genituan urte batzuk. Lenengo, puer-toan asi ziran. Baiña laister, *Contadores* deitzen zaion fabrikan sartu ziran. Askotan erreleboan ibiltzen ziran, eta etxeko lanak egiteko naiko denbora izaten zuten.

Ala zebiltzala, anai gazteena ezkondu egin zan, eta ez nion aterik itxi nai izan. Kanean jarri zan.

Esan nion lurra sopra zegoala; sail bat artu eta etxerako bear zuan baratza-gauza egiteko beretzat. Lendabizi duda jarri zidan. Baiña emen, egiten ez bada, ez baita izaten, bigarren urtean esan zidan patata pixka bat ea egingo al zuan. Lenago ere esan niola nik. Banekian kalea zer zan.

Bestea soltero bizi da. Neretzako ez da gaizki etorri. Iruditzen zait anai bat daukatela etxean. Bate-re gutxiagorik ez det maite. Uste det bera ere gustora dagoala.

Orrela nenbillela, bete nituan irurogei urte, eta orduan jarri zuten, nai zuanak, euneko irurogeirekin erretiratzea libre; eta ni aspertua nengoan.

Lengusuak goizetik egiten zuan lana; eta nik aste artan lenengo etxeko lanak eta gero zazpietarako fabrikara lanera. Goizetik nunbait or. Baiña irurak laurden gutxi arte segi egin bear. Azkenerako nekatu egiten nintzan, eta nekatzean pazientziak bukatu egiten dira.

Asi nintzan erretiratzeko paperak zuzentzen. Birtartean, jendea asi zan esanez, irurogei urte betetakoak danak bialtzeko idea zuala nagusiak.

Ori entzun nuanean, laister igo nintzan galdetzerara; eta paperak nola egin esan zidanari, galdetu nion ea egia zan, eta baietz erantzun zidan. Obe nuala illabete bat edo bi segitzea.

Esan bezela egin nuan. Ilbeltzaren 24'ean bete nituan irurogei urte. Baiña lanean segitu nion martxo alderarte. Orduan, gaixotu eta etxean gelditu nintzan.

Illabete bat pasatu eta pixka bat sendatu nintzanean, joan nintzan sendagillearengana, lanean aste-ko moduan nintzala esanez. Eta sendagilleak erantzun zidan, nik naiko lana egin nuala, eta erretiroa eman arte egoteko etxean; baja bialduko zidala.

Neretzako etzan arrazoi txarra. Etxean pasatu nuan ekainaren 30'a arte. Orduan bialdu giñun ogei ta emezortzi lagun, eta jornal osoarekin, batzuk zarrak eta besteak osasun-faltakoak. Gustora giñan, fabrikako lana utzi genduan.

Erretiratu nintzanean, taberna bat artu zuten gure gazteak. Aiei laguntzen asi nintzan. Asteko pozik, baiña aspertu ere bai laister. Taberna gustora egoteko ohea da, derriorrean egoteko baiño.

Askotan ateak neronek zabaltzen nituan. Lenengo egunetan oso pozik. Ordura arte, tabernan, neronek nai nuan arte bakarrik egoten nintzan. Baiña orduan, nai ta nai ez, an egon bear, eta taberna ez da nik uste nuan bezelakoa.

Mostradorearen barrendik egon edo kanpotik egon, alde aundia dago. Pazientzi aundia bear du mostradorean egoteko, eta edadekoarentzat zutik egotea oso txarra da. Azkenerako, anak aunditzen

asi zitzaizkidan, eta eskerrak besteak ere aspertu zirala.

Bi suiak linterneriko-lanak egin eziñik zebiltzan. Andik etorrira, tabernan gauean amabiak alde arte askotan, eta lan askok umore txarra seguru.

Ni jarri nintzan salduko balute pentsatzen, eta besteak ere bai. Asi giñan egunkariaren bitartez abisatzen.

Taberna oso ondo jarria zegoan. Danei gustatzen zitzaien. Baiña diruarekin lanak. Arek ikaratzen zituan danak. Beintzat, azkenean iru erostun batera etorri ziran.

Lenengoa, len izan gabea. Ura, ikusten zebillen bitartean, bestea arek alde egin zai.

Bigarrena, lenago izanda zegoan semea. Urren-goan amarekin etorri zan. Itxura zanez, bera zegoan poltsera. Esan zigun Aurrezki Kutxara joan bear zuala, zer ematen zioten. Pozez beterik geunden, zerbait egin ustean.

Bestea etorri zan. Ura lenago jakiñean zegoan, dana ondo ikusita, eta prezioa ere bai; eta, besteak alde egin zuanean, beretzat artzen zuala esan zigun.

Sinistu eziñik gelditu giñan. Ez genduan oraindik pentsatzen egia zanik. Baiña azkenean traba batzuk ibilli zituan, arritzekoa etzan eta. Alare, eskriturak egiteko pronto zala abisatu zigun. Ez giñan asarre.

Paper-lanak egin zituzten, eta dana ordaindu zigun. Alkarrekin bazkaldu eta poztasun ederrean etxeratu ziran. Ori zan otsaillaren 15'garren eguna.

Baiña maiatzaren komunioko bazkariak geneuzkan eskatuak. Esan zion nere alabak bera zegoala aginduta eta berak lagunduko ziola, jendea gustora

gelditzearren. Egun aietan, esan bezela, berak bazkaria jarri eta ematen lagundu. Orrela bukatu genituan gure tabernako lanak.

Guk orain etxean badaukagu naikoa zer egin. Askoren bearrik ez det emendik aurrera. Deskantsua obe degu.

Baiña garai bateko edadekoak eta gaurkoak ez degu bizitza berdiña. Gure gurasoak etzuten izan, zartu ziranean, beren saritxoa kobratzerik. Bizi guzian lanean pasata egin zutenean, beren ondorengoak zer emango zai egoten ziran.

Gertaera bat ikusi nuan nere etxean. Gure aita zartu zanean, semeak artu zituan etxeko artu-emanak, eta diruaren gora-berak ere bai.

Egun batean, guri bisita egiteko bear ainbat diru etzeukala berekin eta etxean zeukan semeari eun pezeta emateko eskatu omen zion. Semearen erantzuna au izan omen zan:

– Nik zuri eun pezeta eman? Armarioan or dago kartera, etxean dauden diruekin. Nereak ainbeste dira zureak. Bear dezuna artu zazu, nik eman zai egon gabe.

Gure etxera etorri zanean, esaten jardun zitzaidan semeak zer erantzun eman zion. Onela zion:

– Poz ederra eman zidak.

Gaurko egunean nai degun guzirik naiz ez jaso, beste moduz bizi gera, daukagun laguntzarekin.

Gure gurasoak, illaren azkenean Aurrezki Kutxara joan eta eun pezeta benik izan balute, zer atsegiña artuko zuten! Olakorik iritxi gabe joan ziran mundutik.

Gure sueldotik kentzen zigutenean, pena artzen

genduan. Baiña badaukagu beraren ondorena. Orain illaren azkena etorri zai egoten gera pezeta batzuren jabe egiteko; eta orrekin ez degu izaten, baxoerdi batzuk artzeko, ondorengoei eskatu bearrik. Osasun ona Jainkoak eman dezaigula emendik aurrera.

Lau alaba guk sortu genitun,
gu ere aiekin pozik,
baiña nunbait e etzan komeni
ondo izatea guzik.
Alabarikan gaztena jarri
zitzaiguna ondoezik,
etzitun izan mundu onetan
denbora askoko grazik.

Ogei eta bat urte zitula
azaldu zitzaion gaitza,
«auxe ez dago sendatutzerik»
mediku jaunaren itza.
Ogei eta sei urtekin arek
bukatu zuan bizitza,
gogoratzean negar-malkoak
sarri boteaz gabiltza.

Iru alaba ezkondu ziran
ta bina aurtxo dituzte,
beai begira gu ere pozez
oiek eukitzen gaituzte.
Alaitasuna baiño oberik
dagoanik ez det uste,
al balitz danak nere ondoan
beti eukiko nituzke.

Saiatzen gera billobatxoak
al dan ondona azteko,

ta bearrezko duten eskola
danari erakusteko.
Ez daduzkagu gure billobak
baztatu eta uzteko,
oietxek dira gauzik onenak
aiton-amonak pozteko.

Eskarmentua berekin dauka
urte askotxo ditunak,
orregatikan saiatu bear
egiten al ditugunak.
Beti gogoan artu ditzagun
gero datozen egunak,
azken orduan ere pozgarri
izango dira lagunak.



Bizente Barandiaran.

ARKIBIDEA

Nere munduratzea	7
Gure etxea	11
Nekazaritza	21
Artzantza	33
Txerria	45
Elurra	49
Baso-lanak	57
Urki ballara	65
Lizardi ballara	93
Ermita	101
Urki'ko meza	109
Beizama'ko ilketa	127
Idiazabal'ko itzaiaren ilketa	143
Santa Marina'tarrak	147
Etzetik kanpora	153


ORAINDAIÑOKO LIBURUAK

117'garrenetik aurrera.

- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*)
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*)
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*)
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*)
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*)

- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*)
151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)
152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.
158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169: *Basarri*: Kezka-giroan.
170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, I.
175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, II.
176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, I.
181: *Ataño*: Zigorpean.
182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, II.
184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
189: *Ataño*: Eltzaorra.
190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
192: *Ataño*: Odol-kutsua.
193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
196: *Ataño*: Etorkizuna.
197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzapenak.
199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
207: *Ataño*: Aztia usnari.
208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.



AUSPOA
LIBURUTEGIA